# Sagastiberri



## URRUZUNO literatur lehiaketa

## 2005

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

# literatur lehiaketa 2005

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

**Urruzuno Literatur Lehiaketa (20.a. 2005)**
Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 2005 : lan sarituen bilduma. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005
or. ; cm. — (Sagastiberri)
ISBN 84-457-2358-8
1. Euskal literatura-XX. mendea - Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma.
891.69"19"(064.3)

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2005eko abuztua |
| Ale-kopurua: | 2.600 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Maite Artabe, Iñaki Iturain, Iñaki Artola,<br>Miren Jule Azurza eta Santos Izagirre |
| Azala: | Jesus Iturriza |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa eta<br>inprimategia: | R.G.M., S.A.<br>Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao |
| ISBN: | 84-457-2358-8 |
| Lege-gordailua: | BI |

# AURKIBIDEA

**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Ilargi bat gelako sabaian.** *Fernando Morillo* . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

| | | |
|---|---|---|
| Batrachus . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Izarne Oiarzabal Santiso* . . . . . | 19 |
| Infernuaren mugetatik . . . . . . . . . . | *Asier Artola San Miguel* . . . . . . | 29 |
| Tximeleta zuriak kutxa gardenetan asfixiatzen dira . . . . . . . . . . . . . | *Alots Arregi Izagirre* . . . . . . . . | 39 |
| Isilpeko ametsak kanporatzean . . . | *Ander Ceña Setien* . . . . . . . . . . | 57 |
| Mentre dorme la Cittá . . . . . . . . . . | *Juan Atxutegi Sarrionandia* . . . | 73 |
| Esnatzean ez zegoen «ZZZ»-rik . . | *Izarne Oiarzabal Santiso* . . . . . | 83 |

**Prosa: B maila**

| | | |
|---|---|---|
| Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute . . . . . . . . . . | *Garazi Ansa Arbelaitz* . . . . . . . | 95 |
| Yumemi Kobo . . . . . . . . . . . . . . . . | *Miren Estibaliz Vivanco Ramirez* | 105 |
| M . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Alvaro Atxutegi Sarrionandia* . | 117 |
| Mugagabearen mugatasun irreala . | *Ane Badiola Ostolaiz* . . . . . . . . | 123 |
| Esne berotan biguntzen diren gaileta lehorrak . . . . . . . . . . . . . . . | *Olatz Mitxelena Larreta* . . . . . . | 133 |

**Poesia: A maila**


MMS eta hiruretatik ilargia ...... *Julen Setien Arrue* .......... 145
Gutun guztiak karteroak jan dituelako ..................... *Juan Atxutegi Sarrionandia* ... 153
Ez dut astirik ................ *Ainhoa Jimenez Goñi* ....... 161
Jolasean ..................... *Olatz Ibarluzea Santisteban* ... 173
Ahotsik gabeko deiadarra ....... *Garazi Etxeberria Barandiaran* 181
Zure etxea izan bedi Himalaya ... *Haritz Casabal Pikabea* ...... 187
Gomuten gurpilean biraka ....... *Maialen Olazabal Loyola* ..... 201
Amets minez ................. *Itxaso Amaia Paia Ruiz* ...... 207


**Poesia: B maila**


Beteluko adarbakoitzaren kantorea *Miren Estibaliz Vivanco Ramirez* 215
Koloreen melodiapean galdurik, bizitzaren elbarritasunari so .... *Ane Badiola Ostolaiz* ........ 227
Oinetatik dario erraien mintzoa .. *Olatz Mitxelena Larreta* ...... 237
Amets gaiztoa orri batean ....... *Manex Mantxola Urrate* ...... 243
Armairu kanpoko oihuak ....... *Arrate Illaro Etxebarria* ...... 251
Non ote da itxaropena? ......... *Leire Osinaga Ona* .......... 257
Oraina iraganean ahazturik ...... *Garazi Ansa Arbelaitz* ....... 263

**Urruzunotarrak 1986-2005** ................................... 269

# HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hogei urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Laurehundik gora dira dagoeneko horrelako «titulua» lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatur izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu

zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea «saiatu berriro», eta topiko erdiarekin nahikoa da «saiatu» besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Tere Irastortza
Manu Lopez Gaseni
M.ª Jose Olaziregi
Miren Agur Meabe
Josu Lartategi

Gogoeta moduan aipatu nahi dugu epaimahi honen osaeran emakumezkoak gehiago direla gizonezkoak baino. Horrek, dudarik gabe, zer esan nabaria du. Parte hartzaileen artean ere neskak nabarmen dira mutilen aldean (354 neskak eta 158 mutilak). Euskal letretan eta oro har euskal gizartean emakumeak azken urte hauetan egiten ari diren ibilbidearen seinale garbiak, dudarik gabe.

Parte-hartzeari dagokionez, 2005. urte honetan 511 lan jaso dira: A mailan 109 prosan eta 87 poesian; B mailan, berriz, 233 hitz lauz eta 92 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin

ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

– Irailean 10 egun inguruko bidaia (Poloniara)
– Bidai poltsa norbere gastuetarako: 250 €.
– Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.
  Liburua eskola guztietara eta parte hartzaile
  guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Amorebieta-Etxanoko IES Urritxe-Zornotza BHI institutuari eta Urretxuko CPEIPS Urretxu-Zumarraga ikastola HLBHIPri. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2005era bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Fernando Morillori.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna

zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale oro, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# ILARGI BAT GELAKO SABAIAN

Fernando Morillo

Imajinatu: ilargi bat gelako sabaian. Itsatsita. Imajinatu goraka erortzen zarela. Goraka erortzen zara eta ilargiak ahoa zabaltzen du. Gehiago. Irentsi zaitu.

Imajinatu ez zarela jainko. Baina bazarela. Pirata-ontzi batean agertzen zara, borroka baten erdian. Kolpe bat eman. Kolpe bat hartu. Itsasora zuzenean.

Baina zer… Itsaslamiak?

– Zertarako balio du idazteak? –entzuten duzu. Zure baitatik datorrela dirudi.

Balio? Nola neurtzen da irrika, grina, ametsa? Zenbat metro da lilura?

– Jaramonik ez –esaten du norbaitek. Zure alboan dagoen itsaslamiak, akaso. Besotik heldu eta ur azpira eramaten zaitu izaki bitxi hark.

Et-et-et, ur azpira ez! Joño. Arnasa har dezakezu? Ur azpian?

Hala ere besoak mugitzen dituzu, urduri. Zer… zer duzu atzeko poltsikoan? Bic urdin bat. Garden horietakoa, punta normalekoa.

– Zergatik idazle? –ahotsak, berriro.

Eta zuk jaramonik ez. Gainera, ez dakizu eta arduratuta zaude.

– Zergatik, zergatik idazten duzu?

Arrazoirik ez.

– Dirua? Ospea?

Itsaslamiaren karkarak garbi uzten dizu. Berak ere ez du sinesten.

– Ez zara hain inozoa –xuxurlatzen dizu, aurreko itsas-hiria seinalatuz–: Ipuinen lorategia.

Koral-harkaitzez egindako hiria da. Koral-harkaitzez, nahimenez eta zirrarez. Zutabe erraldoi batzuk ikusten dituzu, distiratsuak, amaigabeak. Azpian, bi gizon. Hobeto begiratzen duzu: hiru dira.

– Ezkerreko hori, urrun dagoena… –hasten zara. Eta itsaslamiak irribarre egiten dizu.

– Hala da: Vinciko Leonardo.

Vinciko Leonardo itsasazpiko hiri batean! Harrigarria. Beste bi gizonak ere aski ezagunak dira: Rafael Sanzio eta Michelangelo Buonarroti. Historiako artista handienetarikoak. Rafael, oso gaztea, kezkatuta dago. Michelangelori zuzentzen zaio:

– Maisu, zer egin behar dut margolari izateko?

Hamaika burbuila hitzon inguruan. Edonola ere, primeran entzuten dituzu.

Michelangelok serio itzultzen dio begirada. Marmol zuria bezalakoa da Buonarroti, gogorra eta bikaina.

– Margolari izateko *beharra* duzu? –Michelangelok.

– Ezingo nuke besterik egin.

– Bada, margotu –jaurtitzen dio–. Ez kezkatu beste ezerekin. Margotu.

Rafael urrundu egiten da, pentsakor, eta Leonardorengana jotzen du. Galdera bera egiten dio:

– Maisu, zer egin behar dut margolari izateko?

Eta Leonardok:

– Seguru zaude?

– Seguru nago.

– Orduan, margotu, margotu, margotu.

Itsaslamiak bizkarrekoa ematen dizu, zure arreta erakartzeko. Paper busti bat dauka eskuan. Eman egiten dizu:

– Idatzi.

– Zer? –harritzen zara.

– Oraintxe ikusi duzuna. Ikusi ez duzuna. Ikus zenezakeena. Bizi egin nahi duzu, negar egin, jakin, nabigatu?

Horretan behintzat zalantza gutxi.

– Bai noski.

Eta poltsikoan zeneukan Bic urdina eskuan duzu batbatean eta paper bustiak dar-dar egiten du. Ez dakizu nola, ez dakizu zergatik. Idatzi egiten duzu. Ezin duzu besterik egin. Seguru zaude. Leonardoren istorioak, itsaslamiarenak, zeureak. Idatzi egiten duzu eta bizitza sumatu istorioetan taupadaka. Eta istorioak odola dira: zeurea. Eta zainak, hitzez blai.

Esnatzean ohartzen zara guztia ametsa zela. Gelako sabaian ilargia dagoelako oraindik. Itsatsita.

Imajinatu duzulako jainko ez zarela. Baina bazarela.

Gau mahaiko Bic urdina hartzen duzu. Zainetan daramatzazun istorioak margotzeko.

Eta goraka erortzen zara.

Fernando Morillo
(2005eko ekainean)

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Batrachus

Izarne Oiarzabal Santiso
Ondarroa-Lekeitio institutua
Ondarroa

Ez zuen kalea lasai batean jaitsi, ez daki jaitsi ere nola egin zen, jaitsi zenik ere; buruan igel bat zuen, ez jaitsiera.

Igela, buruan zuen berbera, igerian murgilduz zihoan. Padurako igela ur beltzean gero eta sakonago eta klisk! Jada ez dago errealaren gainazalean, galdu du argiarekiko kontzientzia, korronte ikusezinetan aurkitzen da orain, itzulerari buruzko berririk gabe. Jira-biraka errekaren zamatik eroritako zuhaitz enbor, haizeak oparitutako telebista antena, haurren bati ihes egindako sonajero, belar latz eta herdoildutako bizikletaren gorpu hilak konposatutako unibertsoan.

Igela han geratu zen aspertu arte, kalera jaitsi arte, igelak oxigeno falta izan zuenera arte.

Jaitsi zenari ezagutzen ez zuen batenbatek ordua galdetu zion.

Igelak desagertzeko arriskuan daude, hau desagertuta zegoen jada.

Ezetz, berak ez zuela erlojurik. Baina batenbat horrentzat, batenbat deitura ez zitzaion gustatzen eta trukean

izena galdetu zion. Ezetz, berak ez zuela izenik. Ezta ordurik ere gaineratu zion. Halako gauza indefiniturik ba al zegoen? Agonia hutsa izan behar da indefinizio bat izatea, pentsatu zuen bere barruko izenik eta ordurik gabeko zer hark. Non? Noiz? Mutu geratu. Berak ordurik ez, baina izena bazuelakoan zegoen.

Bideari jarraitu zion; bideari jarraitu behar izan zion, bideak hartzen zuen norabidea imitatu behar izan zuen. Hark ezker, berak ezker. Hark eskuin, berak eskuin. Bideak diktadore hutsak dira. Biziki haserretzen zen, beraz, beti haserre zihoan, bidetik.

Bazekien badaudela bide zapalak, sarkorrak, bide garratzak, bide bikiak, harrizkoak, bide zidorrak, bide tartamotelak, beroak, lotsatiak, melodikoak, galipotezkoak... baina beti bide, baina beti diktadore.

Oraingoan ezagutzen zuen batenbatekin gurutzatu zen. Hau ere batenbat, baina honi ondo geratzen zitzaion batenbat deitura. Batenbat-ez gainezka dago guztia, ezagun eta anonimo izate horren erdian, erdi definitu, erdi indefinitu, agoniaren zorian, izaki difuminatuak.

Honek agurtu eta agurra erantzun zion.

Gaurko laugarren arraina. Gaur lau arrain gurutzatu ditut. Neu ere bidegurutzeetan arraina izan ohi naiz, antxoa bat akaso. Bidegurutzeetan egoten dira arrain bankuak, txitxarroak igual. Ezin esan lehorreko arrainik ez dagoenik, bidegurutzeetan behintzat. Eta ahoa irekitzean ez esan ezer, arraina baitzara, berdela agian, bidegurutzean.

Gurutzean, gurutzean horrek gurutzeak ekarri zizkion gogora, hilerriko gurutzeak eta nolako gardena den jendea bertan; bai biziak, bai hilak. Hilerriak dira jende definitua-

ren topaleku, pilaketa. Denek daukate izen eta data. Haiek ez dute agoniarik.

Autobus geltokira iristean plastikozko aterpearen peko jesarlekuan jarri zen, aurrera begira, serio, kontzentraturik antzoki bateko ikuslea lez, parez pare zeukan zuhaitzari so, nork lehenago tiro egin zain, eskuak errebolberra txakurren parera usaintzen zuen bitartean.

Musika afoniko dagoenean orbel marroi kirrizkatsuek dantzan egiten dute, dantza tentela. Baina tenteltasunean ere badago armoniarik, badago irudirik, mugimenduaren dinamikarik. Indefinitua, desegonkorra. Berdin han, antzera hemen. Esanahi eta izan nahi baten bila, musika afoniko dagoenean. Orduan koloreak gorritu eta baretu egiten dira, hosto izandako orbelak berriz hosto eta jarraian hauts, apur; musika afoniko dagoenean soilik, badagoenean eta bakarrik soilik. Baina the far west is too far.

Geltokira iritsi behar zena, espero zuen moduan, ez zen heldu. Esperoan geratu zen iritsi ez zena, heldu beharrean.

Zuhaitzari ahotsa zaintzeko gomendatu zion, hura ere afoniko gera ez zedin eta jarraitu zuen, diktadoreari men eginez.

– Heldu al da gaur?

– Ez, ez 12:47etako autobusean behintzat.

– 12:47etakorik ez dago eta.

– Ez, gaur ez, bihar akaso. Heltzen denean abisatuko dizut. 12:47etakoan izango da, ordu horretan iritsitako egunean.

– Baina egunak bi 12:47 dauzka. Nola jakin ez dela gauekoan etorriko?

– Gaueko ordu horietan autobus sonanbuluak ibiltzen direlako soilik.

Bidera bueltatu zen, ez zion gizarte horren arrazoiari zentzurik aurkitzen, ezin zuen. Yogurth desnatatu horiek kadukatuak dira. Hori da kakala**a**rdoen plagaren elikagaia. Non zeuden esnekiei alergia zietenak? Agian 12:47etako autobusean.

Ez daki gero zer gertatu zen, zer gertatu zitzaion, zer gertatu zitzaien. Eta zer? Arrazoizko baino gehiago gara ohiturazko. Arrazonamendu kostunbrista ez da ohitura arrazionala, irrazionalaren kostunbre baizik.

Ekosistema dentsoegia bideak zeukan kolore urbanoarentzat eta batez ere 7°C-ko ironia finarentzat.

Igelak beste putzu batera emigratu zuen. Han guztia zen beltz, ez dentso, beltz. Eta iluna beltzean galdu zela jakitean ikaratuta kanpora atera zen. Bai, iluna beltzean galdu zelako nahasten ditugu iluna eta beltza, ezin dugulako iluna beltzean aurkitu. Eta bai, leku bat iluna dela esatean erdi beltz imajinatzen da eta gela bat beltzez margotzean iluna iruditzen. Horregatik alde egin zuen igelak, ez zuelako nahi igel bat aurkitu dut esatean, zerbait beltz eta iluntzat ikustea, edo nolakoa den leku bat galdetzean, oso ilun eta igela zela erantzutea. Nahiago zuen berde bezala geratu.

Bitartean, ea non galdu zen galdetu zion golkoari. Bideko zenbatgarren atarian, zenbatgarren bidegurutzean. Ea zer egiten zuen. Ea zer dela eta. Eta esku ikusezin bik nola golkoa urkatzen zioten sentitu zuen. Ba al zeukan izenik? Eta inork ezagutzen ez zaituen lekuan zertarako balio dizu izenak? Pauso baten katiuskadun hori zara, hu-

rrengoan Pete Zurtzul eta hurrenean kantoitik desbideratu eta jada ez dago inor zure nondik norakoagatik kezkatuta. Agonia.

Bere esku biak eztarrira hurbildu zituen golkoa askatzeko asmoz. Orduan albotik igaro zen batenbatek sekulako belarrondokoa eman zion eta guzti hura eten zen. Azken batean ez da hain, hain, hain korapilatsua ere. Gizonak, semaforoa berde dagoenean zebrabidetik gurutzatzen du kalea, arropak euririk egiten ez duenean eskegitzen ditu eta aurre-jubilazioa 55 urterekin helduko zaio.

Igela lagun zuen honi ea zer izango zen ere galdetu izan zioten. Ofizioz eskalea, mimikan masterra egina. Eskalea, hitz berriak jasotzeko, gero ideia propioen jabe izateko, eta mimika, guzti hura sinesgarria iruditzeko. Zuk irakurriko baitituzu, irentsiko, zeureganatuko baina gero zeurea den ahotsak ere hitzon usain bera izango du, hitzak itsaskorrak eta kutsakorrak baitira. Eta horrela, zonbi epidemia berri bat eratzeko asmoa zuen.

Asmoak baina, asmo diren heinean berez erortzen dira eta ez gara konturatzen ezta gogoratzen eta ez dugu ezagutzen eroritako asmoak ekarriko zigun asmoa. Jaso eta bota; besterik ez dugu egiten. Atzera begiratu izan bagenu... han lurrean likatsu, karakolak utzitako bidearen pare aurkituko genituzke.

Beraz berak, zonbi bilakatzeko beldurrez, hitz arrotzak beregan itsasteko beldurrez, fobia hartu zien asmoei.

Oinez, autobus geltokira iritsi zen berriz. Egun berean edo hurrengoan edo aurrekoan.

Hartan autobus bat iritsi zen. Sabeleko dardarak ez zeukan ordulariari begiratzeko eskatu zion arranguraka.

Buruko igelak 12 kroak, ia 13 egin zituen. 12:47ak behar ziren izan.

Ez zen gogoratu iristeke geratutakoaz, bera autobusera igo zen.

Gidariak ez zion ezer kobratu bidaiaren truke, bakarrik galdera ikurrezko aurpegia jarri zuen.

Oso jende gutxi zegoen barruan.

“6” zenbakidun jesarlekuan eseri zen eta aurreko jesarlekuaren bizkarrean murtxikatutako txikle arrosa bat aurkitu zuen itsatsita. Usaindu egin zuen. Oraindik marrubi zaporezkoen usaiak zerion tabakoarenarekin batera. Erretzaile klandestinoren batena, etxera bueltan doan 13 urtekoarena edo medikuarengana doan haurdunarena edo erretzea gustuko ez duen mutil-lagun proiektuarekin interesatuta dagoenarena. Txiklea hartu eta “Tom & Jerry”-ren marrazkia zeukan karamelu txikien kutxatxo metalikoan gorde nuen.

“7” zenbakidun jesarlekuan eseri zen eta lehenagotik bertan zegoen jostorratzak ipurdiaren ezker masaila ziztatu zion. Barkatu, ez nekien okupatuta zegoenik. Jostun bat jesartzen omen zen bertan edo erizainen bat edo vudua praktikatzen zuen bat. Jostorratza jaso eta marrubi zaporeko txiklearekin batera gorde zuen kutxatxo metalikoan.

“8” zenbakidun jesarlekuan eseri nintzen.

Kristalezko pantailaren bestaldekoa martxan jarri zen, eskuinetik ezkerrera, zinta garraiatzaile baten gainean egongo balitz bezala. Igaro zen jendea, ipotxak, aterkiekin, motxilekin, haurrekin; igaro ziren autoak, furgonetak, ka-

mioiak; igaro zen itsasoa, aparrez, erlaitzez, grisez, luzeegi; igaro ziren farolak eta hormak, leiho eta atariak, argiz, propagandaz, katuekin, zakarrontziekin, hautsez; igaro ziren lurrean marra intermitenteak.

Eta autobusak 50 metro egin gabe zituen, biribilgune bati buelta eman eta azken geltokian geratu zenean; “8” zenbakidun jesarlekuan zihoan bidaiaria sartu zen geralekuaren aurrez-aurrekoan. Orain berak jarri zuen harridura ikurrezko aurpegia eta kalera bueltatu behar izan zen. Alferrikakoa da heltzeke dagoenaren bila joatea.

Momentuz, etxeranzko bidea hartzea erabaki zuen, nuen. Asmotan.

Aitortzen dut neu naizela agerikoa eta neu naizela ilunpekoa, anbiguoa.

Ageri dena dago, tintaz zikindu duelako orria. Mantxa beltzak daudelako ageri dena salatzen, irudiak osatuz, luzatuz. Ageri dena dago, zirriborroen errepikapen hau interpretatzen irakatsi zigutelako. Hori soilik. Errepikapen hau nola ulertu behar dugun esan. Besteren batek, bestelako teoria bati eutsiz, bestelako zirriborro errepikatuak interpretatzen ditu. Hauek ez. Besteren batentzat ageri dena, ez dago eta orduan gaizki zikindutako orria izango da. Baina ilunpekoa. Egon badago, tartea deitzen diozu. Hizkien artekoa, hitzen artekoa errenkaden artekoa, puntu eta beste aldera. Hor dago, duzu. Agerian ez dagoena, dago, tintak ez duelako zikindu, ez daukalako mantxa beltzik, baduelako interpretaziorik. Orain alfabetatu izatearen txikitasuna agerian dagoela tartekatu behar.

Berriz, aitortzen dut, neu zela, bera naizela, igel bat daukadala etxeko bainuontzian.

Ez naiz pertsonaia, ez naiz lehen ez hirugarren pertsona. Ez naiz narratzailea, ez naiz objektu bizidun bat, objektu bat, bizidun bat. Ez naiz sufritzailea eta ez naiz sufrikarioa.

Izatearen antonimoa naiz, ez izatea, desizatea, antizatea, kontraizatea, baina ez inexistentziala. Iristeke.

– Eta niri zer.

# Infernuaren mugetatik

Asier Artola San Miguel
Usabalgo Laskorain ikastola
Tolosa

*“Niregandik doa negarraren hirira,*
*niregandik amaigabeko saminera,*
*niregandik arraza zigortura[…]*
*Oh, zuek, sartzen zaretenok, gal ezazue esperantza!”*

*Jainkozko Komedia,* DANTE ALIGHIERI

…

Infernuaren mugetatik so, pixkanaka biziak ihes egiten diola du nabari. Baina ez dio gehiegi axola, ez dio beldurrez itxaroten, gogoz baizik, existentzia miserable horretara kondenaturik duten kate horiek behin eta betiko hausteko. Luzio Etxegarayk ongi daki zer den miseria, gosaltzeko ingurukoen hondakinetan usnaka ibiltzea, ongi daki bai zer den kalean barrena doala jendeak beste aldera begiratzea, edota gazteen trufak eta harrikadak ahal duen irribarre handienarekin jasotzea bere magalean; ongi daki bai zer den bakardadea.

Zenbat urte inor agurtu gabe, zenbat adiskideen besarkadarik jaso gabe, kale baten kantoian kartoi zati bat azpian duela, biziaren sufrikarioa ahal duen eramangarriena egiten. Galdu zuenetik ez da ezer berdin, itzultzea eskatzea ordea gehiegi litzateke. Non ote da? Noiz izan zuen bere

berri azkenez? Askotan galdetu ohi dio, ez bere buruari baizik eta, norbaiti, ez den bati, sufrimenduaren gailurrean gure ondoan nahi genukeen horri, ea zergatik ez duen izan, beste batzuen modura, memoria galtzeko zortea. “Memoriak eta sentimenduek egiten gaituztek ahul” esan ohi zion Camilori “eta gure betebeharra duk horiek lurperatzea”. Bizipoz gutxiko lurperatzaile hark ez zuen beretarrak lurperatzea nahi ordea, oroitzapen gozoek ekartzen zizkioten pozak gogoan. Eta noski, hura ere han zegoen oraindik, azkeneko kaxoian, galtzerdi eta azpiko arropen leuntasunak objektu delikatu hura haustea ekiditeko, eta dotore gordea, alajaina!

Batzuetan jendartean ikusi izana iruditzen zaio eta atzetik abiatzen da arrapaladan; Apolo zaharkituak ordea ezin du neskatxa erramu bilakatu, maitasunaren hegoek bere hegada azkartzen badute ere. Poeta florentziarraren esanari muzin eginez ez du ez galduko esperantza gure Luziok, aurrerago ikusiko den bezala.

…

Egoera: Luzioren soinadar ahulek Camiloren belaunei gogor eusten dien bitartean, azken hau buruz behera jangairen bat bilatzen ari da kontainerraren hondoan.

– Badut zerbait.

– Zer?

– Pauloreneko sagar ustel batzuk.

– Eta?

– Bi arrain buru, arrantzalearenak akaso.

– Eta?

– Gehiagorik gutxi, bost egunetan euria xukatzen egondako ogi barra bat.

– Niretzat ez zegok txarrik, ekar itzak.

Mendiaren magalean eserita udala egiten ari zen hilerriari begira zeuden zaharra eta gaztea. Zaharrak gazte garaian bertan artalde izugarriak ibiltzen zirela oroitzen zuen, orain bost-sei bat ikusten ziren, eta urrun; haiek ere ez zituzten gogoko hildakoak.

– Horixe izango duk nik izango dudan etxerik garestiena –zioen nitxoei begira, ahoan arrain begi bat ogi zahar apur batekin bultzatzen zuela– eta egia esan, txalet horietara mugitzeko ez zaidak gogorik falta. Gaztea haiz, ulertuko duk gutxira.

Camiloren begi urdinek harriduraz begiratzen zioten zaharrari. Hitz haien atzean harropuzkeria eta ausardia erakutsi nahia susmatzen zizkion Luziori, baina ez zion erantzuten. Agurearen gezur kapa haiek tamalgarri estaltzen zuten egiazko margolana.

– Ulertuko duk bai, gazte, ulertuko duk!

…

Camiloren biografia laburrak ez du Luziorenaren mingostasuna atzean uzten. Gurasoek, gazteak, kasurako gazteegiak izaki, zaborrontzi batean utzi zuten, krimen perfektua burutuz. Camilok ez du ezer jakin haietaz; hilabetera utzi zuten erlazioa, Camiloren aita jatetxe bateko sukaldaria da, *souffle*ak dira bere trebeziaren erakusle; bere ama arropa marka multinazional bateko kargu altu batekin ezkonduta dago. Biek ordea ez dute Camilo ahaztu, elkarri deitzen diote urtean bizpahirutan, “Hilda

egongo ote da?" eta "Seguru baietz" dira gehien erabilitako esaldiak. Urtean behin Bronx deitzen dioten Justino Aramendi kalea gurutzatzen dute, haurren bati euren antza aurkitu nahian. Ez dakite ordea zer den hobea, aurkitzea edo ez. "Zure gurasoak gara" esatearen ahalke sentsazioak atzeraka ematen die, ingurukoen aldean miserable sentituz. Bakoitzak bere etxean, itzuleran, ahuspez agortzen ditu malkoak, urdaila urduri, gaueko loa kentzen die eguneko gomutak. Abortoa burutzeagatik etxetik bidali zuten gazte batek eman zion bularra ttikiari, amatzakoa egun gutxira hil zen hipotermia batek zurrunduta. Drogamenpekotasuna zuen baten eskuetara igaro zen, urte pare batean zaindu ondoren hiesak eraman zuen zulora. Langabe batek, banketxe batek bahitutako pisu batetik bidalitako bikote hegoamerikar batek eta heroina trafikatzen zuen polizia ohi batek hartu zuten bere kargu, Luzioren eskuetara iritsi aurretik, polizia "ajuste de cuentas" horietako batean akabatu zutenean. "Horrelakoak gaituk gu, denok denongatik" esan ohi zion Luziok.

…

Gorroto gaitu Luziok, mesfidati egoten da guri begira, infernuaren mugetatik. "Eurek ditek errua, eta komediagile batek deskriba ezinezko tonto aurpegi paregabe batekin ibiltzen dituk batetik bestera, zinean sartzeko dirurik ez edukitzea arazo larri bat balitz bezala." Doi-doi entzuten zizkion Camilok, berak ere Bronx izkinatik gizarte "zibilizatuari" begira. "Bazirudik egiten diagun guztia gaizki dagoela. Gosea dugunean zer egiten diagu? Dendara joan eta jan. Zigorra. Egarria dugunean? Dendara joan eta edan. Zigorra. Diru falta dugunean? Hartu. Zigorra. Gaizki egina zegok mundu hau, asebetetzeko bide guztiak zeuzkeagu itxiak." Askotan errepikatzen zuen diskurtso hura entzuna zuen Camilok, haatik, zerbait berriaren esperoan belarria

tente izaten zuen. “Eulitxoak gaituk legediaren armiarma sarean,” zioen “zapelatz horiek ordea nahi dutenean hausten diate Aracneren lana, bultzada txepel batekin. Zergatik ezin jan denok Ama Lurraren fruituetatik? Zergatik, Camilo? Zeinek eman ziek denenak diren horiek kontrolatzeko eskubide jainkozko hori?”

…

Haizearen ferekak, suaren beroak, uraren ahotsak, lurraren emanak, eguzkiaren biziak eta ilargiaren gozoak, tximistaren gogorrak eta harrien errainuak, txorien bustiak eta euriaren kantuak, egunaren ilunak eta gauaren argiak, olatuaren ahulak eta hostoaren indarrak, denak, orokorki denak, denak zekarren bere belarrira doinu bera, denak zioen Beatriz, ene bihotzekoa.

…

Etxegaray jaun txit agurgarriaren amaierarako gutxi zela, Camilo alboan, Bronxen (Justino Aramendi karrika) sarreran aurkitzen zen aipatu jauna.

Barre egin zuen, barre. Gaztetako poeta florentziarraren irakurketak oroitu eta oroimenera itzuli zitzaion gibelino hark (edo guelfoa zen?) idatzia.

– Camilo, nonbait Infernurik bazegok, ez zegok hil beharrik hara joateko. Hire begien aurrean duk. Hauxe duk haren ataria, Jainkoaren laguntzarik gabe guk geuk sortua, aingeru eroriaren erreinua, bekatarion bizitokia. Hauxe duk giza miseriaren laburpen osoa, egoera naturalean. Hemen usaintzen duk tristura eta negarra, hemen samina eta higuina; hemen sufrimendua eta kalbarioa, malura eta desesperantza, hemen beldurra. Guri egokitu behar Deabruaren jazarpena, bere oinetakopeko intsektu.

Eta hor doaz, ausardiaz beterik, Infernuaren erraietara, egokitutako bizilekura, gure Dante eta Virgilio partikularrak. Lehen zirkuluan ikusten dute haur abandonatua, bigarrenean nerabe haurduna eta gularenean egunetan mokadurik probatu gabekoa, laugarrenean zorrek jandako bankaria, zazpigarrenean indarkeria jasandako nigeriarra eta 52 urteko andrea, zortzigarrenean lanuzte batean indar armatuen pilotakada bat jasandako langabetua; eta iritsi dira azkenera, kalearen amaiera.

– Ikusten duk hau, Camilo? Non gaudek?

Haurtxo gaixoak, "ongi" bizi zirenei begira, eta Luziok kontatutako Jainkozko Komedia hura gogoan "Purgatorioan" ihardetsi zuen.

– Erratu haiz erantzunean, gazte. Hau ez duk Purgatorioa, ez duk Zerurako bidea; ez noski. Hau duk Infernuko azken zirkulua, Camilo, hau duk Deabrua, gure gaitz guztien erantzule. Egokitu zaigun gizarte hau, gaitz osoaren iturburu.

Ulertzen duk esan niana? Heriotzak ezin dik honek baino okerragoa izan. Eta memoria galduko diat, nire ahuldadearen iturri; eta biziko nauk, zeren eta izango bainauk ondoren lore, edo zezen baten adar zati, edota errepide malkartsuko harri koxkor. Irabazia diat betiko bizia, hemen izango nauk hau izango den bitartean. Sufrimendurik gabe, gizaldietan hilezkor.

…

Une hartan bertan, kritika haren azken hitzak haizeak zeramatzala ikusi zuen, hantxe, urteen poderioz etorriko ez zela iruditzen zitzaion hura, bihotzeko Beatriz.

Aurreko guztietan bezala arin mugitu zituen hankak, Camilo atzean utzirik. Haurra bakarrik uzteak ez zion gehiegi ardura, bazekien bere irudimenaren fruitu soila zela, sufrimenduaren gailurrean gure ondoan nahi genukeen hori; egoera ugaritan zulotik ateratzeko lagungarri izan zuena, eta ez existitu izanagatik bere bizian izandako garrantzia galtzen ez zuena.

Eta jauzi egin zuen bere lepora, bi besoak zabaldurik, maitearen magalera. Gogor estutu zuen bere bularraren kontra neska gazte haren aurpegia, begiak malkoz beterik, aurpegia irribarretsu; esperantza ez galtzeak ekarri emaitzak gogoan. Honelaxe besarkatu zuen Luziok azkena besarkatu beharrekoa, honelaxe eman zion muin heriotzari, eta hark eraman zuen berarekin altzoan. Etorri zitzaion bila aspaldian itxaron zuen dama, eta elkarren arteko maitasuna ez da oraindik hautsi.

# Tximeleta zuriak kutxa gardenetan asfixiatzen dira

Alots Arregi Izagirre
Ignacio Zuloaga institutua
Eibar

Pixa egin diot. Kontzientzia erasotzen hasi zaidanean ere bai; pixa egin diot, eta geu ere adiktibodun droga legal nahiz ilegalak garela ohartu naiz. Baina beranduegi izaten den okasio horietako batean nago. Nire destinoa idatzi izan banu bezala. Destinorik baldin bada, geuk ere horrelaxe amaituko dugu, azidoz blaiturik urinario publikoetan. Irentsi nahi ez gaituzten metalezko hesteei erreguka, urkorronte bizietan arnasa hartu nahirik edo gure arrain izaera inbentzio bat baino gehiago dela sinistu nahirik. Baina gu, zigarroak besterik ez gara. Eta hezetasunak janda desagertuko gara, inoren birikak gure izatez zikintzea lortzen ez badugu.

*"Your love is like a fire*
*My love is like a cigarette."*

Zigarroak, kanutoak, puruak, puru miniak, habanoak, txinoak, botila hutsetan igorri nahi genituen paperezko eskuzapietan idatziriko mezu sekretuak izan gaitezke. Izan gaitezke, nikotina badarabilkigu zainetan, garun psikotropikoak baditugu, bihotzak botila hutsetan erakusgai eta guztiok hautsontzietan amaituko badugu. Erreko gaituzte, edo ez. Erreko al dute kantoietan hitzak liatzen ibiltzen di-

ren nerabeek nire garun psikotropikoa, edango al du soineko gorriko damaren batek ene odola, botila hutsa hustuz.

Gure bizitzak erreak izango garen edo ez garen bezalako dilema konplexuen inguruan jarriko dugu orbitatzen. Orduan, jada, ez ginateke zigarro izango. Egunen batean edo gauren batean lurrera jausiko zen satelitea baino ez ginateke izango. Eta gau horretan egongo ziren ohe bihurturiko zelai *skin*-en izkinak, barrurantz zabalduriko leihoak, non lepoak luze diren, non begiak desirez beteko diren, non gainezka egingo duten. Izar deitzen ditugun harribitxi horietako errefuxiatu bat naizelakoan, beteko ez diren desirak eskatuko baitizkiote, satelite izanik, zigarro izaten jarraituko lukeen honi.

Beti egon izan naiz sentitzea galarazten didan paperean liaturik eta sentitzen dudan oro berarekin erretzera kondenaturik. Kondenatua eta kondenatzailea sinonimo badira ere.

Galtzen kremailera kondenatu bat bezala itxi eta botoi bakarra kondenatu bat bezala lotuta bira eman du bere destinoa, destino hezeegia, kondenatu bat bezala, atzendu nahirik. Baina atzendu nahi izateak, tristura deritzon sentimendu hori eragiten dit. Erretzea zilegi ez den sentimendua, sentimendu hezeegia. Bada ahaztu egin beharko dut, atzendu nahi izan gabe. Komuneko atea zabaldu eta irten egin nahiz. Baldosei begira, ezer berezirik aurkitzeko intentzio gabe.

Triste bizi naiz oraindik eta berriro; aitortzen dut, aitortzeak berak tristeago jartzen banau ere. Baina badira momentuak, instanteak, segundo laburrak, sentitu ezean imajina ezin daitezkeenak. Burua altxatu dut; ez asko. Begiak ohartu gabe zabaldu zaizkit ahal baino gehiago eta antze-

man dut nola ene niniak dilatatzen zaizkidan; ahal baino gehiago. Banku zuri bat laranja bihurtu da orain gutxi. Baldosak tindatzen zituzten eguzki izpi ia amatatuek jan dute. Lauki laranja handiak eratzen dituzte, astiro mugitzen diren hutsuneekin. Badirudi nire arnasaren erritoa ere kontrolatzen duela izpien geldotasunak. Existitzen baitira momentuak, instanteak, segundo laburrak, sentitu ezean imajina ezin daitezkeenak. Bizigabeak izanik ere ikaragarria da zenbateraino dakiten euren izateaz airea, gu ohartu gabe, kutsatzen. Bete egiten bainau. Inguratzen nauen guztiaz bete, inoiz asetu gabe.

Jatea amaitu duen, dudan arte egon natzaio begira. Bost minutu.

Bost minutuak pasata ere nire tristura ez zen lehengo tristura berdina; nire izateaz oroitu ez nintzelako edo astirik izan ez nuelako horretarako. Trena iritsi zen.

Trenetan atzerantz bidaiatzen dut. Zuhaitzek ere halaxe egiten dute karamelu hostoekin. Han desagertzen dira, desagertzen natzaie, hemen, bentanal erraldoietatik so, beste inondik ezean.

Eguzkiak ekilibrista bat zirudien ortzi mugan. Bere paretik igarotzen ari zen hegazkin hura egon ez bazen ere bai. Hain zen hauskorra . Bazirudien edozein momentutan jausi behar zuela zorura. Krash!; bonbilla bat lez. Eta akabo. Iritsiko zen gaua. Beste gau bat agian. Piztuko zituzten argiak, gitarrek, hango gizonaren multitude arteko bakardadean. Garagardo aparrak kontserbatzen zituen edalontzian egiten zuten distirak kopeta zimurtu eta begiak kizkurtzera bultzatzen zuen gizon haren bakardadean. Begiak zabaltzea zuen soilik desira gizonak, zerbitzariari begietara begiratu eta, oraingoan, whyskey bat eskatzeko.

Baina beste ekilibrista bat suizidatu zen gau hartan, begiak ezin zabalduta whyskey gabe geratu zenaren gibel aldean.

Ilargia aurkitu zuen kanpoan, bere goibeltasunaren oihuen entzule. Bakardadea hutsa dela eta hutsa, bakarrik dagoela ohartarazten zuen anemiadun zakurrak lepoa luze, gibelik bazuela ohartaraztea lortu zuen argi hila. Ausentzia, sumatu gabe sentitzen den gaixotasuna edo gabezia absolutu hori, epidemiatzat hartu behar genukeela. Ez dagoena, ez daukaguna, ez dugula kontutan hartzen. Falta zaiguna baino, falta zaigula izaten dugula kontuan eta horrela hasten diren izurriteekin geratzen garela ezer gabe. Kontuan hartu gabe. Konfesio horien atzetik ekarri zioten euria, ilargia bahitu zioten lainoek eta jakak, lepoa jan zion. Konfesalekuko ateak itxita, ez zuen etxera joateko erabakia hartzeko baino apetarik.

Han desagertu zen, bidean gurutzatzen zitzaion edozer ostikoz jotzeko afizioaz; besteak beste kartera bat; beretzat hartu zuena, noski. Han desagertu zen, guztia desagertzen zen lekuan.

Farolek, laranja iluminatuak dirudite, "*don't drink and drive, smoke and fly*" dioen pintada ikustarazten didate, E.T.A. bietan jarrai aldarrikatzen duenaren eskuinaldean. Eta nik ere bietan jarraitzen dut. Bizi alkoholizatuak beheko lainoen artean ere ikus baitaitezke. Garbi ez, baina ke gabe ere zikina izaten jarraituko luke.

Ateak itxi dira, berriz, eta jaka berdedun andre gazteak, inor sartu ez dela ikusita burua makurtu du ia antzeman ezina den hatzen jokoa jarraitzeko. Adio berriz.

Egun berean, eguzkiak bere diktadore garaiak nostalgiaz oroitzen zituen, erloju dendako eskaparatean eserita

bost minutu zeramatzan emakumea, jertsea kentzera derrigortu ezin zuenean. Emakumeak noizik eta behin gora begiratzen zion, eguzkia ote zen ziurtatu nahirik. Lortzen ez zuena. Baina eguzkia izan beharko zuen, ilargi inoportunoak ere sortaldetik irteten baitira. Eta orduan, sortaldea, sartalde ote zeneko pentsamenduan murgildu zen zigarro bat iziotuz. Horrela hasi zen lizentzia gabeko aparkaleku hartan zebrabide bila; lepoa luze, zangoak luzeago. Ez zen zebrabide hura aurkitu arte beste aldera igaro. Gidari trebeen eskasia hartan, laster, ertzainek mozkorrei frogak egiteko pista bezala erabiliko zuten bide hartatik, inor igarotzen ez zela jakinda ere ez. Bost marra zurik ziurtasuna ematen zioten. Bularrak igotzen zizkioten. Zebrabideen erabilpena bultzatzeko iragarki gisa erabili zitekeen hura, ordea, tabakoaren aurkako kanpaina bihurtu zen maniobra ergel batez zigarroa izterrean lesionatu zuenean, zebrabideak urkamendi bailiran. Zigarroa bota zuen esku berberaz atera zuen beste bat, nekez, paketea gaizki sartzeagatik beteagoa zirudien boltsotik. Eta kanpaina hura kritika sozial izatera iritsi zen, ahultasunak ezpainetatik zakurrei txistu egiten zienean, bularrak tente, lepoa luze, zangoak luzeago.

Geroago ahultasunak ulu egingo zuen.

Han desagertu zen, boltsoak bere besapea lehen adina betetzen zuela paketea gaizki kolokatuta ere, falta baitzitzaizkion gauzak, besteak beste zigarro erail bat eta zigarro salatari bat, bizpahiru minutuz behintzat salatuko zuena, ez bazuen beste maniobra ergelik egiten desagertu zen lekuan, guztia desagertzen den lekuan.

Garraio baino, bi denboren arteko parentesi den honek, sarri betetzen ditu ametsez beregan mekanografiaturiko

galdera ikurrak, loaren kamasutrako postura inbertebratuetan laztanduz; gure ezpain pitzatuak. Hauen pitzadura berriak miazten niharduen kristaleko pegatina hark erretzailea nintzela gogoratzeaz gain debekatu zidanean.

Beste egun batean, beste goiz batean, lehengo gizonak eskuin oinaz hasi zuen eguna, baina lurra hotza zegoela eta berogailua piztuta denbora batez ohean geratu zen, postura subjetibo batean. Subjetibotasun berberaz hartu zituen ohe ondoan kendu zituen galtzak, haietan ez zegoen tabako paketea hartzeko. Haren lekuan, kartera bat eskuratu zuen. Narrua harriaren kontra; eta narruaren barruan, beste harri bat. Irribarre egiten ahalegindu zen. Ondoak ez zion utzi. Bada barre egin zion, metxeroa hartuz eta txiflo bat kurratuz. Ekaitzik ez zekarren lehen lainoaz hasi zen, karteraren organoak, ajedun zirujau bat lez aztertzen. Alderik alde ireki zuen, erdi erditik; gibela atera zion eta alde batera laga. Alderik urrunenean. Ez baitzuen nahi bere inguruan ideien nahasmenak eragingo zizkion hogeita hiru istorio asmatzerik.

Soberakinen akumulazio etengabearen gehitzeak zirkulazio ekonomikoa saturatu eta beste organismoetan handitu gorriak atera ditzakeela-eta txartel zorroan kateatuta gera zitezkeen hondakinak kanporatzeari ekin zion. Bere ondoan laga zituen, bere azpira desagertuko ziren bizpahiru txanpon, hamar euroko bi billete eta monopoliko billete arrosa. Identitate gabeko gorpu irekian geratu ziren organoek ez zeukaten mami askorik. Letra urdinez tatuaturiko urdail tolestua, zabaltzeko astia eman gabe atera zuen eta azkartasun berberaz airean, urrutira bota; baina gertu erori zen. *Fast food*.

Hamabost bat tabako paketeren zergen pegatina atera zituen atzetik eta gutxi erretzen zuela pentsatu ordez, ko-

lekzionista kaxkarra, eskasa zela pentsatu zuen. Gero kaxkartasun hori alperkeriagatik izango zela adierazi zion bere buruari, memoriaren estimulu ia gabeei atxiki ordez. Alperkeria horrexegatik beragatik ez zuela kartera jaso ere baieztatu zuen eta sudur puntatik pasa zitzaion, kea aireratzen zuen bitartean, berari ere nagiak erasota ahaztu zitzaiokeela kartera itzultzea. Mania hartzen hasi zen urdail tolestuko gizaki hari, ezagutu ere egin gabe. Ez zitzaion gustatu kartera galtzeko modu hura. Kartera aurkitzeko arrazoi hura. Ez entregatzeko eskasagoa zen hura, gutxiago.

Nolabait, gizaki hura emakumetzat jotzen baitzuen. Baina ez emakume soiltzat. Seinale bat den emakumetzat baino. Emakume den seinaletzat. Seinalatzen dion emakumetzat. Baina ez daki, zerua, eskaparateetan fotokopiatzen denean soilik ikusten dutenetakoa den edo galtzerdiak jantzita lo egitea gustatzen zaionetakoa. Ez zitzaion atsegin ezjakintasun mota berri hark eragiten zion sentsazioa. Bazekien inoiz ez zuela jakingo jakin nahi zuen hura, nahi zuena ere ez baitzekien zer zen. Higuina hartzen hasi zen, eta ez zekien hori ote zen ezezagun hartaz sentitu nahi zuena. Segundo batez izutu egin zen. Pausatu egin zen. Pausaldia laburtu nahiez-edo, kanutoaz bat egin zuen. Eta gero bi berriro.

Txartel zorroa eskutan hartu zuen berriro eta anestesiatu gabeko pazientea operatzen jarraitu. Garunaren bila hasi zen. Han eta hemen. Ohean zehar begiratu zuen gero, erori egingo zitzaiolakoan. Adrenalina moduko zerbait sentitu zuen han aurkitu ez eta galtzak hartu zituenean. Hura zen azken aukera, han ez bazen, ez zegoen garunik. Eta orduan zer? Operazioaren ordura arteko fase guztiak, izualdi eta guzti, zulatzean lehertu gabe husten den puxika

batentzat izan zirela pentsatuko zuen. Eta hori alferrik zela. Inpotentzia sentituko zuen gero. Lehertuko ez den puxika baino hutsago aurkituko zuen bere larrua. Berau ere ez zen behin ere lehertzera ailegatuko eta lehertzeko intentzioetan, txikitan potoei emateko erabiltzen zuen karabinaz dutxara joango zen, txorrota ireki eta azpian jarriko. Heriotza garbi bat nahiko zuen. Arnasa sakon hartuko zuen paparraren kontra hotzago sentituz orratz modernizatuaren ahoa. Azken instantean, destinorik baldin bada, labaindu eta tiroa eztarria zulatzera soilik iritsiko zen. Hustu egingo zen. Putza.

Eskua patrikan sartu zuen. Ez zuen aurkitu. Eta bada ezpada beste aldekoan ere begiratu zuen. Baina ezer ez. Berriro pausatu zen; eta bi berriro. Karterari begiratu zion, zerbaitek irribarre zabal bat azalerazi zionean. Aurkitu nahi zuena jakingo balu bezala. Poztu egin zen horren espazio txikian, espazio mugatu hartan garuna kabitzen ez zitzaiola jakinda. Garun aske bat imajinatzen hasi zen orduan, inguratzen zuten laino submarinisten moduan, hegan. Imajinazio zabala izaten zuen ordu horietan; baina zabaltasun hura ere ez zen iristen, imajinatu behar zuen garunaren parte soilik ikustera. Horrek, gehiago poztu zuen.

Harritzekoa da, zenbaterainoko ziurtasuna sentitzen duen jendeak espazio mugatuetan. Zenbateraino izutzen duen zabaltasun eternoak. Hasten zaren lekutik aurrera soilik eginez gero, berriro, hasierarik ez ikusteak. *You can't see your home*. Joan eta joan eta bazoazenean, noiz, non geratu ez dakizunean; geratu behar al duzun ere ez dakizunean. *You can't go home*. Eta inork eragin ez dizun presaz, geratu egiten zara, orain duzun atzea eta hasiera utzi zenituen atzea, norabide berdinean al dauden ez daki-

zula; daukazun askatasunaz konturatu gabe izututa. *Because you never let it*. Horregatik bidaiatzen dugu trenetan; atzerantz. Atzea beti izateko aurretik, noiz, non geratu esaten dizun hondakinekin erositako txartela patrikan duzula ziurtatuz eta lehen baino konfiantza handiagoz kamasutra praktikatzen. Orduan poztu egiten gara, zorian sinesten ez dugunok ezin baikara zoriontsu izan. Zorionak ez baita *congratulations* soil bat gehiago.

Ordu batzuk geroago, lehenago antzeman ez zuen zuloa nabaritu zuen. Ez zen zigarro hark ordainetan emango zizkion odolki guztiak handik pasatzeko adinakoa, baina txinato bat zen azken finean. Gustatu egin zitzaion; eta zetozen egunetan ez zuen beste gonarik jantziko. Zortea izan zuela iruditu zitzaion. Ez zuloagatik, hartaz konturatu zen lekuagatik baino. Pisura iristeko hamar eskailera baino falta ez zitzaizkionean, hain justu. Geratzen zitzaizkionak binaka igo zituen. Jertseko poltsikotik giltzak atera eta sartu egin zen. Ateak itxitakoan atera zuen soinua gelako atearena baino zerbait lehenago besterik ez zen izan. Beste ezer egin baino lehen, jarriko zuen musika aukeratzen hasi zen; hau egin gabe beste ezer ezingo balu egin bezala. Bost minuturen ostean, *Baby I'm gonna leave you* entzun zen. Jarraian, sartzean instintoz bota zuen poltsa topatzen hasi zen, haietan ez zegoen kartera hartzeko. Ez zuen hartu bada eta inguruan begiratu zuen. Han ere ez zegoen. Baina hondakin zorroa ez zenez benetan interesatzen zitzaiona, asko urduritu gabe, erreserban zuen afganoarekin eta kaxoiko zigarro baztertuarekin, kamuflatu errealista bat egin zuen. Bost kilometrotara ere benetako identitatea nabari zaien porro horietako bat. Elaborazioren iraupena abestiarena baino luzeago gertatu zitzaion eta Led Zepelinek bi bider segidan entzuteko moduko kantuak egiten dituela

iruditua berriro jarri zuen. *Baby I'm gonna leave you*. Ohe gainean etzan zen, etzaten zen moduan. Arropak kentzen zituen eta beste egunetan kendutakoei bota. Burua koltxoiaren aurka indarra egiten jarri zuen eta paparra altxatu kea kolpatuz. Halako batean, presioa antzeman ezina gertatu zitzaion eta konturatu gabe ohean pausatu zen kieto. Ahoa zabalik, begiak zabalago. Zabal bezain distiratsu eta *my baby is leaving*. Ez zuen sentitzen gorputza lagatzea bezalako sentsaziorik. Gorputzak gorputza bera lagatzen dueneko, imajinatu ezin daitekeen sentimendu lehor horietako bat gehiago baizik; baina ez da beste bat.

Batzuetan, ke artean igeri egiteari laga eta beste zigarro bat hartzen zuen. Desmuntatu eta tripak, ia tabakoz gainezka zuen plastikozko poltsatxora bota zituen behar ez zituenez eta egunen batean behar gabe erabiliko zituelakoan. Eskuan geratu zitzaion, kotoiari loturik, gorputz ahul bat osatzen zuen tabakoaren papera. Kontu handiz baino gehiago lasaitasun osoz, astiro hasi zen hau alde batetik eta bestetik doblatuz ez ziren aldeak sortzen. Errefortzurako zelo apur bat jarri zion zerbait izatera iritsiko zen proiektu hari, doblatzen jarraituz. Kotoia bere funda laranjatik ateratzen ere aparta zen eta apur bat atera zuen aurretik eta pixka bat atzetik. Berak bakarrik zekien zertan ari zen kaxoi batetik kola zuria atera eta zigarro ohiari geruza ezin finago bat zabaldu zionean gainetik. Baina ez zuen inon itsatsi eta ez zion ezer itsatsi. Ez zion ezer gehiago egin. Hau eginda, bukatutzat jotzen zuen manufaktura eta ohe gainean etzaten zen, kanutoari bizia kenduta siesta gautiar bat egiten zuen. Loti zangoluzeak, iratzartzen zen aldi oro, Zigarro metamorfoseatuak aurkitzen zituen mahai gainean; bere begien distira berdina geratu zaien tximeleta zuriak.

Kartera hartaz ez zen oroitu handik hiru egunera arte; oroitu zenean ez zen kezkatu. Ez identitate gabeko pertsona bat izatearen kontzientzia arazoez behintzat. Nostalgia apur bat soilik sentitzen zuen aldian behin, haren gibelean gorde zuen lehenengo adiktibodun tximeleta hartaz oroitzean.

Trena itxuraldatu egiten da jada denbora bat daramazunean. Gezurrik esan ez duen Pinoccio bat bezala identifikatuz; eta odola jaitsi eta pilatu egiten zaizu goizik ailegatzen ez den loaldi laburren atzetik. Zutitu egiten zaizu, balearen bidearen amaieran maitagarri bat aurkituko duen Pinoccio batekin identifikatu nahian.

Gizonak bere poztasunean, ezagutu egin nahi zuela erabaki zuen. Bada gibela zirikatu zion informazio bila. Irribarrea handitu zion bila zebilena aurkitu ordez, han aurkitzea espero ez baina desiratzen zuen hura topatzeak. Liburutegiko karnet hartan zuen informazio urria nahikoa baino gehiago zuen. Gutxi bazen ere asko ez zuen behar. Helbidea eskumuturrean idatzi zuen eta kito; operazioa ongi irten da. Jada berdin bazitzaion ere emakume izan edo ez, pazientea josi aurretik ostera atera zuen karneta lehenago erreparatu nahi ez eta ez zuen argazkian erreparatzeko. Honi katigaturik tximeleta zuri bat atera zuen argazkia estaltzen. Argazkiaren gainetik kendu eta begira geratu zitzaion denbora luzez. Hau lokartu egin zen honi begira.

Esnatzean aurreko eguneko afaria bazkaldu eta kalera irten zen aspaldiko partez bizi sintetizatu bat eta hamar euroko bi billete, bizpahiru txanpon eta monopoliko billete arrosa sakelan hartuta. Uste baino lehenago iritsi zen kale hartara. Zigarro bat piztu zuen eta beste bat, bi ordu-erdi batean. Geroago beste bost erreko zituen, tximeleta posi-

bleen serial *killer* bailitzan. Egun horretan ez zuen oraindik zangoak imajinatzera iritsi ez zen emakumea ikusi eta etxera joan zen kuriositatearen harra hori baino ez zela. Atzera begira, leku estrategikoagoren bat ikus asmoz.

Espedizioaren bigarren egunean eta jarraian zetozenetan, kale horretako teilatu lau batera igotzen zen atzeko irteera kaletik. Hirugarren solairuko altura zeukan, ikusi nahi zuen bigarren solairuko bionbo batez banaturiko egongela eta logelaren zati bat hobetu ezin zuen perspektiba batetan ikusten zituela. Oraingoan euria hasi zitzaion asperduraren erdian.

Hurrengo egunean musikaz lagunduta joan zen. *Waiting for the sun* eta ilargia iritsi zitzaion, gibela zuela erakustea eskertuz bezala. Berarekin ekarri zion gaueko dama ere. Kuleroak ikustera iritsi zen *Ultimo tango en Paris* ikusten hasi zenean. Komunera edo sukaldera abiatzen zenean. Logelan piztutako kanutoak egongelan amatatzean. Oinek bereganatzen zioten independentzia nabaritzen zion dantzan ari zenean eta egonean; kuriositatearen harra desioak bereganatu zuenean.

Laugarren egunean beranduago joan zen, hala ere zain egoteko, ilargia, berriro, eskertzera etorri arte. Oraingoan, *El ángel exterminador* ikusi zuen kulerotan.

Beste txinato batek alaituta oraingoan eskailera guztiak igo zituen binaka, edo eskaileren erdiak igo zituen. Ostirala zelako-edo, whisky botila bat ekarri zuen besapean. Sukaldean afari azkar bat egin zuen eta telezaborra eskibatzera joan zen, bideo bat jarriz. Artaldea elizara sartzen hasi baino ez zen egin. Tinbrea entzun zuenean. Ez zeukan atezain automatikorik, beraz atean itxarongo zion pelikula amaieren izorratzaile hark. Atea zabaldu bezain laster

agurtu zuen bisitariak eta egongelaraino ihes egin zion, azken ardia elizan sartzen ikusteko. –Filme ona– esan eta whiskyari trago bat eman zion egiten ari zenak eztarrian sortzen zion korapiloa tragatu nahiez edo. Intentzio berdinekin bigarren bat eman zion eta orain urdailera jaitsi zitzaion. Emakumea atzean zegoen, komiki bat balitz, komikigileak buruan tanto bat marraztu beharko zion pertsonaia bezala. Biratu egin zen eta kartera luzatu zion. Honek irribarre egin zuen oraindik tantoarekin eta jesartzera gonbidatu *the Doors*-en kamiseta ikustean. Bideoa itzali eta hauek jarri zituen, gizona ziurrago sentiaraziz eta espazio gehiago okupatuz sofan. Eseri eta hitz egiten hasi ziren. Hobeto esanda, emakumeak monologo bat egin zion bere, dibertsiorako asmatutako, pena inbentatuekin. CD-a amaitzerako horditzen hasiak zien bi ezezagun begigorriak. Beste bat jarri zuen eta berdinean jarraitu zuten, sentimenduak askatu ezinik asmatzen zituzten haiek.

Whiskya zuen hankartean, kuleroetan berotzen. Whiskya bero edan behar dun. *Passport Scotch*. Eskua luzatuz eta izterrak urratuz kentzen zion botila; beroa. John Coltraine ozenago jartzen zuen aldi berean. *A love supreme*.

Eskua luzatuz eta izterrak urratuz ematen zion botila; beroa. Lepoan behera ihes egiten ziona, tantaz tanta, kuleroak bustitzera iristen zitzaion bezala.

Astiro jeiki zen, botila luma bat eror zedin. Astiro kendu zituen kuleroak ere. Hauek, kulero umelak bezala erori ziren.

Berriro eseri nintzen, ia botilaren gainean. Eta berriro hartu nuen botila, ia lehen bezala. Baina zerbaitek esaten zidan: "*Bésala*". Bada botila bi eskuez estutzen nuen, as-

tiro ematen zidan botila, bero hura imitatu nahian. Baina zerbaitek esaten zidan: "*Bésala*". Orduan, berriro kendu zidan botila, eskua bere bular aldera eraman behar izan nuelarik. Orduan, berriro eman zidan botila, beroa, burua ene bularrean jartzeko beharra sentitu zuenean. Eta zerbaitek esaten zidan: "*Bésala*".

– Eta zer zion bada alu horrek? –galdetu zion. Momentu extasiatu horietako bat sentiaraziz, hatzez bere azala urratuz. Eskua izterrean jarri zion, emakume arnasagatik izan ez bazen absolutua izango zen isilune hartan.

Piano jotzen zuen ene aluttoa botilatik trago bat hartuz. Zortzigarren laztanaldian, ditiburuak gogortu zizkidan.

Biluztu zen bera ere eta bat egin ziren. Erdi amatatua zegoen txifloa piztu zuen ketan igeri egiteko eta bat berriro. Sortu zuten euren izarrik gabeko unibertsoa eta irentsi zuen zulo beltzak anemiadun zakurra. Sentimendu lehorrek su hartu zioten udazkeneko hosto metek hartzen duten lez. Haiek bezalako kea atera zuten, baina beste batuekin bezala kolokatu zen.

Aluki jotzen zuen pianoa.

Eta zakurra otsotu egin zen. Uluka miazten zuen goitik behera eta Txanogorritxuren ipuinaren amaiera xuxurlatzen zien, zortzigarren laztanaldian gogortutako ditiburuei.

Primitibo ari ziren larrutan bataren asetu nahian besteak ulu egiten zionean ilargiari. Primitiboegi agian. Sofa bolkatu egin zen atzera eta animaliak berarekin, bionboa botaz eta honek segidan mahai gainean zegoen kaxa.

Ehun bat tximeleta zuri aireratu ziren laino submarinisten artetik.

Gizona azpian zela arrastan joan ziren ohe ondora. Burutik heldu zion eta bat berriro; ohe gainera pasatu ziren. Emakumea azpian etzanda zegoen kieto. Irribarrea ezpainetan; otsoa zulo beltzean.

Hirurogeita hamar bat tximeleta zuri eroriko ziren ohe gainera.

Gainean korritu zen.

Zigarro bat piztu zuen. *Waiting for the sun*. Eguzkiaren lehen izpiek begiak itxiarazi zizkionean, erorketan lepoa apurtu zuen hilotzaren gainean amatatu zuen zigarro berbera.

“*Your love is like a fire*
*my love is like a cigarette*.”

Jantzi eta kalera irten zuen zigarro metamorfoseatu ibiltariak. Metroa hartu zuen etxera itzultzeko. Baina larunbata zenez ama bisitatzera joatea pentsatu zuen sentitu ezean imajina ezin daitekeen bezala sentituz. Handik ordubetera zeukan treneko txartela erosi eta itxarongelara joan zen. Idazten igaro zuen ia denbora guztia, whiskya kanporatu beharreko unea iritsi zitzaion arte urinario publikoetan.

Sartu berri den *Pixies*-en nikidun emakumeak fresa zaporeko txikle bat ahoratu du. Egin nahi ote zuena hori ote zen zalantzan jartzen zuen aurpegiaz, bigarren bat ahoratu du. Eskuaren aurka jarriaz ahoa mastekatzen du. Ez-erretzailea izango da, edo tabakoaren amoranterik handiena. Eta izan du halako pentsamendu erotiko bat, txiklea gogor eta gogoz murtxikatzen, begiak ixten zituenean. Lepoa aireratuz eta marrubi esentzia lepoan ondoratuz. Aho guztian darabil biraka, gogor eta gogoz. Zangoak, izterrak

gurutzatu ditu sutilki; bidaiarien egoera animikoa aldatzeko betarik eman gabe. Begiak zabalik begiratu nau, bere egoeraren berri izanak salatuko banindu bezala. Baina ostera itxi ditu eta boltsoa aluttoaren aurka zapaldu; murtxikatuz, ondoratuz.

Ausentzia sumatu gabe.

# Isilpeko ametsak kanporatzean

Ander Ceña Setien
Aita Larramendi ikastola
Andoain

*"Utzidazue esaten, nahiz eta barregarri geratzeko arriskua izan, benetako iraultzailea amodiozko sentipen handienekin gidatzen dena dela."*

ERNESTO "CHE" GUEVARA

Trena geltokira iristearekin batera hasi nintzen hiriaren bizigiro kementsu eta etengabea nabaritzen. Bizitzaren zentzua oraindik ikasia ez zuen aingerua nintzen orduan, jendez gainezka zegoen bagoi hartan sartua, baina ez nintzen laster hegoak nire belusezko bizkarretik jausiko zirenaren jabe. Marseille-Paris trena ordu laurden atzeratua iritsi zen, garraiobide frantsesen berandu iristeko ohiturari huts ez egiteko agian. Niri bost axola zitzaidan, ez bainuen inor nire zain edukiko geltokian eta eguerdia zenez, banuelako nahiko denbora Parisekin lehen kontaktua edukitzeko eguzkiaren azken izpiak haren eraikinen silueten atzean ezkutatu baino lehen.

Gare du Nord-eko lurzoruan oina ipini bezain laster, bakardade sentimendu batek asaldatu ninduen bat-batean. Gelditu egin nintzen, alde batera eta bestera so eginez, hiriko haize arinak nire ilearekin zirimolak egitera jolasten zuen bitartean. Jendea geratu gabe zebilen korrika, nire

presentziaz ohartu barik, eta biluzik sumatu nuen neure barrena mundu arrotzaren aurrean. Gaztetasunak emandako libertateaz gozatu nahian etorri nintzen Parisera, bizitzak eskaintzen zizkidan aukerak aurkitzera, baina lehendabiziko harremanak bakardadearen laztasuna erakutsi zidan. Indarrez hartu beharreko erronka zen hura; gaztetako ametsak bete nahi zituen beste emakume bat gehiago nintzen hainbat ameslariren gordeleku zen hirian. Nire gogoetak alde batera utzi eta ibiltzeari ekin nion berriro, maleta eskuarekin jasaten nuelarik. Pauso horiekin batera hasi zen nire ametsetako bidaia, eta Marseilletik ekarri ninduen tren hartan utzi nituen umetako errugabetasuna eta beldurra.

Kalera irten nintzenean, epeltasuna zerion iraileko eguzkia zen nagusi eta goizaldean egindako euriaren azken aztarnak ziren putzuak ageri ziren han-hemenka, asfaltoa zipriztinduz. Karrika luzeetan barneratu nintzen, mapa eta maleta eskuan hartuz, eta noraezean ibiliz atmosfera kosmopolita etengabe arnasten joan nintzen. Montmartre auzoa nuen Parisen erakusgai momentu hartan, eta nire noranzko galdua haren oin bide eta enparantzetan bizitza aurrera ateratzeko modua bilatuz gitarra jo eta mihiseak margotzen zituzten musikari eta margolarien artean zihoan, erdi artista erdi arlote ziren haien artetik. Aste bat lehenago hots egindako ostatua aurkitu nuen dezente ibili ondoren, Rue Delacroix delakoan, hain zuzen ere. Arras xumea zen egokitu zitzaidan logela, eraikin zahar haren barnean aurkitzen zen guztia halaber. Ohea, gainean telefono bakarti bat zuen mahaia eta aulki bat gordetzen zituzten aspaldian margotuak izan ez ziren lau paretek, eta ate bat zeharkatuz irits nintekeen komunera. Ohean utzi nuen maleta eta barnean hiria ezagutzeko nuen ezinegonak ka-

lera irtetera bultzatu ninduen, ekarri nituen arropa eskasak maletatik ateratzeko denborarik ere eman gabe. Arin sentitzen nintzen oinez nindoan bitartean, pauso bakoitzak mundu berri bat begietaratzen zidan nire aurrean eta bertan ikusten nuen edozerk liluratzen ninduen. Eraikin ederrek eta kafetegi xarmantek txikitan aitaren transistore zaharretik entzuten genituen abestiak ekarri zizkidan burura, eta haien doinu lasaietan murgildu nintzen Pariseko kaleak zeharkatzen nituen bitartean, nigan sortarazten zuen magiaz harrapatuta eta atzean utzi nuen guztiaz ahaztuta. Nire bizitzako garai berri baten hasiera zen hura. Etorkizuna aldakor eta lauso agertzen zen nire aurrean eta ziurgabetasunek eta ezbaiek sortutako kitzikapenek ferekatu egiten zuten nire barrena, Montmartreko giro buhameak astiro bere kolore eta doinuekin inguratzen ninduen bitartean.

Hemezortzi urte bete berriak nituen Frantziako hiriburura iritsi nintzenean, eta hirurogeiko hamarkadak bere amaierarako bidea hasia zuen, jada. Aldaketa eta mugimendu handiko urteak ziren, mundua inoiz baina harrotuago zegoen eta desadostasunaren oihartzunak bazter guztietara hedatzen ziren, gizartearen akatsak erakutsiz eta berau bestelakotzeko ahaleginak eginez. Ez nintzen garai egokienetan agertu Parisen, ez zen hura neskatila babesgabe batentzat lekurik aproposena, baina banuen nahiko kemen nire ametsen ildoari jarraitu eta adreiluzko oihan hartan bizirauteko.

Hasiera batean, gurasoak nire joatearen aurka zeuden, ea alaba zaharrenaren bidea jarraituko ote nuenaren susmopean. Anaïs, nire ahizpa, etxetik joan zen ni nerabezaroan sartuta nengoela. Guztiz konformagaitza zen, ideiez zuen betea burua eta hippie bilakatu nahi zuen betidanik amestu zuen mundua lortzeko. Gurasoek Ibizara uda pasa-

tzera joateko baimena eman zioten lagun talde batekin, baina ez zen hazi zen etxera berriro itzuli. Jainkoak jakingo zuen munduko zein lekutan zegoen galduta! Ez zuen bizi zenaren arrastorik eman eta noiz itzuliko itxaroten gelditu ginen denok, ihes egin zuen eguna madarikatuz. Nik ere joateko nahia nuela adierazi eta begirada goibelez begiratu nindutenean, zin egin nien itzuliko nintzela noizbait etxera, baina ezinbestekoa zitzaidala inguruan nuen mundua kausitzea zoriontsu izateko. Azkenean alde egiten utzi zidaten, beren aingeru ederra hegan egitera bultzatu zuten. Eta nik hegoak astintzeari ekin nion. Betidanik izan nuen berjabe bizitzeko eta gaztetasuna inoren agindupean igarotzeko gura, nire ideiak zehaztu eta beraiengatik borrokatzeko apeta, nire izaera ezagutuz noraino irits nintekeen jakiteko, eta momentu hartan nahi haiek egia bihurtzeko aukera nuela senti nezakeen, idealismoak sortarazten zidan fantasien eta begitazioen zurrunbiloan barneratuz.

Nire mundu berria ez zuten logela zaharkitutako lau hormek mugatzen, ez eta hiri handiak sortzen zizkidan mesfidantzek ere. Nahiz eta sarritan bakardade eta malenkoniazko sentimenduek asaldatu, ez zitzaidan zaila egin bizitza hiritarrera ohitzea eta beti nuen aferen bat egiteko. Ez nuen inolaz ere denbora galdu nahi eta egunak ostatutik kanpo igarotzen nituen, denboraren ihesaldia aprobetxatuz. Astiro-astiro hiria ezagutzen joan nintzen, niretzat ezkutatuta zituen sekretuak aurkituz. Hartarako, 1967ko udazkenak bere nortasuna azaldua zuen, eta zuhaitzen hosto marroi eta iharrak kulunkatzen zituen haize leuna freskotasuna zabaltzen hasia zen etorbideetan zehar.

Izugarri gustuko nuen paseatzea eta pauso lasaien bidez hiriko kantoi guztiak deskubritzea, Tuilleries lorategietatik eta Champs Elysées-etatik igaroz Parisko hiritar

sentitzea. Hala ere, parkeak eta karrikak ez ezik, beste hainbat sekreturekin ere topatu nintzen, eta dudarik gabe Cinémathèque Française delakoa izan zen interesgarriena. Jauregi batean zegoen kokatua, eta hainbat film ikus zitezkeen bertan. Hainbat gazte biltzen ginen sala bakarti hartan, pelikula berri bat ikusteko asmoz. Nire adin eta ezaugarri bertsuetako jendea ezagutzeko aukera eman zidan leku hark eta ezin gusturago sentitzen nintzen neska-mutil haiekin edozer gauzetaz hitz egiten nuenean. Aretoko argiak itzali eta filma hasten zenetik hipnotizatuak gelditzen ginen pantailatik zetozkigun irudien indarrarengatik. Zine fanatikoak kontsideratzen ginen, Buster Keaton edo Jacques Tati aitzindaritzat zituzten masoiak, zinemateka saindutegitzat hartuz. Filmak gehien maite genituenak aurrean kokatzen ginen, pantailatik ateratzen ziren irudiak jasotzen lehenak izan nahi genuelako, beren sentimenduak fresko zeudenean sentitu, eserlekuetan atzeraka joan ahala indarra galtzen zutelako zigarro kearen eta airearen artetik pasatzean. Pantailak kanpoko mundura begira babes moduan funtzionatzen zuen, eta barnean pasatzen genituen arratsalde haietan mundua lagatzen genuen, aretoa Godart edo Truffauten eskuetatik jaiotako filmak soilik existitzen ziren gune irreal bilakatuz.

Zinematekan egin nuen lagun baten aholkuz Pariseko Argazkilaritza Eskolan matrikulatu nintzen, errealitatea irudietan gordetzeko ideiak izugarri liluratzen ninduelako. Gainera, lantxo batzuekin diru pixka bat lortzeko aukera izango nuen, geroz eta gastu gehiago nituelako. Niretzat argazki bat egitea adierazi ezin nezakeen esperientzia zen, materialki suma zitekeenetik kanpo zegoen zerbait. Nire aurrean nuena paper xume batean betirako gordetzea zen argazkilaritza, iragana betiereko zerbait bihurtzea. Asko-

tan, argazkian erretratatzen nuena ez zen inoiz gehiago gertatuko, aukera bakarra nuen lortzeko, eta horregatik, nire kamara zaharra eskuan nuela argazki bat sortaraztean kitzikapen sentimendu batek egiten zuen agerpena nire barrenean.

Filmetako irudiak bezain azkar igarotzen ziren egun haietan inoiz baino gauza gehiago zegoen erretratatzeko, mundua azkarregi aldatzen ari zen gazteegiak ziren begi eta pentsamenduentzat eta guztiari atera behar zitzaion argazkia, inoiz gertatuko ez zena betirako gordetzeko. Tentsio eta errebolta garaiek Pariserako bidea hartua zuten orduko, zinematekako lagunen hitzetan eta hiriak bereganatuta zuen giro arrotzean nabari nezakeen. Hegoak astintzen jarraitzen zuen nire gazte grinak teilatuen, Sena ibaiaren eta hiritarren buruen gainetik igaroz, eta Janis Joplinen sentimenduez betetako abesti urratuek ohiko gabonkantak ordezkatu zituzten Pariseko eguberri hotzean, 1968. urteari ongi etorria ematen genion bitartean.

Neguak ekarria zuen hotzak nire gelatxo txikian egotera behartzen ninduen, eskolan edo film bat ikusten ez banengoen betiere. Nire erara moldatua nuen jada: azala altxatuta zuten paretak estaltzearren film eta abeslarien posterrak itsatsi nituen, baita ere duela bizpahiru hilabete zendua zen Che Guevararen bat, eta nire argazki albumek betetzen zituzten Maraiseko azokan erosi nituen apalak. Ordu pila igarotzen nuen irakurtzen, liburua esku batean eta zigarrotxoa bestean nuela, gelako airea tabako kez eta nire pentsamenduak ideia berriez betez. Liburu sentimentalak eta sakonak gustatzen zitzaizkidan, zolitasunez betetakoak, eta lagunen aholkuz saiakerak eta politika liburuak ere irakurtzen hasi nintzen, nire oinarri ideologikoak sendotzen nituen bitartean. Bakardadea nagusi zen arrats goi-

bel haietan hautsontzia mutxikinez betez munduaren egoeraz jabetu nintzen, Trostkyren eta Bakuninen ideietatik edanez idealismoaz mozkortuz. Kuraiaz eta kemenez beterik mundua aldatu nahi zuen neskatila errugabe bilakatu nintzen, ameslari huts. Asko ziren Parisen ni bezalakoak, etorkizuna geurea zela bagenekien, eta gure indarra erakutsi nahi genion munduari, bere tradizio eta gizarte-sistema zaharkitua aldatzeko gai ginela. Ametsen forma zuten tximeletak ziren gure barrena betetzen zutenak, baina askok irtenbide bakartzat jotzen zuten indarkeriak laster uxatuko zituen handik. Anaïs ulertzen hasia nintzen liburu haiei esker eta gurasoei etxera itzultzeko hitz-ematea zalantzan jartzen ari nintzen. Garaiegi egiten ari nintzen hegan batbatean lurreratzeko, ezin nuen berehalakoan Paris utzi, baina ez nintzen nire jaiolekura hots egiteaz ahanzten.

Urtarrila ahitzear zegoen larunbat goiz batean kalera irten nintzen, esnatu berria zen egunari diosala egiteko. Sacré Coeur eliza eta Clichy etorbidea igaroz, behealdera abiatu nintzen, Sena ibaiak hiria bitan zatitzen zuen inguruetara. Auzo Latinoa izugarri gustuko nuen eta nahiz eta nire ostatutik urrun egon askotan joaten nintzen hara, gazteen elkargune eta nolabaiteko ghettoa zelako. Tabernetan ez zen mugimendu asko nabari ordu haietan, eta zenbait denden pertsianak igo gabe zeuden, margo sprayz egindako kontsignak eta mezuak agerian uzten zituztelarik. Aspaldidanik irakurri nahi nuen Jean Cocteau-ren liburu bat erosi nahian liburutegi txiki batean sartu nintzen, “Le coin du lecteur” izena gainaldean jartzen zuena. Barnean liburuak ordenatzen ari zen mutiko bat aurkitu nuen, berariazko eztultxo bat egin arte nire presentziaz ohartu ez zena. Nonbaitetik ezaguna nuela sumatu nuen segituan, eta berari ere halako zerbait iruditu zitzaiola nabari nezakeen.

Ederra zen, irribarre eztitsua zuen eta begiekin bat zetorren ile beltzak kopeta ezkutatzen zion, filmetan ikusiak nituen aktore amerikar ederren eitea emanez. Ordenatzeke zeuden liburuak eskuetan harturik hurbildu zen niregana, bere ahots gozoa liburu-dendaren zahar usainarekin nahastuz.

– Zertan lagun zaitzaket, *mademoiselle*?

– Cocteau-ren Orfeo liburua bilatzen ari naiz; izan ere, atsegin dut munduarekiko zuen ikuspegi surrealista.

– Ez esan! Neu ere bere obraren jarraitzaile naiz! esan zuen harriduraz –agian interesgarria egingo zaizu bere Les Parents Terribles filma ikustea. Cinémathèque-an dago ikusgai.

– Zeu ere hango ohikoetakoa al zara? Nik ez dut bat bera ere galtzen, eta zure aurpegia nonbait ikusia nuela nabaritzen nuen.

– Bai, nik ere ikusia zaitut han, beti aurreko ilaretan. Ni Phillippe naiz, atsegin handia da zu ezagutzea –eskua luzatu zidan segituan.

– Nire izena Estelle da. Uda amaieran iritsi nintzen hona eta Argazkigintza Eskolan nabil. Hegoaldekoa naiz, baina Parisez zeharo maitemindu naiz –adierazi nion, bere esku argalaren leuntasuna sentituz nirea ukitu zuenean, lauzpabost aldiz astinduz.

Phillippek Orfeo liburua oparitu egin zidan azkenean, eta hala egin zuen arrastian Café Argenteuil-en hartu genituen garagardoekin ere. Bere ezpain samurren artetik ihes egiten zuten hitzen zinezkotasunak maitemindu egin ninduten segituan eta oso eroso sentitzen nintzen berarekin

berba egin eta ikasia nuen guztia kontatzen nionean. Momentu asko igarotzen genituen elkarrekin.

Egun batean bere etxera bizitzera joateko proposatu zidan, bere gurasoak luzaroan kanpoan egongo zirela aprobetxatuz. Phillippekiko nuen erakargarritasunaz itsututa eta ostatuan egoteaz nazkatuta nengoenez, baietz esan nion bi aldiz pentsatu gabe. Negua bere maindire hotza kentzen ari zen egun batean joan nintzen lehenengoz liburuzainaren etxera, berriro maletak eginez eta hilabetetan nire gordelekua izan zen ostatuari agur eginez.

Phillippen etxea Auzo Latinoko historiaz betetako eraikin haietako batean kokatua zegoen. Egunak ziren etxadiko kaleak inoiz baino aztoratuago zeudela, gazteak inoiz baino haserreago zeudela, baina ezerk ez zuen ondoren etorriko zena iragartzen. Lagunaren bizilekua lehendabiziko aldiz ikusteak harritu egin ninduen. Ez zen bat ere handia, baina dena pilatuta zegoen, etxeari itxura kaotikoa emanez nahiz eta objektu guztiak ezin ordenatuago egon. Bere gela kapitalismoaren aurkari eta zinemazale amorratuen saindutegi bihurtua zuen: ohea ertz batean zegoen, liburuz betetako apalez inguratua, eta umeltasunez betetako paretetako zati urri bat soilik ikus zitekeen, gainontzeko guztia Mao Zedong, Lenin edo Marlene Dietrichen hormairudiek eta Paris erretratutzat zuten margolanek betetzen zutelarik. Armairu zaharkituaren ateetan film batzuen kartelak zeuden itsatsiak, eta argi apalak lasaitasun eta epeltasun giroa ematen zion gelari, nahiz eta kaletik zetorren argi kopetiluna balkoiko leihotik barrena sartu. Lehenengo gauean, bere liburuetako pasarterik interesgarrienak kontatu eta marihuana kanutoen kea gela osoan barreiatu ondoren, Phillippen gurasoen logelan egin nuen lo, oraindik aldaketa hura emateaz ziur ez bainengoen.

Hurrengo egunean elkarrekin joan ginen Cinémathèque-ra lehenengoz, Chaplinen film bat ikusteko asmoz. Atzean esertzen ginen lehendabiziko aldia zen, bikoteak beti bertan esertzen zirelako. Oharkabean egin genuen hori, baina, agian, bikote kontsideratzen ginen ordurako. Hala ere ezin izan genuen film hori ikusi. Kanpoko mundutik babesten gintuen kutxak, gurea egin genuen aretoak, ezin izan zuen kanpoko presioa jasan, eta errealitatearen gordintasuna bat-batean agertu zen pantailan zehar gure agintarien adigaiztasuna erakutsiz. Kulturako ministroak zinematekako zuzendaria bota zuenaren albistea eman zuen egun hartan erakundea kolokan jarriz, eta ehunka gaztek, pankartak eskuetan, Parisko kaleak hartu zituzten, André Malraux-en itzulera eskatzeko. Hainbat arrazoi zeuden ekintza honen atzean, gazteok ulertu ezin genituenak, eta bidegabekeria hori izan zen gure nahiak lau haizeetara zabaldu eta mundua aldatzeko gai ginela adierazteko grina piztu zuen txinparta. Udaberriak odola aztoratzen duela diote askok, eta hala egin zuen agertu berria zenak gure interesekin.

Phillippe, nahiz eta igarotzen ari ginen egoeraz kezkatua egon, bortizkeriaren aurka zegoen eta eguna etxean pasatzea nahiago zuen, Auzo Latinoa matxinatzen ari ziren gazteez betetzen hasia baitzegoen eta bere liburutegi txikia irekitzea eragozten zietelako. Kontent nengoen pisu hartan, nire gaztetasunaren askatasunaz ezin hobeto goza nezakeelako. Etxe haren pareten artean ez zegoen legerik, anarkia moduko bat osatzen genuen Phillippe eta biok eta nahi genuena egin genezakeen. Gau haietako batean aingeru estalkia guztiz ezabatu zidan zerbait gertatu zen mundu anarkiko hartan, nerabezaroa betirako ahantzi eta emakume bilakatu ninduen zerbait. Intziri eta uluekin egin zuten ihes umetasunera lotuta ninduten kateek.

Gau hartan kanpoko zaratek tregoa bat egin zutela zirudien, eta komuneko bainuontzia ur epelez beteta zegoen, bits txuri fin batek estaltzen zuelarik. Astean birritan egiten zidan berdina Phillippek, ohera joan baino lehen lasaitzeko, berak gelan irakurtzen zuen bitartean. Gustuko nuen bainua hartzea, nire gorputza guztiz erlaxatzen nuelako. Irakurtzeko gogorik gabe edo, Phillippe komunean agertu zitzaidan, berak ere bainua hartzeko apeta zuelako. Bere soin biluzia ikusten nuen, nolabait lotsatuta, berak irribarre eginez oinak bainu-ontzian sartu eta aparra mugiarazten zuen bitartean. Guztiz eseri zenean, bere hankek nireak ferekatu zituzten, urak emana zidan erlaxapen guztia ezabatuz. Nire artegatasunaz jabetu zen segituan, eta bere begirada gozoarekin lasaitu zituen nire barnean zirauten beldur eta urduritasun guztiak. Ez zuen hitzik egin, ez zizkidan bere hitz gozoak oparitu, tabernetan garagardoekin egiten zuen bezala. Berak mugitutako txotxongilo biluz bihurtu nintzen momentu hartan, eta bat-batean, begiak itxiz, bere ezpain samurrak nireetan nabaritu nituen. Gozoki musukatzen ninduen, eta mihiak geldiunerik ez zuen zurrunbilo batean sartu ziren. Lepoa eta belarriak miazkatzen zizkidan bitartean, bainu-ontziaren alboan zegoen ispiluan ikusi nuen nire isla, biluzik, joko lizunen jostailu bilakatuta. Nire azalaren zurbiltasuna aparrarekin nahasten zela ikusi nuen, baita nire bularrak Phillippen esku leunekin, eta begirada lurrinez betetzen ari zen ispilu hartatik kendu nuen, betazalak itxi eta irrikaren gozotasunaz gozatzeko. Ondoren etorri ziren momentu haietan bat egin ziren gure gorputzak uraren epeltasunean, elkarri genion maitasuna sendotuz. Gau haren magiak Phillipperi nire barreneko ezkutaleku guztiak aurkitzeko parada eman zion, eta ni gozotasunaren itsaso zabalean murgildu nintzen, handik inoiz atera nahi ez zuen sirena bilakatuz. Estasiak zipriztintzen

zuen bainugelako airea, eta azkenean, oihuak amaitu eta ur epelak bere lasaitzeko gaitasuna berreskuratu zuenean, elkarri begiratu genion bainu-ontziaren alde banatan geundelarik. Aparra desagertua zen eta ura gorriz tindatua zegoen. Leihotik haratago igitai itxura zuen ilargia izan zen gure amodioaren lekuko, nire hegoen erortzearen ikusle bakarra.

Nire bihotzaren egunerokoan hitz berriak izkiriatzen hasi nintzen gau hartatik aurrera, betirako geldituko ziren nire betsarean bainugela zaharkituaren eta Phillipen begi gorrituen dirdira eta gozotasunaren irudiak, kamerarekin ateratako argazki iheskorrak baliran. Umeek mekanoarekin edo andrakilekin egiten zuten moduan, nik heldutasunaren lotsagabekeriarekin eta ametsen utopiarekin jolasten nuen, inoiz izan ez nintzen neskatila bihurri bilakatuz. Udaberriko egun artegatu eta aldakor haietan ia ez ginen pisutik ateratzen, Auzo Latinoan oasi propioa sortarazi genuen liburuz eta diskoz betetako apalak zituzten pareten artean, bi pertsonarentzako lekua soilik zuen aparteko mundua zen hura, legerik gabe, mugarik gabe. Telefonoa balio gabe geratu zen linea moztu zutenean eta janari eskasia izaten genuen askotan. Askatasuna desiratzen zuten liburuetatik irtendako hitzak, Jimi Hendrixen gitarratik sortzen ziren akorde bikainak eta sexua ziren gure elikagaiak, gure mundu irrealaren pertsonaia nagusiak. Zenbaitetan balkoira irteten ginen bertatik zetorren zarataz harrituta, telebista aspaldi ahantzia izan zelako. Kaleetan erretzeke zeuden barrikadak, hertsitako dendak eta zenbait gazte azaltzen ziren, egunero Luther Kingen erailketaz edo Vietnamgo gerrateaz protesta egiten zutenak. Ezikusi egiten genuen kanpoan gertatzen zenarekiko, biok nahikoa ginen bizitza aurrera eramateko, eta nahiago genuen logelan irakurriz eta eztabaidatuz gure artean hitzen borroka egin, kalera atera eta biolentziaz baliatu baino.

Oihuak eta liskarrak handitzen zindoazen, geroz eta bizkorrago, zerua ilun jartzen zenetako batean gure oasiarekin tupust egin zuten arte. Ohikoa zen moduan kandelaren azken momentuak aprobetxatuz logelan geunden. Bat-batean, zerbaitek leihoko kristala jo eta hautsi egin zuen, gure lasaitasunarekin egin zuen antzera. Jendearen garrasiak ozenagoak egin ziren eta etxean barrena zabaldu ziren deiadarrak. Genuen ikuspegitik kaleak zuenaren errainu laranjarengatik balkoira irtetea erabaki genuen arriskuei jaramonik egin gabe. Artega ginen biok, eta azkenean leihoa ireki eta kanpora irten ginenean, ez genuen ohiko aire paristar hotza nabaritu, harrigarria egin zitzaigun epeltasuna baizik. Gure oinen azpian, barrikadak sutan zeuden, su garra harrigarriak jaurtiz, eta albo batean gazteak zeuden, bai mutilak eta bai neskak, lema ugari zituzten pankartak helduz. Eztarria urratuz, bakoitzak bere kontsignari heltzen zion, giroa hots nahaspila bilakatuz. Barrikadaren beste aldean beltzez jantzitako jendarmeak zeuden, eskuetan borrak eta ezkutuak zituztelarik. Noiz erasoko zain ziruditen, gazteen hainbat mehatxu eta irain jasanez. Harrituta nengoen nuen ikuspegiaz, su garren argi biziaz, indarkeriaren krudelkeriaz, ametsak eta ideiak lortu nahiak hartzen zuen indarraz.

Laster atera ninduen Phillippek nire harriduratik. Segundo batzuk nahikoak izan ziren bere begiradaren espresioarengatik egin nahi zuena adierazteko. Korrika irten zen etxetik, eskail'erak behera, beldurrak eta emozioak sortarazitako nahasteak eraginda. Nik atzetik jarraitu nion, zer egin ez nekiela. Atariko atea igaro eta kanpora irtetean, berriro ere sentsazio arrotz batek asaldatu ninduen. Ez zen bakardadea, ez eta beldurra ere. Matxinada hartan soberan nengoela nabaritzen nuen, han egoteko ezgauza nintzela. Jendea bere idealengatik zegoen han borrokan, bere ame-

tsak egia bihurtzeko. Nire ustetan, nahiak egia bihurtzeko hitza eta zentzua ziren bide bakarrak. Momentu hartan jabetu nintzen bazegoela beste bat, indarkeria. Phillipe joana zen, barrikadaren su artean ikus nezakeen, zapi batekin aurpegi erdia ezkutaturik beirazko botila bat eskuan zuela, jendarmeengana hurbilduz. Amets batean murgilduta nengoela zirudien, espejismo bat ziren niretzat suaren argi indartsuak, jendearen oihu gordinak eta armen hotsak. Ez dakit nork edo zerk bultzatu ninduen ezker ukabila altxatzera, garrasi egitera, harri bat hartu eta jaurtitzera, nire ideal baketsuak bat-batean deuseztatzera. Gaua luze egin zen nire barrenean, kanpoan, ubeldurak eta zauriak ziren nagusi, baina nire arima ihes egina zen lehenagotik. Phillippe galdu nuen jende multzo handi horren artean, bandera komunista eta pankarten artean, Auzo Latinoaren aire kargatu artean.

Ohean etzanda, begirada sabairantz, luze egiten dira arratsak Phillippe jendarmeek noiz aske utziko itxaroten. Egoera lasaitzen doa, oihuak isilpean gelditzen doaz ekaitzaren ostean. Eguzkiaren azken izpiak gorritzen joaten dira pixkanaka, Maoren bustoaren alboko kandela bakartia gelaren jaun eta jabe egiten den arte. Bakarrik nago, guztiz bakarrik. Pentsamenduak ez dira lagunak, nire zati diren osagaiak baizik, eta ametsak iruzurrak dira, bizi ezin duena sentitu nahi duen bihotz batek sortutako ilusio hutsak. Isiltasuna edo ekintza. Maitasuna edo gorrotoa. Iragana edo geroa. Gauza asko erabaki behar dira bizitzan. Hartuak ditut nire bizitzaren bridak, ni neu naiz egiten dudanaren erantzule, biztanle bakarra naizen irudizko mundu honen gidari. Irratian Edith Piafen ahots sarkorra entzun dezaket, zigarroa bere amaierara iristen den bitartean.

“Non, je ne regrette rien...”

Ez naiz ezertaz damutzen.

# Mentre dorme la Cittá

Juan Atxutegi Sarrionandia
Urritxe-Zornotza institutua
Amorebieta-Etxano

– Aaa…y, los turistas no vienen de notte a… los lugares, ¿sí?, y no conochen lo piu belo de Roma.

Goxoa, hurbila, zintzoa zen bere hizkera. Gaztelaniaz mintzatzen saiatu arren, italiarrarekin nahasten zuen etengabean, hizkuntza berri bat sortuz. Otu zitzaidan agian, Bartzelona eta Erroma artean, itsasoan galdutako uharte txiki-txiki batean, horrela mintzatuko zirela. Baina hobe zen paradisu hori ez bilatzea, aurkitzekotan denek nahi izango zuten han bizi, eta Benidorm berri bat izango genuen han, aireportu eta guzti; alemanak helduko ziren, eta ingelesak. Adio ametsetako hizkuntzari. Barre egin nuen, negar egitea garestia baitzen goizaldeko ordu haietan, Fontana de Trevi-n eserita, Paolarekin, biok iturriari begira, eguzkiari so.

– De que… tu rie?

Bekainekin galdetu zidan ere, ea zergatik barre ito ha, ea ze lelokeria, ze txori nuen buruan.

– Non é importante, il silenzio, che me face sentire riddicolo.

Orduan bai, barre egin zuen, gustura, nire italiarra penagarria zelako. Sinmas. Eta lepaxerlotik gora bere eskua, atzamar finak sartuz, bere aurpegira hurbilduz, astiro musukatuz, presa barik, denbora gelditu zuen.

Enparantza hutsik zegoen, turistarik ez ordu haietan. Kotxe bakarra, poliziarena, eta airean, tramankulu hartatik irteten zen abestia, Articolo 31rena, 2030. *"Tanta nostalgia degli anni '90, quando il mondo era l'arca e noi eravamo Noè, era difficile, ma possibile, non si sapeva dove e come, ma si sapeva ancora perché".*

Bikote bat zegoan Fontana de Trevi-n, goizaldeko bankuetan eserita, amodio hasiberriek duten indar bereziarekin musukatzen. Egunez enparantza turistez betea egoten zen, japonesak eta espainiarrak bereziki, souvenir merke postu parea, eta bere moduko lapurrak nonahi. Egun onetan, ondo betetako poltsikoak husten zituen egunetan, ehun euro inguru atera ahal zituen. Beste batzuetan, polizia zuhur zegoenetan, gauaz egin behar zuen lan, alarmarik gabeko dendarik topatuz. Erdialdetik ibiltzen zen gehienetan, turistentzat eginiko dendetan ostuz, haiek baitziren babesgabeenak. Gau horretan, otsaila hasierako zapatu lelo batean, hotza gorputzean, Ceste kalean ostu behar zuen, kamisetak, spaghetti, marmolezko estatuen kopia nimioak eta kondoi merkeak nahasita saltzen zituen denda baten. Egunero japones mordoa zebilen handik, aleman batzuk ere bai, eta saltzailea atzealdeko gela batean bizi zenez, dirua barruan egon behar zen, nahitaez. Bai, arriskutsua zen erabat, jabea barruan egonda, denda hustea, eta agian berarekin eramaten zuen egunero dirua , eta orduan kondoi kutxa merkea baino ez zuen aterako. Baina azken asteotan Piazza de Spagna-tik gorako aldean ibilia zen, eta guztiz beharrezkotzat jotzen zuen tokia aldatzea polizia urrun mantentzeko.

Carabinieri-ak, izatez, kotxe bakarra zeukaten handik, Panteoian geldi gehienetan, eta besteren bat Via del Corso-n. Gero, Trevi-ra heldu arte, edo Navona bestaldetik, dena hutsik zegoan. Eta isilpean, hura zen bere etsairik txarrena. Askotan, atea zabaltzean, edo leihorik puztean, auzokideak jaiki eta polizia deitzen zuten. Akabo. Gau hartan, ostera, dendako ugazaba izan zen arazorik nagusiena. Bakarra, hasiera baten. Itzarrita zegoen oraindik tipoa Marco-k dendako atea txikitzean, eta garrasika hasi zen, bere begiek apaletan hausnartzen zuten bitartean, lapurrari burura botatzeko pisuzko tramankuluren baten bila.

Tipo baldarra zen dendakoa: italiarra baino, bikingoa ematen zuen. Bular azpian dimentsio nabarietako bultoa zuela igarri zuen Marcok: sekulako tripontzia. Bibote mamitsua, ile horia, duela berrogeita hamar urte zirkuko pertsonai batek eramango zuen modukoa. Eta oinetako irrigarriak zeramatzan, Bugs Bunny-ren aurpegi irribarretsua zorua garbitzen ile luze batzuekin. Azenarioa falta zitzaion tipoari, bai, hori zen falta zitzaion gauza bakarra guztiz patxada gabeko pailazoa izateko.

Une batez begiak itxi eta saiatu egin zen Marco dendako tipoa untxi mozorroaz imajinatzen. Baina zeramikaren zarata traketsak zorigaitzeko ametsetik atera zuen: tipoa orroka hasia zen, gauerdiko gerra haren objektiboa bera izanik. Korrika hasi, eta segundo batzuk beranduago polizia autoaren soinuak bete egin zuen gauaren lekua.

*Oh, piccolo principe, ho capito a poco a poco la tua piccola vita malinconica. Per molto tempo tu non avevi avuto per distrazione che la dolcezza dei tramonti.*

– Zer uste dozu ba, sekretu guztiak kontau daitezkela? Ez Jon ez… Danak ez ba. Badagoz batzuk gorde ein behar

direzenak, nahitaez, benetan disfrutatu ahal izateko. Adibidez, imajinau. Paola, ezta? Paolataz maitemindu egin banaz, eta gaur gabean Fontana de Trevi-ra bagoaz alkarregaz, epe baten ezin izango deutsut ezer esan. Batetik, hasarratu eingo zinelako; bestetik, neskalagune eukita hori ez dalako oso zilegia.

Jonek barre egin zuen, Conciliazione kalean behera gindoazela, ibairantz hurbiltzen, neguko egun eguzkitsuaz gozatuz, turista lasai bi inperioaren hiriburu ohian. Kaio bat zebilen gure gainetik, eta bere gorotzak Jonen sorbaldan amaitu zuen. Ziiiiium. Plaust.

Ia Castel Sant Angelon geundela, gu baino pixka bat zaharragoa izango zen mutilak andre baten zorroa hartu zuen eta korrika hasi, korrikan inork ikusi ezin izan zuen arte.

Pena ematen zidan, oso argal zegoen eta korrika egitean ere indar falta somagarria zen. Bere aurpegia…

*"Comincio a capire" disse il piccolo principe. "C'e un fiore… credo che mi abbia addomesticato…"*

Corso kalean behera doa, hormara guztiz hurbilduta, eraikin grisen itzalek poliziaren ikuspegitik babes dezaten. Behin baino gehiagotan gertatu zaio: kale hartan korrikan mantendu minutu pare batez, gero kale esturen batetara sartzeko eta han gainetik daraman jertsea erantsi, azpikoa, guztiz ezberdina, agerian utziz. Lelokeria hark askotan salbatu egin du kartzelara joatetik. Gainera, polizia kotxe parea baino ez dago gauaz erdialdeko kaleetan…

– Paola, per che hay tanto machina de policia? –duela bi gau handik ibiliak ginen erdi mozkortuta, auto batetan, eta polizia kotxe bakarra zegoen, Carabinieri-ren bat

agian; gaur, ostera, ia edozein kaletan aurki genezakeen bat edo beste.

– E.... Rice viene a Italia y...cuando politicos viene, molto polizia.

Jertse zuria zakarrontzi baten ostean ostendu du –bihar etorriko da bere bila– eta kolore lila eta berdezko arraiak dituen beste batekin doa kalean behera, jada oinez, erritmo motelean, arnasestua desagerrarazteko.

– Escusa, ragazzo, il tuo identificazione...

Korrika hasi da, korrika edozein lekutara, eta eskumatara sartu da, Trevi-tik ez bada igarotzen ez baitu inork ikusiko eta laster Tritone-n agertuko da handik erraz ihes egin baitaiteke. Ondo ezagutzen ditu kale horiek, poliziak baino askoz hobeto, eta ez du arazorik izango, nekatuta dagoen arren. Txakur baten kaka zapaldu du, eta kiratsa astiro astiro doa gorantz, pausu bakoitzean gau horretako arrastoa gorotzaren oroigarri txikitxoekin marraztuz. XXI. mendeko Erpurutxoa.

Kotxearen soinua gero eta hurbilago, zatarrago, mehatxuaren haragitze mekanizatua.

Mozorro festa amaitu zen eta zerbait egin beharra zegoen. Hiru egun, bi gau gelditzen zitzaizkigun Erroman, eta Paolaren besoa gerri inguruan nuen. Izerdia ere bai, bekokian tanta batzuk. Izerdia edo alkohola, zurrunbatxo lauso eta gozagarria eragiten zidan alkohol berbera, beharbada.

– Paola... Il mio sueno e viitare Trevi de noite...

– Il che? –argi zegoen ez zidala ulertzen, nire sei eguneko italiarrean, edo ulertu nahi ez zuela, bata zein bestea;

baina gau hartan neska bat nire besoekin hartzeko aukera etxera heltzean baino ez nuen izango, ohean etzakeran, begiak itxi eta lo gelditzean...

– Ah, Trevi? Tu quere que nosotros... vamo a Trevi? Oo...bello!! Trevi e molto bello a noite.

Urduri dago eta kale tartean galdu egin da; bere norabidea argi ez eduki arren, kale estuen bila dabil, autoaren bidea saihestu eta bere patua ekiditeko asmotan. Birikiak gero eta txikiago sentitzen ditu barruan, larru itxuran imajinatzen ditu, ia bizirik gabeko animalia deforme baten irudia, eta eztulka hasten da, gelditzeko gogoa sentitzen du, ezin du gehiago… Trevin agertu da.

Trevi-n geunden biok, azkenean, ordu laurden inguruko paseo txiki baten ondoren. Ia bide guztia isilpean egin genuen, gerritik lotuta. Oraindik garagardoaren efektua goregi sentitzen genuela eta, hitzen beharrik ez zegoen. Irribarre leloren bat, kasuala baina bene-benetakoa: emozio baino, barregura sentitzen genuen.

Inguruan ez zegoen inor: ura, argia eta gu geu. Eta polizia kotxea.

– Estamos solos… solo la policia..

– O, policia, non importante, ellos no mira… Eta musu bat eman zidan, lehena, ezustekoa, gauaren amaieraren lehen ahapaldia markatzen zuena.

Mutil bat igaro zen gure paretik, goiz hartan andre bati zorroa ostu omen ziona… Zer egingo ote zuen bada oraingoan. Arnasestuka, merda, merda… alde guztietara begira, gelditu barik, polizia autoa zegoen kontrako zentzuan jo zuen.

Bat-batean, sirena hotsa, itzarri egiten den motorea… Bakarrik gelditu ginen: orduan bai, ura, argia eta gu geu.

– Ahora si estamos solos… Bigarren ahapaldia eta azkena, gehien luzatu beharko zena eta Erromako argazkirik maitagarrien bihurtzekoa.

Korrika jarraitzen du Marco, zarata bikoiztua entzuten duela bere atzetik. Merda, merda… kale esturik ez dago eta ez daki norantz jo, agian Corsora berriro goiz zabaltzen duen kafetegiren batean ezkutatzeko… Une batez gelditu egin behar da, birikiak zulatutako puxikak baino ez dira, airea… Kaletxo bat ikusi eta han sartu da, ilunpean, bi segundoz, arnasa hartzeko.

Bai, ikusi duzu: hor sartu da, izkina horren atzean. Hurbildu egin zara astiro, zaratarik egin gabe, ihes egin ez dezan. Badaezpadan pistola atera duzu: batek daki horrelako lapurrek, goizaldean eta beharbada drogapean, egin dezaketena.

Hurbildu egin zara eta iluna aprobetxatuz bere aurre jarri: bestaldera begira zegoen eta segundo erdian eman du buelta, garrasi bat botaz: pistola bat zeraman eta zuri tirokatzera zioan. Pum, pum. Lurrera jausi da, batera hausten diren mila hezurren soinua eginez.

Hurbildu egin zara eta ondo ikusita, argi pixka batekin, pistola ez zela ikusi duzu: turistentzako oroigarri merkea: harrizko pietate bat.

Tiro bi entzun genituen eta Paolari beldur-garrasitxo bat eskapa zitzaion. Mutilak hartutako kaletik zetorren, autoen argiak oraindik itzala sortzen zuten lekutik…

Etorri bezala joan egin ginen, isilean, Paolaren etxera. Han amodioa egin eta mutilaren aurpegia ahaztu nuen, betirako.

Goizean, RAIk iragartzen dituen berrietan, ez dute ezer esan. Agian petardoak ziren, edo lapurra ikaratzeko tiroak, edo txarto entzun dugu eta zabaltzear zegoen denda bateko pertsiana zen.

*Rimase immobile per un istante. Non gridó. Cadde dolcemente come cade un albero...*

# Esnatzean ez zegoen “ZZZ”-rik

Izarne Oiarzabal Santiso
Ondarroa-Lekeitio institutua
Ondarroa

Esnatu zenean gaua zen oraindik baina zeruan eguzki itzalak zeuden, han nonbait eguna izan zenaren edo izango zenaren seinale, ez baitzekien zer ordu zen. Aurreko batean lokartu zenean gaua beltzez zegoen, orain iratzartzean ere bai, baten bat alargundu ote zen pentsatu zuen, zeruaren senideren bat akaso. Desorientatuta zegoen. Bere etxeko estudioaren mahaiko paper nahaspilaren erdian zeukan burua. Ondoren bere gorputzaren existentziaz oroitu zen. Oraindik buruaren pean jarraitzen zuen, 38 urte eta oraindik independizatu gabe. Ohituta zegoen bat-batean ziplo erori eta esnatzean nondik-norakorik ez izatera, aldika, Loti Ederraren ispirituak berau alokatzea kuluxkatxo bat botatzeko. Medikuek, derrepenteko loa eragiten zuen gaixotasun kronikoa zela eta, izen ulergaitz batekin deitzen zioten, narkolepsia. Baina nola liteke fido horiekin, muki xinple batzuei “congestión nasal” esaten badiote eta hilzorian egoteari indiferentzia tonudun “coma”; ez daukate proportzionaltasunik.

Esnatu zenean gaua zen oraindik baina han ez zegoen dinosaururik. Aulkitik gorputza jaikiarazi eta mahai gaineko folioei so geratu zen. Zer dela eta zeuden orri haiek

guztiak nahas-mahas batean, hilketa bateko biktimak bailiran, kaotikoki ordenaturik, desorden fosilizatuan botata, guztiz zuri? Non zegoen haiei bizia ematen zien istorioa? Non zegoen haien baitan bizi zen kontakizuna?

Luparekin paperak mihatu zituen, badaezpada ere, baina istorioa ez zen ageri; alde eginda zegoen, abandonatu egin zuen edo okerrago zena, agian sekuestratu egin zuten.

Berriz esnatu zenean gaua zen oraindik eta jada trajea, gabardina eta zapata italiarrak jantzita zituenez, bertigoa zeukan kapela urdin iluna lurretik jaso, buruan enkaxatu eta besterik gabe, kalera jaitsi zen; etxean, mahai gainean paper mututuak utzita eta hauen gainean lupa, eta honen gainean, flexoaren argia, mahai gaineko kadaberrak estaltzeko. Istorioa aurkitu behar zuen.

"Desagertutako Istorioen Elkartera" deitu zuen, kalean, telefono bat eskeini zion lehenengo kabinatik.

Dei seinalea aktibatu zen. Erantzunak pasibotasunean ez zioen ezer.

Zain zegoela, kabinaren kristaletatik haratago begira jarri zen, jakin gabe zergatik. Kalean ez zegoen inor eta argiak espazio beltzaren konkistan aurrera zihardun.

Zain zegoela, kabinaren kristalei begira jarri zen, kaleak ez baitzuen istoriorik kontatzeko, edo agian ez zuen kontatzeko istoriorik, badakizu, trapu zaharrak. Kristalek bai ordea: M-3an langileok grebara, I x R = (bihotz bat sutan), "cuchara busca tenedor", "almologia" dugun sustrai kosmikoen ezaguera nebulosen energia positibora bil ezazu...

Zirudienez, “almologiak”, sustrai kosmikoen ezaguera nebulosen energia positiboan bilduz I x R formula ondorioztatu zuen, hau egitean, bihotz bat sutan jarriz. Honek, bihotzak fabrikatzen zituzten langileak mindu eta M-3an Grebara alde egin zuten, presarekin, koilarak hemen ahaztuz. Horregatik koilarak ez zuen tenedorerik inon aurkitzen, hauek bihotz fabrikatzaileekin joanak baitziren.

Zain, erantzunaren esperoan zegoela gogoratu zen. Azkenean, aktibo jarraitzen zuen deiaren seinaleak hitzegin zuen. Erantzungailua zen: zuretzat zorte txarrez, beste aldean espero zenuena hain zuzen ere momentu honetan erahil dutela uste baduzu, sakatu “1”; komunean ataskaturik geratu delakoan bazaude, sakatu “2”; atzazkalak oraintxe margotu dituelako ezin duela telefonoa eseki uste baduzu, sakatu “3”; hautsa xurgatu beharrean, bota egiten duen aspiragailu bat ezin kontrolaturik dabilela badarabilzu buruan, sakatu “4”; nor edo nor ordu hauetan lanean egongo dela pentsatzen dutenek, mesedez sakatu “5”; galdutako istorio baten bila bazabiltza lasai, ez zuen jakingo non aurkitzen den, beraz eskegi telefonoa.

Kabinaren babespetik atera zenean, haizea korrika baten igaro zitzaion albotik, kalea jendez gainezka egon eta pasatzeko, tartetxo hura bakarrik geratu balitzaio bezala. “Eh! Txo!” esan zion, baina haizeak lotsagabe jarraitu zuen bere bidea, begiak atzera itzuli gabe.

Jarraian buruan freskotasun deserosoa sentitu zuen. Kapela falta zen. Haizeak zeraman soinean. “Lapur alena!” esan eta bera ere lasterka abiatu zen haize burusoila harrapatu nahian.

Kaleetako argiak itzaltzen hasi ziren kale kantoi bat igaro eta bidearen erdian mimo bat aurkitu zuenean. Ga-

raia eta argala zen, ile hori luze eta eroria zuen, bustita bezala. Pailazoen antzera, aurpegia zuriz margotuta zeukan, ezkerreko begia borobil berde batekin eta eskuinekoa gorriarekin inguratuz. Soinean peto more ajatu bat zeraman. Barrutik alkandora zuria, zuria izandakoa. Zapatarik ez zion ikusten; agian oin minuskuloak zituen edo agian ez zuen oinik. Dena dela, oso zaila izan behar da oinik gabe zutik mantentzea, batez ere halako haize zakarrarekin. Mimoak eskuin eskuaren ahurra gorantz begira zuen, euria ari duen ala ez ikusteko asmoz bezala, eta ezkerrean paperezko larrosa gorri bakarra sostengatzen zuen. Ez zuen nahiko geratzen zitzaion larrosa hura, bakarra, euriarekin hondatzea. Oinak ikustea eragozten ziona, kapela bat zen, urdin iluna, berea bezalakoa, berea. Zein xelebrea zen jendea, mimoa eta haren eskuin eskua ikustean eskean zebilelakoan dirua botatzen zioten kapelera, jakin gabe lurreko kapela hark bertigoa zuelako zegoela han eta mimoak, soilik bere larrosa zaindu nahi zuela. Baina zertan zegoen mimoa desertua zirudien kale hartan? Non zeuden dirua bota ziotenak? Berak behintzat lehendabizi galdutako istorioa aurkitu behar zuen. Lurretik kapela jaso eta barruan zeukan diruarekin alboko dendara joan eta aterki bat erosi zion mimoari. Aterkia ematera itzultzerakoan, mimoaren oinetan fijatu zen. Zapaten ordez, patinak zituen eta haizeak bultzatzean mugitzen zen bakarrik. “Tori, zeure larrosa euritik babesteko” esan zion eta mimoak ordainetan, ahoa ireki eta mihia luzatuz, haren gainean tolesturik zuen papertxo bat luzatu zion.

Papertxoa bustita zegoen eta kontu handiz zabaldu zuen hautsi ez zedin. Barruan hezetasunagatik difuminatutako hitz batzuk agertu ziren:

“Dakidan bakarra, geratzen zaidana da.
Geratzen zaidan bakarra, dakidana da.”

Haiek irakurriaz batera “Dakidan bakarra eskuarekin agur egin zidala, istorioek eskurik baldin badute behintzat, baina agurtu ninduen, horren froga dut bere ausentzia” pentsatu zuen eta papertxoaren hitzen azpian gezi bat agertu zen. Aurrera joateko agintzen zion. Bere begiek berriz mimoarekin topo egiteko asmoa izan zuten baina hura jada ez zegoen han.

Geziari jarraituz gurutzatu zuen zuhaitzen parkea, ogi usaindun kalea, geziari jarraituz, bakarrik geziari begira, pasa zuen errenazimenduko zubia eta hots metalikodun ordularia. Geziari jarraituz igaro zuen tren geltokiko zurrunbiloa, igaro zituen zinemetako kartel argitsuak. Geziari begira-begira zapatak itsasoan sartu zitzaizkion. Orduan burua jaso eta kresalezko zelaian, hondartzaren eta uraren aduanan zegoela konturatu zen. Aurrerago ezin joan eta eskuinera egitea erabaki zuen, haizearen alde, errazago baita beti alde egitea kontra baino, edozertan. Atzean uzten zituen oinatzak itsasoak jasoko zituen itsasgoran, eta behera egitean desagertuko ziren, itsasoa bokazioz magoa da eta.

Zer nolako irudia trazatu zuen jakin-minez, haizearen kontra jarri zen eta hondarrean, zapata italiarren azpiko irudia begiztatu nahi izan zuen. Nahi baina ezin. Han ez zeuden egon beharrekoak eta ezinezkoa zen itsasoak desagerrarazi izana hondarra lehor zegoelako. Bere bidearen ordez, beste alternatibo bat, berea egon behar zenaren paraleloan aurkitzen zen, baina honen oinatzak oso fin eta estuak ziren, ortozik zebilen baten batenak. Bere pareraino iristen ziren, bere ezker aldera.

– Zapata dotoreak benetan -zioen ahots goxoa heldu zitzaion ezker belarrira.

– Non daude nire oinatzak?

– Neuk hartu ditut. Oinatzen kolekzionista naiz. Hondartza leku aproposena da oinatzak erraz aurkitzeko baina azkar ibili behar da itsasoak har ez ditzan. Normalean guztiak ortozik egoten dira edo bestela kaio eta txakurrenak izaten dira jasotzen ditudanak. Baina gaur suertedun eguna daukat, behingoz zapata batzuen oinatzak aurkitu ditut eta hori ez da oso normala. Ezin izan diot tentazioari eutsi. Nahi baduzu itzuliko dizkizut.

– Non gordetzen dituzu ba gero oinatz guzti horiek?

– Zapata kaxetan, non bestela?

– Eta ez al dizute alde egiten?

– Batzuetan bai, baina beti bueltatzen dira.

– Niri istorio batek egin dit ihes eta bere bila nabil egun osoan.

– Eta zer zioen ba?

– Lokartu egin nintzen hori jakin baino lehen.

– Ba lokartu zaitez berriz ere. Niri oinatzek ihes egiten didatenean hondartzara itzultzen naiz ostera ere eta han egoten dira.

Parean zuen arrantzale goiztiarraren kanaberan goizeko lehen arrainak gosaldu zuen. Petrilaren kontra jauziak egiten zituen, klakea dantzatuko balu bezala zaratak eginez. Klakea, klakea ikusteko gogoa sartu zitzaion eta klub horietako baterantz abiatu zen, 20ko hamarkadara itzultzeko kapritxoz.

Istorioa berriz, ezjakintasunaren lurraldean galdua zegoen, inork ezagutzen ez duen lekuan. Baina hala ere nola

edo hala helduko dira bidetik urrundutakoak, ez jakin arren jada bertakoak direnik, edo agian bai. Eta edozein zirrikitu miatzeko eta bertara joateko gai zenik baldin bazegoen, hori haize gazte eta errespetu gaberen bat zen, lehen kapela kendu zionaren lakoxea.

Haizeak astintzen zituen Charleston-a dantzatzen zuten nesken gonak eta kapritxoa zuten begiak dantzarien soinekoen dirdiretan zorabiatu ziren. Pianojolearen melodiak eramaten zuen bere nahia eta hainbaten artean haren letretan "...follow the wind, make your life and shot your story, like the blue cat..." agertu zen eta hori egin zuen.

Esnatu zenean, ez zen gaua. Zirrikitu batean aurkitzen zen. Handik beste aldera haizea bakarrik ahal zen pasa, haize gazte eta errespetu gabea, eta biziki haserreturik hari kontra egitera ausartu zen. Berak bere pisu guztia jarri zuen oinetan, gogor eusteko eta hark zaplasteko batekin erantzun zion. Hobeto esan, zaplastekoa haizeak bidalitako paper batek eman zion. Egutegi batetik erauzitako orri batek.

Otsailaren 29a, urteko 9. astea, garizumaren lehena, San Mariano; hain zuzen ere egun hari zegokiona.

Horren bila zebilen, hori zen istoriotik geratzen zitzaion bakarra, hori zen zekiena.

Esnatu zenean, oraindik ez zen gaua. Esku artean zuen egutegiko paperari begiratu zion, beldurrez, berriz istorioak alde egin ziolakoan baina oraingoan ustea hitzek ezeztatzen zuten.

*Badira tatuatuta geratzen diren istorioak*
*Badira itsu bukatzen dutenak,*
*eta batez ere badira izaera anfibiodunak*

*Itzal, argi*
*Zinezko eta ezinezkoan*
*irristaka ibiltzen direnak,*
*urtutako asfalto labainkorrean*
*Joan eta etorri, zabuan*
*Harakoan lo eta honakoan esna dagoen salamandraren kolunpioan*
*Badoanean "bazen behin"*
*eta badatorrenean "agian behin bazen" esanez*
*intermitentzien misterioan malabareekin jolasten da*

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute

Garazi Ansa Arbelaitz
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Beste egun bati ere eman dion berriz hasiera, eta berriz ere iratzargailuari so egin dion, hire bizia ez dela amets soila ziurtatzeko. Iratzargailua matxuraturik ez badago behintzat, ametsen erreinua aspaldi laga huen, baina ohartu haiz iratzargailu zaharreko orratz herdoilduek martxan dihardutela.

Arratsaldeko bostak jo diten hiriko elizako kanpandorrean eta hire gorputz ximela altxa dun ohetik kanpandorre zaharreko azken kanpaikada jotzen diten bitartean. Ez haiz atzoko gauaz oroitzen, ez eta herenegunekoaz ere, edo agian, ez dun oroitu nahi. Sukaldera sartzea pentsatu dun lehenik, baina segituan utzi dun aukera hau atzean eta hire gela ondoko komunera sartu haiz. Garai bateko azulejo urdinak, hire bizitza islatzen diten, hik ez dien begiratu ere egin nahi eta zuzenean ispilura jo dun. Ispiluko argiek salatzen haute. Ezpainetako gorria kokotsean daukan jada eta errimela ezpainetan. Musuan, ebaki bat ere ikusi dun, eta oroitu haiz atzoko azken arlote mozkorrak egina zela. Jada infektatzen hasia dun, hala ere, lasaitasun aurpegia ipini eta eguneroko bideari ekin dion.

Bata horia jantzi soinean eta sukaldera sartu haiz. Atzo arratsaldeko ontziak oraindik garbitu gabeak aurkitu ditun,

koipez beterik, baina berdin din. Sua piztu dun eta jarraian atzoko zartagin koipeztatu batean txistorra frijitzeari ekin dion. Mahaian eseri haiz eta txistorra jaten hasi, baina gutxiegi egina zegoelakoan, berriz ere zartaginean ipini dun gehiago egin zedin. Bitartean telebista piztu dun eguneko berriak entzun nahian, baina telenobelak besterik ez ditun aurkitu, beti bezala. "Televisión Española Uno"koa ikusteko joera dun, baina gaur, zorigaiztoko jaiki haiz eta ez diten botatzen. Horren ordez prentsa arrosari buruzko programa bat ikusteari ekin dion, hasperen eginaz. Pantoja gora eta behera, beti hitz berdina ahoan.

Ohartu gabe, sukalde guztia kez inguratu zain eta ez da hire zigarroko keaz izan gaurkoan. Kaka zaharra, gaur txistorra erreta jan beharra. Jateko gogoak ere kendu dizkinan ahora sartu dun lehenengo zatiak eta basuretara botatzea ere pentsatu dun, baina azkenean gorde eta hire pisu inguruan ibili ohi den txakur eskale bati ematea erabaki dun. Hura kaleko zaborrontzietan janari bila ibili ohi delako, gainera, noiz edo noiz ikusia dun bere kakak jaten eta hori baino hobea egongo delakoan oparituko dion batez ere frijitu berri dun txistorra zatia.

Sagar bat eskuratu dun eta jaten ari haizen bitartean gaurko zereginetan pentsatzen hasi haiz. Hire lanerako prestatu beste zereginik ez dela ohartu haiz eta sagarra jaten jarraitzen dun bitartean kotileoko programa hori ikusten jarraitu dun. Iragarkiak, gabonetako iragarkiak… eta beste urte bat igaroko dun postal ziztrinik iristen ez zainalarik, udaletxekoa ere beheko atsoak lapurtzen din! Bere senarrarentzat behar omen du. Hik ez dun ulertzen bere senarrak nola irakur dezakeen, lehengo urtean hil baitzen koitadua, goian bego. Hala ere, atsoa ero samar dagoela ezin uka dezakean.

Aulkitik altxa eta berriz ere gelan sartu haiz. Armairua ireki eta arropa aukeratzeari ekin dion. Gaur, minigona arrosa jantziko dun eta alkandora zuria. Arropa guztia hartu dun, baina bularretakoa bidean galdu zainala ohartu haiz, eta makurtzearekin batera depilatu gabe hagoela ohartu haiz. Arropa guztia pasilloan utzi dun, basamortuko duna koloretsua bailitzan eta berriz ere komunean sartu haiz. Depilatzeko argizariaz pentsatu dun lehenengo, argizari berde likatsuaz, baina kremaz egitea nahikoa dela ohartu haizenean irribarre lasaigarria pausatu zain heure ezpain gorriztatuetan. Ispilu azpiko kaxoian hasi haiz ditxosozko krema depilatzailearen bila eta komuneko zuloan amaitu dun, agian atzo gauean eroria bertara… baina ez zagon. Zakurraren putza! Beheko dendako atso berri-lapikoarengana joan behar dun orain, gaizki depilatzen hauen krema kimikoaren bila.

Gelara itzuli haiz eta berriz armairua ireki dun. Hippya izan nahi hueneko soineko luze loreduna topatu dun txaleko eta guzti. Garai zoriontsuak gogoan, bai bakeari, ez gerrari oihukatuaz atzoko takoi fineko oinetakoak aurkitzeari ekin dion, gauean irabazitako diru apurrak jaso nahian. Txanpon pare bat hartu eta etxetik irten haiz aurpegia garbitu ere egin gabe. Portalera iritsi haizenean, eguneroko txakurrak bisita egin din eta goizean erre zainen txistorra zatiaz oroitu haiz. Kuriosoa, txakurra intzirika ari dun txistorra zatiaz, jakingo balu bezala. Beraz, berriz ere propagandaz hornituriko portaleko ate beltz zurruna ireki eta eskailerak igotzeari ekin dion etxera iritsi arte. Berehala hartu dun paperean bilduriko txistorra zatia, eta korrika jaitsi ditun eskailerak berandu dela ohartu baihaiz. Txakurrari txistorra eman eta atsoaren dendan sartu haiz. Krema depilatzailea eskatu dion ondoren eta tabako pake-

teak begiztatu. Ezin tentaldia jasan eta Chester pakete bi eskatu dizkion. Atsoak ironiaz ea beste ezer behar huen galdetu ostean alde egin dun lasai, pausu hots sakonaz eta aldaken mugimendu lasaiaz, atsoa gutxietsi nahian nolabait.

Berriz ere etxean haiz dagoeneko eta komunean sartu haiz. Eta ohartu haiz nola garai bateko baldosa urdinek beldurra ematen dinaten, beraz, hauei behatu gabe, komuneko tapa jaitsi dun eta hippy gona erantzi kontu handiz. Segidan, krema ezezagunaren instrukzio orriak atera eta irakurtzeari ekin dion. Portugesez dator guztia; "Aplique derectamente na pele com a ajuda da esátula, espaldando o creme em camadas suficientemente espessas, de forma a cobrir os pêlos…" Nola hala ulertuaz, ekintzari heldu dion, kaltegarria denentz jakin gabe hire azal zimurrarentzat. Espatula urdina atera dun eta krema barreiatzeari ekin. Baina monoari ezin eutsi izan dion denbora askoan eta zigarro bat atera dun erosketa poltsatik, txiskeroa atera eta piztu ondoren, sekulako zurrupada eman dion heure bizi zatia zeraman bitartean.

Itxarotea tokatzen zain, hamar bat minutu, instrukzio portugaldarrak dioenez, krema kimikoak bere efektua egin bitartean. Ez dakin zertan pentsatu eta modako abesti bat kantatzeari ekin dion heure buruari dionen ikara ezkutatu nahian. Denbora igaro dun, zigarroari beste zurrupada eman eta oraingoan espatularekin krema kendu nahian habil. Esku batean zigarroa, bestean espatula, ezinean, baldar. Ileak ez doaz erraz, eta krema madarikatu dun, berria, ezezaguna eta batez ere dendako atsoak eman dinalako. Beste zurrupada bat eta ur epelarekin garbitu dun hanka, azkenean nahiko ongi gelditu delakoan, hasperen egin ostean. Beste hanka ondoren, lehenengoaren antzeko esperientzia izan dun, zigarro zurrupadarekin batera.

Pasillora irten haiz une baterako, une labur baterako hain zuzen, eta arropa pila hartu dun besapean, hire haurra balitz bezala eta ia hizketan ere hasi hatzaio, izan ere, azken bolada honetan ez dun inorekin gozoki ideiak elkartrukatzeko aukerarik ere eduki. Janzteari ekin dion, datorren gaua dunalarik jagoitik hire pentsamenean. Lehenik bularretakoa jantzi dun, bularrak ongi estutzen dizkinalarik, eta handiagoak dirudītelarik horrela. Ispiluan begiratu haiz, baina ez dun ezer esan. Puntiladun tanga jantzi dun hurrena, astiro. Berriz ere ispiluari begiratu dion eta erakargarri hagoela pentsatu dun, lizun. Gero minigona arrosa jantzi dun, kostata, estu sartu zain, baina eder hago. Azkena alkandora zuria izan da ipintzen, baina ez haiz ohartu ere egin bart gaueko ezpainetako gorriaren marka duela, zilbor aldean. Berriz begiratu dun ispiluan eta ohartu haiz oraindik atzoko errimela eta ezpainetakoa bertan ditunala, beraz ura ireki dun eta bertan zigarroa itzali ondoren, aurpegia garbitzeari ekin dion atzo gaueko orbana hire bihotzetik idokiaz.

Orain heure aurpegia transformatzeari ekin behar dion. Agian hau dun zeregin guztietatik gustukoen duana. Ispilu azpiko kutxatxotik gaztetatik hain maite dunan makillaje estutxea atera dun, irrika berezi batek asetzen hinduelarik. Lehenengo begiekin hasi haiz, arrosa kolorea aukeratu dun eta begia apaintzeari ekin dion, ondoren begietako lerro beltza egin dun eta jarraian errimela eman dun, kontuz, zikindu gabe, izan ere, aspaldikoa dun eta izorratu samarra zagon. Begiekin amaitu eta masailak gorriztatu ditun, lotsati aurpegia ipini nahian, edo agian, itxura gazteagoa hartu nahian. Azkenik ezpainak gorri-gorri ipini eta distiratsu utzi ditun. Azkazalak atzo konpondu hituen, eta nahiko itxuroso daudelakoan, harro begiratu dion ispiluari

eta emakume eder bat ikusi dun ispiluan, edo ikusi nahiagatik ikusi dun soilik.

Zortziak jo diten herriko kanpandorrean, oraindik ordu erdi dun hiretzat eta zer egin gogoetan gelditu haiz une batez, komunetik atereaz batera. Bi aukera ditun, sukaldera joan telebista ikustera eta lanera joan aurretik erlaxatzera edo etxea txukuntzen hasi. Lehenengo aukera gehiago gustatu zain eta sukalderantz abiatu haiz, baina atzera bueltatu beharra izan dun zeren komunean utzi baitun atsoaren dendan erositako Chester zigarro paketea. Sukaldeko aulkian eseri, mandoarekin telebista piztu eta segidan zigarreta erretzeari ekin dion, beharrera joan aurretik. Ez zegoen ezer interesgarririk, baina altxatzeko perezagatik zapping egiteari ekin dion, eta horrela pasa zain denbora, zigarroak banan-banan erretzen.

Ordua iritsi dun zigarroari azken zurrupada sakona ematearekin batera. Luma arrosazko poltsatxoa eskutik zintzilik hartuta irten haiz etxetik, betiko moduan ia. Kale isilean hire takoi hotsak soilik entzuten ditun, baina ez haiz lotsatzen, harro sentitzen haiz heure buruaz, eta irribarre samur bat irten zain nahi gabe, heure aho lehorretik, aitonak txikitan esaten hinduena oroituaz batera, “harro habil, morena, harro…” Kresal usainaren zurrumurrua iruditu zain hire sudurra esnatzen, baina berehala tapatu din kaleko kiratsak. Hamabost minutu hoa kalean ibiliaz eta jada oinak ere nekatzen hasiak ditun takoi finen gainean, baina kalea zeharkatzearekin batera ikusi ditun lana egiten dunen antroko argi gorri deigarriak.

Ateak gizonez lepo, gaurkoa ere astuna izango dun, eta birritan pentsatu gabe, atzeko aterantz abiatu haiz, lehenbailehen hire kamerinoko komunean sartzeko. Hala ere,

sartu aurretik gizon zurbil batek gerarazi hau eta zerbait xuxurlatu din belarrira, hik ez dion kasurik egin eta heure bidearekin jarraitu dun. Gelara sartu aurretik antroko pasilloa begiratu dun eta hi bezalako hamaika emakume ikusi ditun gora eta behera, nerbioak airean, gela batetik irten eta bestean sartuaz. Atea itxi eta komunera joan haiz zuzenean.

Guztiak berdin jarraitzen din, azulejo horiak eta ispilu azpiko zuloak ere bai. Luma arrosazko poltsatxo txikia ireki eta kaxatxo gorrixka bat atera dun hortik. Ireki eta ohiko kokaina dosia hartzeari ekin dion, dena lerroan ipiniaz eta kanuto batez gogor arnastuaz, sudurretik nola igo zainen ohartu haiz. Eskuaz igurtzi eta odoletan hagoenez, zapi zuria zikinduaz garbitu dun. Ispiluari behatu dion berriz, baina oraingo honetan ez dion kasu zipitzik ere egin hire erretratu baldarrari. Jarraian, Chester paketetik azkeneko zigarroa atera dun eta txiskeroa harrapatzen ari haizelarik, antroko jauna sartu dun hire gelatxora. Ohiko moduan zegonan, ilea gominaz beterik eta larruzko galtza beltz estuak soinean, hark ere zigarroa ahoan, baina erakargarri betiere. Ispiluaren aurrean ilea orraztu bitartean gau hartako zereginaren berri eman din, ispiluari hik jaso nahi huen musua bota eta agurtu gabe utzi din hire gela.

Zereginak aldatu gabe dihardute, lehenik barran dantzatzea tokatu zain, guztiak lerdea dariela utziaz eta jarraian ohiko arloteekin gelatxora joatea, laburbilduz, betikoa…

Eta beste egun bati ere eman dion berriz hasiera, eta berriz ere iratzargailuari so egin dion, hire bizia ez dela amets soila ziurtatzeko. Iratzargailua matxuraturik ez badago behintzat, ametsen erreinua aspaldi laga huen, baina ohartu haiz iratzargailu zaharreko orratz herdoilduek martxan dihardutela.

# Yumemi Kobo

Miren Estibaliz Vivanco Ramirez
Lauro ikastola
Loiu

Nire urteak zirela eta, Yumemi Kobo izeneko dispositiboa oparitu zidaten atzenean. Urte osoan zehar gurasoei matraka ematen egotea ez zen alferrikakoa izan! Ametsek pertsonak sendatzeko antzinatik zuten ahalmen kontuarekin hamaika aldiz lepoa bete ondoren, aspertu arte azaldu nien nola Jung-ek argi eta garbi erakutsi zuen haien gaitasuna arazo eta kezkak konpontzen. Esan beharrik ez dago, jakina!, Freud-ek ametsak gizakion sexu-grinaren adierazpentzat jotzen zituela ez niela aipatu ere egin. Azkenik, bigarren ebaluazioaren azterketekin aztoraturik nenbilela eta, Yumemi Kobo aparailu garesti eta berria oparitu ziezadaten konbentzitu nituen. Nahiz eta denbora luzez izandako desira egia bihurtuta ikusi, ez nengoen batere pozik. Ezin ninteke pozik egon, zeren eta nire orpotik eginda zebilela sumatu arren, Mikel ez zen oraindik nirekin berba egiten ausartu.

Zela bere kopeta-ile bihurriarengatik, zela irriño pikaro hargatik edo agian bere Hugh Grant-en izugarrizko antzarengatik, ez nuke jakingo nire Mikelekiko grinaren zioa azaltzen. Hala ere institutuko pasabide batetik gure begiradak elkartu ziren egunetik gure arteko erakarpen-indarra

nabaria egin zitzaidan oso, eta bere alboan jesartzeko nuen amets hura egia bihurtu zen azkenean nire urtebetetze egunean...

Egoera ahoko zulora zetorkidan, irakasleak bikoteari orri bana eman baitzigun, eta Mikelekin irakurtzea tokatu zitzaidan.Testu arraroa zen oso: XVI. mendeko eskuizkribu batean agertutako amodiozko konjuru bat. Hala eta guztiz ere lehenengotan ederki zihoana, guztiz okertu zen geroxeago, irakaslea "Poeta" izengoitiaz ezaguna zen Joan Perez de Lazarraga idazleari buruzko hitz kakajario bat botatzen hasi zenean. Bazirudien Mikelek arreta handiz jarraitzen zuela azalpena, eta irakasleak emandako paperaren gainean apunteren bat edo idazten zuela ikus nezakeen. Nerbioak gibelez gibel nituen, jaramonik egiten ez zidala ikustean. Orduan, leihotik zeharka sartutako neguko eguzki izpi makala zela eta, deskonektatu egin nuen irudimena hegan egiten utziz.

Bat-batean, neure burua aurkitu nuen hondartza tropikal zoragarri baten erdian, Bridget Jones bezalaxe bere egunerokoaren bigarren zatian. Urrutiko urrutian nire enkontrura arineketan hurbiltzen, Mikel begiesten nuen pozez gainezka: gorputz beltzaranduarekin eta bainujantzi ñimiño hura zeramala, erdi biluzik... Baina, supituki, irakaslearen ahots zizkolatsuak esnarazi ninduen, eta nire baitan bildurik egoteagatik jarri zitzaidan lelo aurpegian belarriz belarriko irribarre lotsagarri bat islatu zela kargutu nintzen.

– Lazarragaren eskuizkribuaren poesia prosa baino kalitate handiagokoa da, inolako zalantzarik gabe –ari zen irakaslea, gogo beroz–. Eta amodiozko bertsoen artean, Asparrena, Barrundia edo Langarikako emakumeei zuzenduak gailentzen dira, hala nola, Maria Lopez de...

Nire izena esango zuelakoan, barrena irauli zitzaidan, eta konturatu nintzen begirada guztiak –Mikelena eta irakaslearena barne– nigan josita nituela.

– ... Luzuriagarentzat, Maria Lopez de Luzuriagarentzako bertsoak –jarraitu zuen irakasleak, ene geldotasuna salatzen zuen begiraldi zorrotz bat niri jaurtitzeko etenalditxo bat sortu ondoren.

"Uf, gaitzerdi! Eskerrak izen osoak ez duela nirearekin bat egin, bestela..." pentsatu nuen aringarri. Baina arriskua aldendu zela uste banuen ere, irakasleak artez itaundu zidan:

– Maria Lopez de Lauzirika, hasiko al zara "Adarbakoitzaren konjurua" irakurtzen?

Hugh Grant-ekin hondartzako gozagarriak oraindik dastatzen ari nintzelarik, bat-batean, paradisutik kanporatuta sentitu nintzen. Mikelek, niri begiratu gabe, konjuruaren orria pasatu zidan, non esalditxo bat karabaturik zegoela iruditu baitzitzaidan, baina ez nion jaramonik egin.

Zena zela ere, hasieran atsegintzat jo nuen jarduera, zapla, amesgaizto bihurtu zen. Ozenki irakurtzen hasita, ez nuen piperrik ere ulertu. Hura bai hizketa mordoiloa! Aurrena testuak maiatzean bere laguna galdu eta bakarrik zebilen usatortola bat aipatzen zuen. Ondorenean gizon batek bakardadea eta goibeldurarekin dama bat mehatxatzen zuen. Eta hau gutxi izango ez balitz ere, azkenean dontzeila ikusten zuen adarbakoitza agertzen zen. Hura bai zela azak eta nahastea! Irakurmena amaitutakoan, irakasleak testuari buruzko iruzkina egitera behartu ninduen begirada zorrotz batez.

– Ba...sentitzen dut, baina...ez dut ezertxo ere ulertu –erantzun nion kili-matraka–. Adarbakoitza agertzen dela baino ez…, animalia guztien artean bortitzena…

– Beno, Maria, bada zerbait –esan zidan irakasleak errukiorl. Baina, azalduko al zeniguke, behintzat, damaren agerraldiaren zergatia? –Ez nuen ideiarik ere. Hugh Grant hondartzatik ibiltzen begiztatzen nuen bitartean azalpenaren zatitxo hori galdu nuelakoan nengoen– Tira, Maria!, zein izaten da adarbakoitza harrapatzeko amuzkia? –irakasleak gai berari ekiten zion berriz.

Gogoan atxiki behar da oso jantzita ez nengoela logika kontuetan, baina oraingo hartan arrazoimen logikoa harilkatzen saiatu nintzen: "adarbakarra zaldi mota bat baldin bazen –pentsatu nuen–, zaldien antzeko apetak izan beharko lituzke."

– Badakit! –erantzun nuen erotean perotean– Azenarioa!

Ederra egin nuen! Gelan sortutako zalaparta izugarria izan zen. Nire ikaskideen karkara biziak jolastokian ere entzun ziren. Mikelek ahoa eskuarekin estali zuen barrez itotzea disimulatu nahian. Berotasun itzela aurpegira heltzen zitzaidan bitartean, begiari ertzetik irristaka zerion malkoa kentzeko *klee*n-*ex* bat ateratzen ikusi nuen Mikel.

– Isilduko al zarete behingoz? –galdetu zuen irakasleak gogortasunez– Mikel, argituko al zeniguke, mesedez, konjuru honen esanahia?

Mikelek, ahotsa araztu ondoren, buru eretzi erantzun zion:

– Ustezko formula magiko bitartez egindako amodio eskaera da, maitasun etsiaz jota ez dagoen dontzeila batek adarbakoitza limurtzen duenaren miraria aldarrikatzeko.

Guztiz irrigarri sentitu nintzen, Bridget Jones jai batean untxi-emetxoz mozorrotuta agertu zenean bezalaxe,

eta, tximista demonioan ibilita, apunteak hartzen hasi eta harrezkero ez nintzen paperaren gainetik begiak altxatzen ausartu. Azkenean txirrinak jo zuen. Irakasleak banatutako orria paper-zorroan gorde nuen duintasun osoz. Mikeli txintik ere esan gabe zutitu eta gelatik irten nintzen.

Arratsaldean, jadanik etxean, egoerak ez zuen hobera egin. Asteazkena zen eta ondorioz astebururako atzeratu behar izan nuen urtebetetzearen ospakizuna. Hori zela eta, zoriontzeko telefono dei batzuei erantzun ondoren, lotara joan nintzen lasterka, neke-neke eginda nengoelako aitzakiarekin. Egia esan, Yumemi Kobo izeneko amets tailerra estreinakoz erabiltzeko irrika bizian nengoen. Dispositibo hura erabiliko nuen lehen aldia izanik, fabrikatzailearen argibideak orpoz orpo jarraitzen saiatu nintzen. Aparailua atera nuen kaxatik. Hogeita hamabost zentimetro altuerako kontsola antzekoa zen. Erdigunean, bozgorailuak ezker-eskuin zituen pantaila bat zegoen eta behealdean teklatua. Gau-mahaiaren gainean tresna kokatu nuen, ohearen alboan, eta programatzen hasi nintzen. Argi neukan: Hugh Grant-ekin maite grinaz beteriko gau zoragarri bat igaro nahi nuen. Lehengo egunean internetetik jaitsitako aktorearen argazki bat pantailan sartu nuen. Saiatu nintzen arren, ezin izan nuen hondartzako argazki bat aurkitu eta nire idoloa zuhaitz hostotsuz inguraturiko lorategi eguzkitsu batean zegoen. Aparailuaren argibideek aholkatzen zuten moduan gogoa irudian jartzen ahalegindu nintzen. Leku horrek edozein irudimenezko izakia bizi zitekeen lurreko paradisua ematen zuen, eta bertan zegoen Grant, dotore egindako traje beltzez eta orbaingabeko alkandora zuriz jantzirik, gorbatarik gabe, jakina. Argazkitik zuzenean so egiten zidan begi urdin zoragarri haiekin eta bere deabrutxo irribarrearekin, aldez aurretik nire desirak ezagutuko balitu be-

zala. Amets tailerreko azken urratsa nire fantasia deskribatzen zuten funtsezko hitzak grabatzean zetzan. Ez dakit barrutik kiskaltzen ninduena ozen esatearen lotsagatik edo norbaitek ni entzuten egoteak beldur ematen zidalako izango ote zen, baina hitz gordinak baztertu eta "amodio", "maite-grina" eta "zoriontasun" bezalako izen abstraktuak aukeratu nituen. Ondoren, amets tailerreko usain goxoetako bat txertatu nuen lurrin ihinztagailuan. Oraingo horretan, itxurakeriak alde batera utzita, "sexu harremanak" deitutakoa hautatu nuen zuzenean. Azkenik, dispositiboaren datu-basean nire gogara zeuden giro-musiken artean soinu bat sartu nuen, "Bridget Jones-en egunerokoa" delako filmaren hasieran entzuten zen abestia, hain zuzen ere. Jakin banekien nik hura ez zela lokartzeko melodiarik lasaiena; hala ere nire une hartako aldartea –sekulako umore beheraldia– *best-seller*-aren protagonistarenarekin bat zetorrela pentsatu nuen.

Lotarako prest nengoen. Amets dispositiboak argi arin eta soinu ahulen bidez lo eragingo zidala eta makina aldian-aldian –hurrengo zortzi orduetan zehar eta REM delako loaldi mota batera gertatuz– aktibatuko zela suposatzen zen.

Behin ohean sarturik, eta atzamar dardaratiz hasiera-botoia sakatuz gero, ustekabean nire begiek so egin zioten jarraibideen amaieran letra txikiz zetorren ohartxo bati: "aparailu honek zenbait pertsonekin funtzionatu zuen baina ez guztiekin; egun ikerketa-proiektua besterik ez da."

Ez nekien egitekorik banuen toki hartan baina zuhaitz mardul eta hostotsuz inguraturiko paradisuko lorategi hura ezaguna egiten zitzaidan oso. Lekutan gizon luze eta jaso

baten silueta dirdiratsua nabarmendu nezakeen eta ene baitan zerbaitek esaten zidan nire zain zegoela. Arineketan, lasterka abiatu nintzen bere enkontrura, baina hurbiltzen zitzaidan heinean urrutiko argi printza ahulak argitasun itsugarri bilakatuz zihoazen. “Bai gizon bitxia hura! –pentsatu nuen nire artean– ez doa “normal” jantzirik, eta arraroa den zerbait darama buruan.” Eskumutur bikoitzeko alkandora ingelesa eta urre-koloreko botoiekin apaindutako *blazer*-a zeramatzan dotore jantzitako gizona aurkituko nuelakoan nengoen, baina hura haluzinazioa besterik ez zen. Behin gizaki haren parean egonda bere gorputza elkarren artean zeharo doituta eta errematxeen bidez lotutako altzairuzko metal-xaflez josirik zegoela jabetu nintzen izu laborriz. Kasko eta armadura zeramatzan! Eta hori gutxi izango ez balitz ezpata beldurgarria astintzen zuen eskuineko eskuan mehatxu eginez.

– Arren…, jauna, esango al zenidake non nagoen? –galdegin nion zurtuta eta beldurrez eginda.

– “Ene laztantxo, linda damea, / Euskel Herrian zagoz zu, / jende noblez da lenguajeaz / errege batek pobladu” lkasko barruko ahots metalikoak erantzun zidan.

Egoera hura arraroa inon arrarorik zen. Hala ere, gizonaren erantzuna ezaguna egiten zitzaidan. Deblauki, euskarako azken eskolan landutako gaiaz gogoratu nintzen: “Poeta” izengoitiaz ezagututako Lazarragaren eskuizkribuaren egileaz!

– Aizu… jauna, barka iezadazu berriz ere.… Ez zara, ba, kasualitatez, Joan Perez de Lazarraga izango? –lotsaz galdetu nion, logikak une hartan ere huts egingo zidan beldur.

Ba ez! Jainkoari esker, logikak ez zidan oraingo horretan huts egin. Hura erremedio santua! Zaldunak begibabesa altxatu zuen eta jakin-minez so egin zidan.

— “Ene lindatxo maitea, / berba zuzenak dinozuz, / Larreako jaun ta jabea / begien aurrean nozu.”

Bera zen “Poeta”, bai horixe!, Larrea dorretxeko jauna. Nahiz eta bere hirugarren neurtitzean silaba bat soberan zegoela eta bigarren zein laugarrenaren errimak borobilak ez zirela ikusi, isiltzea eta gizona lausengatzea erabaki nuen ea ezpata ditxosozko hura behingoz gordetzen zuen.

– Jauna, ahal bada, jakin nahi nuke noiztik nora zu bezalako poeta bikainak halako ezpata daraman, ezaguna baita armak letrekin gaizki konpontzen direla –esan nion arian ezarian.

– “Adarbakoitza umiliatzeko, / eben nago, ene perlea, / ezpatarik ia ez dot beharko, / amua dau ene aurrean” –erantzun zidan ezpata pixka bat jaitsiz.

Tontorka nengoen jadanik gizon horren lelokeriez. Zeharretik irteten hasia zen bertsotxo ditxoso haiekin. Bestela, zeri, zertara zetorren adarbakoitza aipatzea eta amua bere aurrean zegoela esatea?, bere aurretik ni bakarrik nengoen eta! Bat-batean, apatx-hots harrigarria entzun zen urrutian zaldi-andana bat hurbiltzen egongo balitz bezala. Joan Perez de Lazarragak kaskoaren begi-babesa jaitsi zuen, ezpata altxatu eta ernai jarri zen, norbaiti buru egiteko prest. Ostertza begiratu eta orduantxe ulertu nuen dena. Ene bada, nolako bihotz ondokoa eraman nuen! Hauts hodei baten erdian zuzenean lauhazka zetorkidan zaldi zuri basati eta ederra bekokian adar helikoidala zeramala. Behingoan, konprenitu nuen adarbakoitza harrapa-

tzeko amua ni neu nintzela: “maitasun etsiaz jota ez dagoen dontzeila”, Mikelen esanetan. Hotzikara batek bularra trabeskatzen zidala sentitu nuen adar zorrotzak geroagoan egingo zidanaren moduan. Dontzeila nintzen, bai, baina elkarri ez erantzuniko amodio batek apurtutako arima zuen dontzeila! Adarbakoitzaren begi urdinak jadanik nabaritu ahal nituenean, eta nire bularrera bideratutako helize formako adarra airea zulatzen ere entzun nezakeenean, begirada erregutzailea zuzendu nion Larrea dorretxeko jaunari, baina ene etsipenerako, beste zentzugabeko erantzun bat jaurti zidan:

– “Adarbakoitza konjuruaren berbetan / topaduko erremedioa zure peneak.”

Yumemi Kobo-ren argi mehe eta melodia eztitsuek poliki-poliki bueltatu ninduten errealitatera. Pitinka-pitinkako iratzartzea izan arren, artega nengoen oraindik eta bihotza zalapartaka nabaritzen nuen. Hala ere, ondo baino hobeto gogoratzen nituen Larrea dorretxeko jaunaren azken hitzak. Zer demontre esan nahi ote zuen bertso haiekin? Bihozkada bat izan nuen halako batean. Lasterka abiatu nintzen paper-zorroaren bila, eta esku dardaratiez hartu nuen euskarako irakasleak banatutako eta Mikelek esku-artean izandako orria. Tenore horretan barrena guztiz irauli zitzaidan. Adarbakoitzaren konjuruaren parean erdi zirriborraturiko bi lerro agertzen ziren: “Maria: ez dut uste konjuru hau beharko dudanik zurekin maitemindurik nagoela esateko. Mikel.”

# M

Alvaro Atxutegi Sarrionandia
Urritxe-Zornotza institutua
Amorebieta-Etxano

Zakila astindu ostean, ohean etzan eta musika jarri zuen. “Aquellas pequeñas cosas”, tipo katalan xelebre batena, Ketama-k abestua. Eskumako altabozean zegoen gurpiltxoaz bolumena jaitsi zuen: hamabi t’erdiak ziren, eta auzokideak nagusi samar.

Barnea hutsitu ondoren Anagatik sentitzen zuen beharrizana desagertu egiten zen guztiz. Hortik ondorioztatzen zuen amodioa, beretzat, existitzen ez diren sentimenduak mozorrotzeko hitza baino ez zela.

Beldurra ematen zion haurtzaroko lagunarekin oheratu eta gero ihes egiteak, ikaratu egiten zuen bere irakasleaz maiteminduta egoteak.

Azken finean, hori zen arazoa. Oreka perfektuan bizi izan zen ordurarte, distantziak ematen duen ziurtasunean errege. Eta bat-batean ohean zegoen etzanda, guztiz bakarrik, sabaira begira eta urduri, albo bietara joan-etorrian, behin eta berriz folio berberean eskutitz madarikatua berridazten, hitzak desagerraraziz boligrafo beltzak sortutako itsaso uniforme, amorfo, txiki, sikuen azpian.

Eta gizakiok ildo orori buelta lar ematen diogula pentsatzen du. Azken finean, sexu hutsa da. Irakasle gelan egiteaz aspertuta? Zoaz komunera. Istorio polita izan zitekeen, agian: hamar urteko ezberdintasuna, umetxo bat umeen begirada berezia duen maistrarekin, amodioaren pasio-hastapenak.

Zeren erlazio guztiak hasten dira grinaz, esan dio bere buruari. Bai, fisikoak batzen gaitu eta denborarekin ohiturari maitasun deitzen diogu eta egunerokotasunaren ñabardurei sentimendu.

Beti errealitatearen apaindura, hitzen jokoz eraikitako ilusio-gazteluak.

Gazte naiz eta gazteago nintzen dena gertatu zenean. Etorkizunik gabeko poeta eta Batxilergoko ikasle, zenbakiak batu, biderkatu edo zatitzea suposatzen zuen guztiari beldur ziona, azken hileotan kilotxo batzuk loditua baina ikus onekoa, nire miopiari misterio kutsu bat atxikitzen saiatzen nintzen.

Duela urtebete erositako betaurreko modernoak kendu eta nekadura keinua egiten nuen, eguneko objektiboari begirada pausatua, landua, kasuala eskainiz. Neskak arin alboratzen zuen aurpegia, baina errez –eta arin– igar nezakean zein izan behar zuen emaitzak eskainiko zizkidana. Nerabezaroko joko sinple, ulergaitz, sakonak: basatiak.

Orduak igarotzen genituen horrela, klase kideok euren estrategia bereziak garatzen zituzten bitartean.

Ezer ez da betiko. Abestiak dio. Agertu zenean hogeita bi urte zituen, ume irribarrea, tristuraz betetako begi alaiak, aurpegi liraina, aho txiki eta gorputz hauskorra; institutuko bata berde zatar batekin ezkutatzen zituen lotsaren agerpen guztiak.

Ahotsaren doinu kantariak nahitaezko irribarrea eragiten zuen ikasleengan, eta guda edo hitzarmenetaz ziharduenean, guri axola zitzaigun gauza bakarra bere ezpainek airean egiten zuten mugimendu sentsuala zen. Denok amesten genuen abenturaz erabat: nire burua imajinatzen nuen Mauritanian, hondartza batean, sutea eginez, itsasoari so, hamar mila izarretako hotelean galduta biok.

Utopikoak, hezeak, umekoiak ala erromantikoak; ametsak amets ziren beti, institutu zahar hartaz haraindi aurkitzeke zeuden istorio sinesgaitzik imajinatzen ahalbidetzen zigutenak.

Okerrean egon naiteke, baina uste dut negu hartan, benetako irakaslea bere hanka apurtuaz gora eta behera zebilen bitartean, denok sentitu genuela gauza berezirik gure ordezko irakasleagatik.

Mendi guztiak zuri: Arrasatetik Arratiara, hegoaldetik babestuz eta itsasoaren zaindari. Elurra eta hotzaz aparte, egun eguzkitsuak dira martxo hasierakoak, eta amodioaren erritmo musikalenak, alaienak sentitzeko aproposak. Musika tristea izan baitaiteke, baina hori du amodioak: doinurik ilunena ere bilaka dezakeela bizitzako gazi-gozoak anekdota huts bihurtuz. Nekaturik, erdi lo, tarteka burua besartean galduz eta logurak gogaituta idazten jarraitzen du. Urrunegi duen argi zuria, idazmahaian: berogailua piztu du goizaldeko dardaretan ez nahasteko.

Niri tokatu zitzaidan. Ahalegin handirik egin gabe, saiakuntza leloak eta ordu luzeak; egoera aldatuz joan zen, eta bost urte esaldi honetan ezabatu daitezkeen faktore bilakatu ziren, honela: 23-18= 5. Bost

Azterketa baten zuzenketa behatzen, garrantzirik gabeko galdera bat aitzakia bilakatu zitzaigun: begietara zu-

zen lotuz, minutu luze batez egon zen. Lotsaz, bere zapatei erreparatu nien: zuri-beltzak, gazteak.

Klase egun bat amaitzean argiak amatatu eta soinua joanda, hutsean galdurik, korridorean elkarren kontra jo eta ezpainek egin zuten eztanda: istripu hutsa, maitaleen arintasuna.

Irakasleen gelan, komunetan, atsedenaldiro; asko maitatu ginen: arin, astiro… ondo batez ere. Amaiera aldez aurretik ezarrita duenaren premiaz, txarto eginiko gauza denaren irrikaz, dena ezkutatzearen emozioaz.

Apirila heldu eta joan egin zen: bero handiko egun baten ahaztu nuen. Horiek guztiak kontatzen dizkizut, Ana, bizitza ziklo hutsa dela diozulako, eta amaierarik ez duten gauzek, etengabeko errepikapenak, beldurtu egiten naute.

– Julen, badakizu zer uste dudan? Horrelako gauzak ezkutatu egin behar direla, gehiago disfrutatzeko. Bai, bai. Zurriola zubian geunden biok, ibairantz begira, itsasoa atzean; aurreko gauean bizi izandako jaiaz mintzatzen, lagunei zer esan eta zer ez esan gora eta behera. Badaude berez isilekoak izan behar duten gauzak. Bai, betirako, edo gutxienez amaitu ostean ondo ulertu ahal izateko denbora aski. Ez da konfiantza kontua baina… Gertatutako zerbait inoiz inori aitortzen ez badiozu, zugan izango duzu, eta irudimena kitzikatu egingo duzu, oroitzapen bat oroigarri bihurtuz. Eta igual oraintxe bertan urteotan aitortuko ez dizudan erokeria bat dut buruan, eta hori da sekretua: kontatu ahal izatea eta ez egitea, oroimenaren gatibu mantentzea.

Bera nuen buruan.

# Mugagabearen mugatasun irreala

Ane Badiola Ostolaiz
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Ezerezaren babes hutsa eskuaz agurtuz, noraezaren garraztasuna hartu duzu habiatzat, une batez bederen, libre izateko.

Kotxeko giltzak hartu eta etxetik irten zara, zer eginik ezean, bizitza desafiatzeko asmoz.

Kalea zapaldu orduko lagun zahar batekin egin duzu topo, askoren gustuko ez den aspaldiko adiskide batekin. Negua da. Aurtengoan ere sasoidun ageri da, ohi duen zakartasuna paisaian islatuz. Eguzkiaren epeltasuna bortxatuz, haizearen hoztasuna hartu du mailegutzat, lauzpabost hilabetetan egunerokotasunaren borrero bilakatzeko asmoz. Ur tanta xume batzuk isuri ditu ortzi mugagabearen mugatasun irrealean zehar, eskura duen boterearen adierazgarri gisa edo. Bere krudelkeriaren fruitu den ezinegona sentitu eta hasperen egin duzu, bide batez, barnea hustu nahian. Sumintzearen ordez, irribarre ttipi bat eskaini diozu urtaroari, ona den lekuan txarra ere agerian dela dioen teoriaren eraginkortasun eskasean fidatuz.

Txano beltzaranaz burua estali eta eskuak patrikan sartu dituzu, bizitzak eskaintzen ez dizun goxotasun faltsu

hori aurkitzeko esperantzan. Astiro zoaz kotxerantz. Aire hotzak aurpegia ferekatzen dizu, haizeak begiak itsutu. Mantso zoaz hala ere, pauso geldoan. Ez duzu inolako presarik.

Munduaren erdigune sentitu zara bat-batean. Denboraren orratzekin jolasean, haizearen solasaldian ipini duzu arreta, zure belarrietaraino eroaten duen euriaren xaramelaz gozatzen duzun artean.

Guardasol gorriaren laguntasuna miretsi duzu. Erruz maite duzu eskaintzen dizun segurtasuna, babesa. Makilatxoa laztanduz itxi egin duzu. Blai eginda dago gajoa. Euri tanta bihozgabeen aurkako guduan galtzaile atera da oraingoan ere, garaipenean garaitu, euriak haizea baitu aliatu, haizeak, berriz, hotza.

Elizako kanpai hotsak izan dira neguaren isiltasuna apurtu duten bakarrak. Isiltasun zaratatsua aiztoaz ebaki dute, bere bakardade itogarriarekin dantzan dabiltzan bitartean. Zazpi kolpeek oihartzuna eragin dute txoko guztietan. Goiz da oraindik.

Bizitasunez itxi duzu autoaren ate urdina, hoztasun dolugarriak kotxeko epeltasuna irents ez dezan. Berogailua esnatu eta hark ziztu bizian ekin dio beharrari, segundo gutxi batzuen baitan beirak lausotu baitira.

Gozamenaren eskuetan erori zara ziplo. Herrestan bada ere zabaldu dituzu larregi miresten duzun errainuko ateak, ukitu, lasaitasunaren altzora gerturatuko zaituen olatuaren bitsa.

Ongizate horri eusteko asmo soilez irratia piztu duzu. Malenkonia bilakatu da datorren minutuetako borrero, negar malkoak haien gordelekuko zirrikituetatik ihes egin eta

zure bihotzaren kutxaren batean ostatu hartu duten aldi berean. Urduri jarri zara, eskuak izerditu zaizkizu. Kristalezko malko gardenen ezinegonaren fruitu, ahul sentitu zara, nakar. Negar tanta batek talka egin du zure masailean, Txomin eta Urbil Artolaren *Aberriaren mugak* kantuak eragiten dizun hotzikararen seinale. Malko garden batek biltzen duen kolore-aberasgarritasunak liluratu zaitu. Gardentasunak ere badu kolorea, ez dago hutsik. Agerian ditu bere sumintasuna, samina, berotasuna, nekea, ezina, gorrotoa, mesfidantza… Guztia poltsatxo batean.

Eskuaz aurpegia idortu eta segurtasun uhalaz babestu duzu gorputza, bizitza bost zentimetro baino gehiagoko zabalerarik ez duen kordel soil baten esku utziz.

Tentuz sakatu duzu azeleragailua, motorrak atera duen kirrinka hotsari arreta berezirik ipini gabe. Argiak pizteaz zeharo ahaztuta zinela ohartu eta azkar izeki dituzu fokuak, gaurkoan ilargia ez baitago otsaileko ostegun gordin bat argitzearen aldarteko.

Egun ederra oso gidatzea atsegin duen ororentzat. Une honetan bertan zure moduko pertsonaren bat inguruko errepideren batean ibil daitekeenaren gogoeta luzatu duzu. Agian bada neguaren erraietan barrena noraezean dabilen ameslariren bat, ezereza arrazoi, zoriona xede eta bizitza garraio duen ameslari sutsuren bat. Errepideak hutsik daude ordea. Inor gutxik eduki du bizia patuaren eskuetan uzteko ausardia.

Autoaren noranzkoa finkatu eta kolore gorria bilakatu da zentzuaren mugarri, semaforoak ibilbidea oztopatu baitizu. Maiz geldiarazten zaituen arren ez duzu saihesten, dagokion irlara ailegatu ezinean dabilen naufrago orok lantzean behin behar baitu burua argitu eta irreala erreal bilakatzeko beta.

Zutabe argidunak gorri bizia laga eta orlegia eskuratu duen unean martxaz aldatu eta aurrerantz egin duzu, zementuaren azalean sorturiko ur putzu zikinen izatea gurpil lodiez gutxietsi eta ur malkotan birrinduz. Haizetakoaren abiadura gutxitu duzu, hodeiek galdu baitute haien belztasuna. Atertu du euriak.

Altxorraren jolasa etorri zaizu burura, ezkutuko mezuen bitartez altxorra aurkitzean datzan jokoa. Xede ezezagun baten bila dabil jokalaria oraingo honetan, inolako pistarik gabeko ikerketaren emaitza topatu nahian. Bihozkada bat eduki duzu, bihozkada sakon bat, ez dakizu zer esan nahi ote duen ordea. Aintzakotzat hartuko duzun itaundu diozu zeure buruari, ezetz ihardetsi dizu. Behingoagatik bederen, zentzuak diona ahantzi eta senaren gerizpean eseri zara, eltzean borborka dabilen emozioari begira.

Zirrararen gatibu, zigarro bat eskuratu duzu, segidan, piztu. Keak ikusmena lausotu dizu. Sabaitik zintzilik duzun amuletoari so aharrausi egin duzu, zeure buruari loak bere setazko maindire gozoaz zu estaltzeari ekin diola ohartaraziz.

Bide erdian kokaturiko muinoek abiadura mantsotzearen premian zaudenaren abisua pasa dizute, larregi maite baituzu abiaduraren mugak bortxatzea.

Badakizu zer edo zer gertatuko dela, zerbait potoloa, handia. Maitasunak bere oskola apurtu eta zure bihotzaren atea joko du beharbada, edo, txori bihurtu eta hegoak zabalduz hodeien artean jolas egingo duzu agian. Argi dagoena zera da, garrantzizko jazoera bateko jujari izango zarela. Gogoetaren eraginez suspertu eta lokarri urdinaz bilduriko txirikorda solte utzi duzu, ile beltzarana astinduz, bere harrotasuneraino eroanez. Hori egiten duzu urduri zauden bakoitzean.

Irratiaren bolumena igo duzu. Xalbador zenaren *heriotza* kantuak baretu du Su ta Garren *Jo ta Ke* abestiak sortu duen giro zakarra. Heldu zara auzoko biribilgune nagusira. Pare bat bira eman dituzu kaleak eskaintzen dizkizun aukera ezberdinei so. Bizitzak sarri behartzen zaitu erabakiren baten inguruan birak eta birak ematera, bide ugari hautagai eduki eta bakar bat hautatzera.

Alde zaharrerantz eroango zaituen bidexkarantz zuzendu duzu autoa oraingo honetan. Zergatia? Jokabide horren zergatia galdetu diozu zeure buruari eta honek isilune garratz batekin erantzun dizu. Seguruenik itsasoaren kantu goxoaren lekuko izatearen irrikagatik gerturatu nahiko duzu kaira, itsasertzeko olatu bortitzengatik beharbada edo portuko itsasontzien presentzia prestuagatik agian.

Pare bat minututan sartu zara kale nagusian. Aurrez aurre duzu gabonen etorrera aldarrikatzen duten apaingarrien indarra. Ehunaka dira herriaren txoko eta bazterrei berotasuna eskaintzen dieten argitxoak. Makina bat kolore, makina bat ilusio. Koloreek ilusioa ala ilusioak kolorea sortzen duten galdegin diozu zeure buruari. Espero bezala ez dizu erantzunik eskaini eta gogoeta alde batera utzi duzu.

Kotxeko gurpilek ezkerrerantz egin dute, bolantearen esklabo, bere aginduen itzalpean. Denda bateko merkealdietako kartelak bereganatu du zure arreta, erositako produktu orori %50eko beherapena ezarri baitiote saltzaileek. Gizartearen gehiegizko kontsumoa salatu duzu, progresoaren hatzaparretan tokia eskuratu nahi eta atzean geratzen ari den gizarte atzerakoiaren gehiegizko kontsumoa.

Adorea aloger, martxaz aldatu eta itxaropentsu igo duzu portura gerturatuko zaituen aldapa. Autoa zaharra

izaki erruz kosta zaio tontorrera iristea, eskura dituen urteek bai baitute beren zama.

Ase sentitu zara gora iristerakoan. Mendizale batek tontorra ukitu eta inguruko paisaia miresten duen unean sentitzen dituen zirrara eta zorionaren sentsazioak bizitasunez dabiltza zure zainetan barrena. Oraingo honetan portuko itsasontzi eta ur gardenak izan dira lautada eta basoen ordezkari.

Espaloiaren ertz batean egin diozu kotxeari habia. Giltzak eta mugikorra eskuratu eta bufandaz inguratu duzu lepoa, gudu batean zenbaitzuetan aliatua dena arerio bilakatzen baita besteetan.

Oskorriren *Ostatuko neskatxaren koplak* eskuratu dute zure pentsamenduen tenpluko jabegoa. Arras ederrak dira, erruz atsegin dituzu.

Ez dira asko portuan dantzan dabiltzan ontziak. Akaso arrantzara irtenak izango dira besteak. Marinelez horniturik itsas sakonean ibiliko dira seguruenik, gau ilunean naufrago, beren izateari gogoz eutsiz.

Kaian barrena zoaz leunki. Azkenean ilargiak bildu du hodeien artetik irten eta ortzi monokolorean mugarri bilakatzeko ausardia. Heldu zara arroketara, urrunetik ihesi datozen olatuek beren askatasuna erosten duten lekura. Harrien aurka talka egin eta zipriztin soil batzuetan birrintzen dira, modu batez, beren izateari uko egin eta arima libre uzteko asmoz.

Zakar dago itsasoa gaurkoan.

Halako batean, beirazko botila baten presentzia sumatu duzu olatuen bitsaren artean. Altxorraren jolasean garaile

izan eta eskuratu duzun saria izan daitekeela sinestarazi nahi izan diozu zeure buruari. Portuko eskailera zaharrak jaitsi dituzu, ilusioaren adaxkei gogor eusten diezun aldi berean.

Botila hartu eta eskaileran eseri zara. Heze dago. Tortotxa kendu eta barrualdeari so geratu zara. Emozioak itxi du bere iturria. Antza denez, zorteak ez du zure tren bereko txartela erosi, ez da zure geltoki berean gelditu. Film gehiegi ikusi dituzulakoan zaude. Botila barnean paper zati bat aurkitzea espero zenuen, mezu zirraragarriren bat. Hutsik dago ordea.

Txanoa buruan duzula eskailera duzu eserleku, zalantza itzal, itsasoa paisaia. Dirudienez gaurko abentura iritsi da bere amaierara. Noraeza izan du oinarri, bizitza garraio, ezereza xede, esperantza bide, etsipena malda, itxaropena zubi, zalantza bidegurutze.

Beheko eskailerari so gelditu zara. Kopla bat du izkiriaturik; kopla urruna, urruna bezain hurbila. Hasperen egin eta hitz gozoen garraztasuna aske utzi duzu, haizearen erraietatik at, hipokresiaren mugetatik haratago bidaliz. Badoaz, badoaz.

*"Ibaia dator uholde*
*haizea uraren golde*
*euskal andra gizonen odola*
*ez da isuriko debalde".*

# Esne berotan biguntzen diren gaileta lehorrak

Olatz Mitxelena Larreta
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Jada herdoilduta dagoen giltza ate zaharreko sarrailan barneratu dut. Giltza pixka bat jiratu eta sarraila zaharraren kirrin-karran hots herdoila entzun ahal izan dut, tabako pakete erosi berritik ateratako zigarroa piztearekin batera. Indarrez eutsi dut zigarroa eskuin eskuko hatz artean ezpain lehorretara inguratuz eta zupada luze bat eman ondoren, hankak etxeko zoruan kokatu ditut ezkerraldean dauden eskailera ilunetara hurreratuz. Etxeko lizun usaina estaltzearren, gogoz zabaldu dut biriketatik bueltan datorkidan kedarra; auzoko supermerkatutik erositako bainila usaindun intsentsua bainintzan, bazterrak usaingozatzen. Eskailerak salto batean igo ditut, pausu bakoitzeko bizpahiru eskailera maila batera igoz. Laugarregoan, ia erori naiz muturkatuta.

Elizako kanpaiek urriaren hogeita zortzigarrenak bere azken minutuak xahutu dituela iragarri dute kale zokora daraman ganbarako leihotik begiratu dudanean; gau iluneko izarrak txalapartaren gisako erritmoaz dantzan jarriz. Eta nire buruaren karga ezker eskuko ahurraren gainean erortzen utziaz, luzaro egon naiz leihoaren kristal hautseztatutik haratago so; kale kantoian dagoen farolaren argi-

pean dantzan dabilen mitxoleta bikotearen koreografiari erreparatuz, tarteka, zigarroaren kea ene baitara sartzera gonbidatuz. Kalean, beheko whisky usaindun tabernako musika hotsak hausten du herriko isiltasun gustagarria, betiko agure zahar erromantikoaren betiko piano zaharraren betiko doinuez. Eta teilatu gainean paseoan dabilen katu ar malenkoniatsuak, bere bakardadearen errudun bakarra kale izkinako zaramontzi artean miatzen ari den kateme gris lodikotea dela salatzen dihardu. Kateme lodikoteak, berriz, “marrauuu” afoniko batez erantzuten dio.

Arrotza egiten zait ilargiaren distira misteriotsuaren eta katu bikotearen elkarrizketaren lekuko bakarra izatea, eta horregatik, korrika batean jaitsi naiz alokairuko etxe zaharraren pasillo luzera. Lurrean zabalduta dagoen larruzko zamarra estiloz jantzi eta ispiluaren aurrean jarririk atzamarrekin ilea orraztuz, bizarreko ile bakanak pare bat aldiz laztandu ditut, errealitatearen leiho zaharrean asebetetze zantzua islatuz. Atera hurbildu naizenean, oroitu naiz dirurik ez daramadala eta, badaezpada ere, bi alboetara begiratu eta inork ikusten ez nauela ziurtatu ondoren, persiar alfonbraren imitazioaren azpitik hamar euroko billetea eskuratu eta galtza bakeroen atzealdeko patrikan sartu dut ahal bezainbeste zimurtuz. Bi eskuen laguntzaz atea irekitzea lortu eta kanpora atera naizenean, berriz ere barrura sartzeko gogoa eman badit ere, noizbehinka haize hotzaren konpainian paseatzeak kalterik egiten ez duela dioen teoria onetsi eta oinezkoen kalean aurrera abiatu naiz.

Kaka zaharra!!! Zakur madarikatuaren koskabilo madarikatuen kaka egiteko gogo madarikatua!! Falta zitzaidana... seguru nago aldameneko bizilagun maniatikoaren txakurra izan dela!

Oraingoan, zakur kaka zapaltzeak zorte ona ematen duela dioen teoria onetsi beharko dut... Zer erremedio!

Kalean ez dabil mugimendu askorik eta nik ere larunbat gaueroko mozkorraldia harrapatzeko gogo gehiegi ez daukadanez, lasaitasunaren esplotatzaileez eta garagardoz gainezka dauden tabernak albo batera utzi eta beste lekuren bat aukeratu beharko dut; garunean izugarrizko kaosa korapilatuko baitzait bestela. Burura datorkit, arratsaldero, unibertsitatetik bueltan ikusten dudan kafetegia; nahiz eta itxura erakargarririk ez izan, badu xarma berezirik ospitale itxurako lokal hutsak. Gainera, horrela, esku hotz hauek berotzeko aukerarik ere izango dut.

– Gabon! ...

Paretetan egin duen oihartzunak erantzun dit, lehor. Atso zahar parea dago lokalaren hondoan mahaian jarrita, eta bietarik zaharrena dirudienak agur antzeko bat egin nahi izan du begirada azkar batez, kristal trinkodun betaurrekoen babespetik. Besterik ezean, barraren aurreko aulki hanka luzedun luzeetan luzeena aukeratu eta bertan eseri naiz, oinak aulkiaren euskarrira igoz. Sukaldea dirudien lokaletik zurrumurru bat entzun ahal izan dut, eta segidan, bekatuaren neurri exaktuak dituen neska gaztea agertu da, mendiko artzain galduari Ama Birjina azalduko litzaiokeen antzera. Hori da hori gorputza eta a zer nolako ibilera; ipar poloko izotz guztia urtzeko modukoa. Takoi finen gainean altxatzen diren hanka ederrei izter ezin lirainagoak ematen die segida; aldakak, minigona batez nabarmenduak, perfektuegiak; zilborra, bere kiribiltasunean zorabiatzeko modukoa, eta pare bat botoi loturik dituen alkandora zuriaren atzean erdi ezkutuan, erdi agerian dauden bularrak... zertarako pelikula por-

noak hau ikusterik izanda! Bizkarrezurra, muinetik hasi eta lepo ondoraino, zeharkatu didan halako hozkirri zirraragarri bat sentitu dut, behin eta berriz, neska gaztearen begitzar beltzekin topo egin dudanean. Hau ez da posible... honek amets erotikoa behar du izan; ezin liteke bestela.

– Gabon zuri ere, zerbait hartu behar al duzu?

Akabo nire amets erotikoa! Edota, ametsek doinu samur eta arrosa usain erogarria izan dezaten lortu du dagoeneko teknologiak? A zer burmuineko anabasa... kafe bero baten kafeina ttantta bakar bat, eta hemen beste “big-bang” bat doa...

– Esne bero bat mesedez...

Azkeneko irribarre faltsu hori soberan egon da agian...? Esne beroa esan al dut? Nork agindu ote dit niri gaur etxetik ateratzeko! Noiztik sartzen zaio bati esne beroa larunbat gauean? Hobe izango dut, hasteko behintzat, zamarra eranztea gauzak gehiegi berotu ez daitezen. Galtza bakeroetako poltsikoetan zigarro paketea aurkitu eta zigarro bat eraman dut ahora kea sutsuki barneratuz ene baitara, eta grinatsu baten moduan jarraitu dut bata bestearen atzetik erretzen.

Berehalakoan, kafe egin berriaren usain freskoa sartu zait sudurrean barrena, goizeroko nire kafe hotzaren mikaztasuna gogora ekarriz. Eta jarraian, edertasunaren erreginak –edertasun neurgaitz hori nolabait izendatzearren– altzairuzko erretilu apainean gerturatu dit katilukada esne beroa gailleta lehor batzuen konpainian. Bat-batean, zerbitzari izatetik bezero izatera pasa da, barraren barneko aldetik kanpoko aldera igaroz. Eta nire aldameneko aulki

hanka luzearen gainean hartuaz atseden, kafe beroa gordetzen duen katilua bi eskuez babestu du. Goxo-goxo, poliki-poliki, plastikozko koilaratxoaz azukrea kafean nahasteari ekin dio, zurrunbilo bare eta lasai bat eratuz azukre ale guztiak bere baitara irentsiz; beste eskua kafe beroak sortzen duen berotasunaz epeltzen duen bitartean. Nik, berriz, bihotzeko krisi posibleaz arduraturik, odolaren joan-etorri ezin bizkorragoa oztopatzen duen gorputzeko koipe oro madarikatzeari ekin diot, esne berotan biguntzen diren gailleta lehorrak irenstea ezinezko helburutzat joz. Beraz, gailletak albo batera utzi eta esne beroa edan dut, zerbait egitearren. Neska gazteak, perfekzioaren eskultura ere deitu diezaioket, hankak estiloz gurutzaturik dituela niri begira jarri eta begirada limurtzaile bat luzatuz, katilua ahora inguratu eta tragotxo bat eman eta gero, bere gorputzean kafearen ibilbidearen nondik norako guztiak xehetasunez azaldu dizkit. Ahotik eztarrira, eta eztarritik, astiro-astiro, urdaileraino. Oraindik kafea bukatzeke, ezker eskuko behatz finekin nire eskuin eskua topatu, eta, lotsagabe, fereken eta laztan goxoen jostetari ekin dio. Berriz ere, bizkarrezurrean gora hozkirri bat nabaritu dut, eta beste bat, eta beste bat... Elkarren atzamarrak erdi kateaturik, bere eskuaren hotzetik eta nirearen berotik, epela sortu da. Begiradak gurutzaturik, arnasa totelduta... izerditan hasi naiz. Neska aulkitik jaiki eta nire begien kliskada begi bistatik kendu gabe, ni ere aulkitik jaikiarazi eta eskuen fereken jostetari etenik egin gabe, barraren barneko aldera igaro gara, astiro-astiro, mantso-mantso, eta jarraian, sukaldera. Atea itxi eta sukaldeko horma zuriaren kontra jarriz bizkarra, ezker eskuaz neska gerritik heldu eta nigana lotu dut, sutsuki besarkatuta, eskuen eta ezpain hezeen laztanen bidez batak bestearen gorputzaren geografiaren ezagutzari bidea eginez. Lepo ondoko musuetatik hasi eta belarriaren

forma perfektuaz erakarririk, koska txikiak egin dizkiot, atzamarrak ile beltzaranean nahasturik. Irribarre egin dit. Eta jarraian, lurrean etzan, eta amodioaren pentagrama gosetia nota kitzikagarriz janzteari ekin diogu. Musuak eta laztanak eta hasperen nekaezinak... eta hasperen nekaezinak.

Sinfonia polita sortu dugu azkenerako, baina bukaera nahi baino azkarrago iritsi da. Bat-batean, ahots gozo batek urratu du sukaldeko berotasuna; amodioaren sinfoniari amaiera drastiko bat emanez.

– Gabon! ...

Paretetan egin duen oihartzunak erantzun dio, lehor.

Azkar batean, neska lurretik jaiki eta udazkenean zuhaitzetatik eroritako hosto lehorrak baliran lurrean barrena zabalduta dauden arropa apurrak janzten hasi da. Nik ere, artean ezer ulertu gabe, berdin egin dut. Sinfoniari azkeneko notak gaineratuz, presazko musu eta laztan gozoak banatu ditugu alkandora zuriari pare bat botoi lotuaz, bularrak erdi ezkutuan, erdi agerian uzten dituen bitartean. Eta galtza bakeroak arrastaka ditudala, kontuz-kontuz, minigonaren kremaileratxoa igo diot, bere izterrondoen umeltasuna nabarituz. Botak eskuan hartu eta neskaren behatz erakusleari jarraiki, sukaldearen atzeko aterantz abiatu naiz korrika batean. Bitartean, neska, ilea txukundu, eta barraren barrengo alderantz desagertu da ipar poloko izotz guztia urtzeko moduko ibileraz.

Kalean hotz egiten badu ere, bakarrizketan diharduten zuhaitzen konpainian, galtzak arrastaka eta botak eskuan hartuta, portu zaharrera hurbildu naiz. Eta bere bakarda-

dearen errudun bakarra zaramontzi artean miatzen ari zen kateme gris lodikotea zela salatzen ziharduen katu ar malenkoniatsua gogoan, irribarreak egin dit irrist. Egurrezko banku batean etzan, eta izarrei begira jarririk, olatuen murmurioak esan dit portuan kulunkan dabilen batel zaharraren bakardadearen errudun bakarra, portu zaharreko tabernan galdurik dabilen marinela dela.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# MMS eta hiruretatik ilargia

Julen Setien Arrue
Aita Larramendi ikastola
Andoain

*Menú, Mensajes, MMS, Crear nuevo:*

*Introducir imagen,*

Irudi hauek margotuko ditut ene begiekin:
Zuregandik inoiz sentitu ez ditudan laztanen
itzala,
ferekatu gabeko gorputz biluziaren
hegia,
lanbroturik diren begien malkoen
dizdira,
ezpain txiki suhar horien
umeltasuna,
behin egin zenidan ñikaren
hiltzekada,
zure irribarre bihurriaren
epeltasuna,
begirada lizun nahasgarri horien esanahi
xamurra,
nire lotsak sortzen didan amorruaren
ekaitza,
zuri "maite zaitut" esateko nire ezpainek duten izuaren
samiña,
gure ipuin hau nola bukatuko den jakiteko dudan irrika
bizia,
goibel naizenean malkoak xurgatzeko hor egongo ote zaren dudan jakinmin
balaztaezina
zuregan bizi-poza sortzeko dudan
grina

*Introducir sonido,*

Soinu hauek biziaraziko ditut ene irudimenarekin:

Agurtzeko erabiltzen duzun doinu
leuna,
bion arteko mingain-jolasen melodi
eztia,
zu ikustean bihotzak ematen didan mailukadaren
danbada,
desiratzen ez nauzula pentsatzeak sortzen didan
garrasia,
bion arteko gau bero batean zure arnasestuaren plazer
oihua,
zu ezagutu ez izanagatik nire bihotz taupaden
isiltasuna,
gu biok hain gustuko dugun taldearen abesti
hunkigarria,
nire burutapen batengatik barre egitean sortzen duzun algara
arduragabea,
belarrian putz egitean konposatzen didazun kantu
lasaigarria,
zu besarkatu gabeko gau bateko kilkerren
ereserkia,
maite zaitudula esatean nire ezpainen dardarraren hots
saihestezina

*Enviar MMS,*

*¿Desea enviar el mensaje multimedia?*

*Aceptar*

*¡Mensaje enviado satisfactoriamente!*

## Hiruretatik ilargia

Nik olatuak ditut maite
eta olatuek ilargia.

Baina ilargiak ez nau maite…

Olatuek ezin naute dantzarazi zu gabe
ezin naute mugitu zu gabe
ezin busti,
ezin kolpatu,
ezin lasaitu zu gabe.

Beraz zu ilargia zara
nik behar dudan ilargia.

Eta zer dira olatuak orduan?

Ba inoiz eman ez ziren
muxu gazi-gozoak,
inoiz xuxurlatu ez ziren
belarriak,
inoiz egon ez zen
maitasuna…

Eta zer demontregatik zara ilargia
niretzat eta ez txokolatezko bonboia edo
ametsetako printzesa mutil guztientzat bezala?

Hona hemen arrazoia:

Emakumeak hiru multzotan
banatzen ditudala esan nizun:
eguzkiak, izarrak eta ilargiak.

Eguzkiak jatorrak eta alaiak dira,
gauza berezirik ez.

Izarrak fisikoki oso politak dira
eta gorputz ederra dute.

Ilargiak, ordea, misteriotsuak dira.
Nahiz eta beti aurpegi bat erakutsi,
zerbait ezkutatzen dute,
zirrara,
jakinmina
eta desira pizten duena.
Horregatik zara niretzako ilargia
nire bihotzaren orbitan biraka ari den satelitea.
Muzinik egiterik ez dagoen argi epela,
nire gau ilunak argitzen dituena.
Argitu.
Bai, argitu nauzu jada
baina zure baitan argiune bat
gura nuke ikusi.
Nik eginiko argiunea,
nik pizturiko maitasun sua.
Sutan.

Bai, sutan nago jada.
Eta bero nago zuk itzal nazazun zain,
zuk busti nazazun zain,
nire egarria zurekin asetzeko zain.
Horrela bustiz gero,
zerrauts bihurtuko naiz
eta haizeak bidaliko nau zuregana,
zuk arnas nazazun.
Gutxienez ni zure zati izango naiz,
zure esklabu,
sinbiosi kate hautsiezinean.

Filme batean bezala
baina badakizu, gidoirik gabe...

# Gutun guztiak karteroak jan dituelako

Juan Atxutegi Sarrionandia
Urritxe-Zornotza institutua
Amorebieta-Etxano

I

Saxofoien melodiaz betetako enparantza batean geundela,
munduko poeta depresibo guztiek
euren udaberriko lorea topatuta pozik zeudela,
zubiak ibai gainetik igarotzeko baino ez,
eta autoen zarata
urrunean igartzen zen zurrumurrua baino ez zela,
ezti, goxo.

Horrek denak aitortu zizkidan, itotzen gintuan hiriaren enparantza zikin bateko bankuan eserita geundela.

II

Pianoaren kolpe xaloak jada ez zeudela hain urrun,
izatez,
zu ere hurbilago sentitzen zintudala han eserita,
malenkonia begiradak behatzen,
usatzen.

Hori dena igarri zidan, eskutik gindoazela, hiri bakartiaz blai eginda, erritmo berezian guztiz sarturik.
Baina ulertu gabe.

## III

Amets egin duzula, eta ni agertzen nintzela,
eta kilometroak metro zirela,
eta bion artean itsasorik ez zegoela.
Leihotik behera mezuak, gutunak, ezinezko promesak,
leihotik behera bai,
zu goian, etxean, koartoan zeundelako.

Hori amestu dut, etxe bati begira, ihes egin nahi zuten gortina iraultzaileak zituen leihoari begira.

## IV

Ezinezkoa dela,
ilusioa errealitate bihurtu behar dugula,
ametsak ahaztu, bizitzeari ekin,
egunerokotasunaren erronkaren gatibu
aurrera jarraituz.
Nire buru gaixoari gezurrik ez esatea,
sufrimenduaren esanahi errukiorrak ahaztea,
utopia existitzen ez dela ulertzea.

Horrek guztiak botako dizkidazu larunbatean, etxetik urrun biok, hiru hilabete, bata bestearen atzetik.

## V

Eta akabo, ze,
azken finean,
nor (ze?) demontre gara gu,
patuaren aurka jokatzeko,
amodiozko eleberri kutrea eratzeko.
Saiatu dira aurretik,
saiatuko dira,
ziur aski,
geroago.

Hori pentsatu dut, bertso hauek idaztean, zutaz oroitzean.

## V (bis)

Eta esnatzen nintzenaren amesgaiztoa konta dizut,
negarretan hasi zara,
dardara sentitu dut.
Biolin bat txikitu dute adreiluak testigu, han,
izkinan,
eta ikusi egin dugu bere gerizpea,
korrika, ihesean,
biolinari ostutako arimarekin
badoala,
kalean behera.

## IV (bis)

Inoiz busik ikusi ez duen geltokian,
eserita,
zain.
Badator eta badoa, biziki, urduri.
Zertan zabiltza? –galdetu zion.
Zoriona galdu zitzaidan hemendik,
eta haren bila nago.
Noiztik?
Ixo, zoriona bilatu behar dut, galdu zitzaidan,
galdu.

## III (bis)

Amets inoiz egiten ez zuela,
beroegia zela Granada,
beroa eta astuna udaren azken egunetan,
beroegia,
hainbeste ez eskatzea.
Amets egiteko eskatzea ere…

## II (bis)

Derrepentean agertu ziren umeak, nonahi,
zarataka, barreka; txaloka gutxi batzuk.
Bete zen bizi berriz
enparantza,
berriz.
Han eserita, begira, ez zuen ulertzen,
Ez zuen ulertzen ene malenkoniaren zergatia,
iluna, urrutikoa, urrunegi ezkutatzen zena,
alabaina, sortu ere.

## I (bis)

Argazkiei begira, gutuna bigunduz,
hainbeste ukitzearren, dastatzearren,
bederen.
Berak oparitutako eguneroko orrietan murgilduta,
egunkari papertxoren bat ere,
bat jausi egin zaio,
begiratzera doa,
eta eguzkia sartzen zaio betazalarekin dantzan,
tximeletak,
mina,
ulertezina.

( )

Papertxo bat lurrean,
urteak ahaztuta,
herdoildutako hitzen ontzi.

# Ez dut astirik

Ainhoa Jimenez Goñi
Jakintza ikastola
Ordizia

Pentsa ezazu, pentsatzeagatik
Zu neu zarela
Neu ez naizela ni.

Pentsa ezazu pentsatzeagatik
Zoriona ezagutu duzula.

### *ESNATU*

Irribarrez
Erori altxatu.
Zauritu ondoren, negarrik ez.

Zikinkeriarik gabeko ibaiko
Marinel ohi.

Ilargiaren gau erotikoen
Konfidente doi.

Barkuaren agindua,
Zeure
Esku
Artean.

Munduaren amaierarantz
Noraezean.

Zin egin zentzatu zarela.

Zer duzu bihotzean?

DITXAREN ESTANPA

Eta bat-batean
Honen guztiaren oinarrian pentsatzen hasi zara

Nola ikus dezake inork argitasuna,
Landare hilen
Lorategian?

HEMEN hasten da

**BENETAKO**
**BIDAIA**

Bizitza ez da beti arrosa kolorekoa.

BAZOAZ

Norbaiten oinazearen kausa izan nahian.

Detaile txikiak.

Ume baten irria
Amaren negarra
Zorionaren auzia
Maitatzeko beharra.

BAZOAZ

Itzuliko zarela sinestu nahian.

Ametsen mamia

Begiak itxi
Leihoak zabaldu
Pausoz-pauso
Beldurra galduz.

BAZOAZ

Orain mila mendiak
Eskua ematen dute
Kemenaren-kemenez

Distantziak------------------lotuz.
Zeure begietan begiratzea
**(suaren islada)**
zorionez jantzitako gaueroko pijama.

Malko garratzen zapore gozo
Irribarre tristeen zorion sendo.

Izan ere...
Biak
Dolumin zein Tristura
Jipoitutako
Arimen
Ondorioz
EGIA BILAKATUTAKO
Ametsen
Aztarnak
**/besterik ez/**dira.

## ORAIN

Entzun
Arreta jarri
Ixo
Soinu ezaren edertasuna miretsi
Argitu
Zurrumurru baten soinuarekin

GARRASI EGIN!!!!!!!!!

Eta zer?

Lur azpian arima
Zeurea? Nirea?
Soilik, beharbada
Bakardadearen melodia
Faltsua.

Gauaren babespean
**Beldurrarekin** oheratu zinen
Ilargiaren presentzian.

Arropa erantzi

Laztan soil bat

Musuen festa...

BARRURA

Sartu atera

Barrura

Oihu bat

ORGASMOA

Bederatzi hilabetez

Izuaren ama.

Ba al dago bekatu bortitzagorik?

GARTZELA ZIGORRA

Zer leporatzen zait?

Trikimailu zikinena

Pauso lotsagarriena

Deabruaren maitalea zaren horri

ZEURE SEME BAKARRA

Hil izana.

Gutxienez orain aske zara.
Gartzelako preso
ASKEA.

Gau hartako eternitatea,
Hasi gabe
Amaitua.

Bertan egon zen lehen unetik
Bi gorputzen adrenalina
Pasioan bilakatu zenean,
Bi izaki hutsen
Hoztasunean,
Dantzan!

Barnean zenuen
Hitz egin gabe.

Hor zegoen

Irribarrea                    malko bihurtzean

Zeure bidaiaren babesle

Aberats eta pobre
Gizon eta emakume
Haur eta nerabe
Zuri zein beltz
Gaizkile edo bakezale

Edonoren ohean sartzeko prest
Gau hotz euritsuetan...

Orain gutxienez **libre** zara

Zabaldu begiak

***Eta adi egon***

Baliteke
Berriro ixtean

***Dena berriro hastea***

Pentsa ezazu, pentsatzeagatik
Zu neu zarela
Neu ez naizela ni

Pentsa ezazu pentsatzeagatik,
Zeure beldurra jadanik
Ez dela bizi.

Itxaron

Lasai

Ez larritu

Pauso bat

Kontrolatu

Aurrera

Gelditu

Bare

Trankil

Ekuru

Nare

Patxadatsu

Bi segundo...

Bat....

.

.

.

.

.

.

***ORAIN!***

Irribarrez jantzi.

<u>ZERGATIK DA BIHAR BERANDUEGI</u>

# Jolasean

Olatz Ibarluzea Santisteban
Larramendi ikastola
Mungia

## 1. jolasa

Gizon zahar bat golfean dabil, bakarrik.

Bost metrotara dagoen zulora oraindik ez du pilotatxorik sartu.

Golpe bat, bi, hiru, lau... Bizitzak golpe handiagorik ere eman dio.

## 2. jolasa

Nereak

bere aitite zaharraren txapela jantzi du.

Kalera irten da.

Denek laztandu eta samurki “potxola” deitu diote.

Aitite harro dago.

Kepak

bere amonaren takoi zorrozdun zapatak jantzi ditu.

Kalera irten da,

Nerearekin dibertitzeko asmoz.

Amonak umea hartu eta etxera eraman du.

Zer esan behar zuen jendeak ba?

## 3. jolasa

Umea espaziontzi batekin
jolasten ari da:
– Ama, astronauta izan nahi dut.
Ezetz
Baina ilargiak irribarre egin dio.

Umea itsasontzi batekin
jolasten ari da:
– Ama, arrantzale izan nahi dut
Ezetz.
Baina itsasoak irribarre egin dio.

– Ama, pertsona izan nahi dut.
Baietz.
Baina inork ez dio irribarrerik egin,
arimarekin ezin baitu jolastu.

## 4. jolasa

Maria arrazista da.
Gaur ia-ia ito egin da.
Koloredun pertsona batek
uretatik atera du.

Ez dio eskerrik eman
bere bizitza
jokoan zegoela argudiatuz.

## 5. jolasa

Ume palestinar bi
jolasten ari dira,
gezurrezko pistolekin.
Ama isilik dago,
noizbait pistolak harri bihurtuko direlako.

Ume palestinar bi
jolasten ari dira,
gezurrezko pistolekin.
Ama isilik dago,
ez dago kartzelaratzeko arriskurik,
kartzela batean bizi direlako.

Ume palestinar bi
jolasten ari dira,
gezurrezko pistolekin.
Ume bat zauritu egin da.
Ama isilik dago,
noizbait bala batek zeharkatuko duelako.

Nork dio jolasak ez direla hezigarriak?

**6. jolasa**

Urte askotan dominak lortu dituen korrikalariak gaur lehen aldiz irabazi du.
Drogak etxean utzi ditu,
bere hileta egunean.

## 7. jolasa

Maialeni Olentzerok
txokolatea oparitu dio.
Komunean
atzamarrak barruraino sartu
eta botaka egin du.
Ispiluaren aurrean jarri da,
ahul eta zuri,
bere gerrian duen azal zatia
bortizki obatuz:
“Nik ‘Barbie’ panpina eskatu nuen!”

## 8. jolasa

Josebak
kanpaia jotzea zer den ikasi du
gaur,
ikastolan.
Komunean ari da etengabe
bere gauzarik kuttunena
laztanduz eta igurtziz.
Oihuka hasi da,
eromenaren gatibu,
aztoratuta zantzoka hasi da.
Bapatean amak atea ireki du.
– Zertan ari zara seme?
– Jolasten.

# Ahotsik gabeko deiadarra

Garazi Etxeberria Barandiaran
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Zure begiei begiratu behar diet
esaten duzuna entzuteko.
Urruntasunak hurbildu gaitzan
mugarik gabeko maitasun hau ulertzeko.

Mutu, baina itsu ez
begirada itxiaz iltzaturik
itxaropen honek ihes egin ez dezan.
Ingurukoei muzin eginez
aurrera begira.
Mutu, baina itsu ez
denbora pasatzen utziz
gure lekuan geratuz
kolore doiak baztertuz
eta biziei leku emanaz,
une hau marrazteko, inoiz ez ahazteko.
Mutu, baina itsu ez
zure hatzaparretan berriz erortzeko
bai ordea,
zure hegal azpian gure habia egiteko.
Ozenago bai, baina garbiago ez
gardentasunez estalita dauden
hitz hauek errepikatzeko.
Mutu, baina itsu ez
urteak zahartzen ikusteko
adorea berreskuratzeko,
berriz gaztetzeko.

Isiltasun soinuek hitz egiten didate
bakardadearekin topo egiten dudanean.
Aurrera jarraitzeko dio,
sasi hauen lekuan
udaberriarekin batera
loreak uztartuko direla.
Mutu, baina itsu ez
beste lore batek bihotza arantzatzeko
eta aurrean dudan sasi honetan
galdu nuen ahotsa aurkitzeko.

Mutu bai, mutu
minez lurreratu nintzelako.
Itsu ez,
zauriak sendatzen ikusteko.

Mutu, baina itsu ez
zure itzala ukitzean
itsasoan gainezka egin duen
malkoa olatu artean bidaiatzen sentitzeko.
Iragana baztertuz,
bide berri honi aurrera ekiteko.
Itsu, zure argitasunez
estali nauzulako.
Mutu, hitzak sobera daudelako.

Eraman nazazu
azken malkoa xukatu nuen portu hartara
itsasoari barkamena eskatzera,
berak ere iragana ahaztu dezan
eta poztu dadin,
bere barrenean landatuko dugun
leialtasun honengatik.
Eguzki loreak irtengo dira hondarretan
haizeari itzala egiteko,
behin egin zuen eta
berriro ez banatzeko.

Hondar gainean jostari
kriseiluen argipean, ametsetan.
Olatuen soinuetan dantzatzen,
gure arteko isiltasuna baztertzen,
lotsa zokoratzen,
eskua emanik, musuz musu une honi
ate berriak irekitzen.
Oztopoak ekidin ditzagun
iragana urperatuz bizi berri bati
beste ikusmira bat ikus diezaiogun.
Ez mutu eta ez itsu
maitasun arruntari leialki erantzunik.
Hitz politak nagusi, damutasuna agerian.
Zure hitzak bihotzean gordeko ditut
noraezean galdu ez daitezen.

# Zure etxea izan bedi Himalaya

Haritz Casabal Pikabea
Pasaia Lizeoa
Pasaia

1.-MAKALU, 8.463 M.
(91/09/30)

Laurogeita hamaika zen,
Zuentzat urte gogorra,
Makalu izan zen lehen,
Zortzi milako tontorra.
Bostehun metro gehiago,
Lortzeko zuen altxorra,
Asko sofritu zenuten,
Gertatutakoa, horra.
Ordaindu behar zenuten,
Himalaya horren zorra,
Nahiz hartu bide luzea,
Nahiz hartu bide zidorra.
Aurpegia kiskalirik,
Larruazala lehorra,
Halere ez zen ihartu
Bi adarreko enborra.

## 2.-EVEREST, 8.848 M.
(92/09/25)

Urte bat igaro eta,
Bigarrena erraldoia,
Everest mendi altuan,
Zapaldu zenuten goia.
Hanka bakoitzean jarriz,
Hiru kiloko kranpoia,
Poliki pasa ondoren,
Zuhurtasunez montzoia.
Segidan zeharkatuaz,
Ondo, ziur espoloia,
Oxigenorik gabe hori da,
Egundokoa sasoia.
Han goitik uler liteke,
Hillari-ren arrazoia,
Eskerrak ez zela gose,
Himalayako lehoia.

3.- K-2, 8.611 M.
(94/06/24)

K-2 a deitzen diote,
Nahiz hotza izan habia,
Txina aldetik igota,
Gertatu zen zailegia.
Hainbat elur-jausi eta
Txarra zen eguraldia,
Hurren, beste saiakera,
Pakistandik alegia.
Cessen bidea harturik
Esatekotan egia,
Lehen erdia umorez,
Kontentu beste erdia,
San Joan egunez lortu,
Zenuten zuek, K-2a
Pozaren ikurrina zen
Bakoitzaren aurpegia.

4.-CHO OYU, 8.201 M.
(95/09/11)

Urte bat pasa ondoren
Altxor berri baten bila,
Atxabaldarrek osatzen
Dute bikote abila.
Alberto hain serioa,
Felix, alaia, Umila,
Arazoak izan ziren
Mendi zail horretan mila.
Baina zorionerako
Esperientzia pila,
Cho Oyu mendi tontorrak
Orain duen maratila.
Igo ondoren herrian
Dantzatu zuten ezkila,
Haien poza betirako
Haiengan gera dadila

## 5.-LHOTSE, 8.516 M.
(95/09/27)

Cho Oyu igo ondoren
Neurtzekotan indarra,
Hau are handiagoa,
Betiko Lhotse zaharra.
Hain altuera handira
Hain azkar igo beharra,
Igoera txukun, ona,
Landua eta azkarra.
Galdera bat dut buruan
Erantzuten zail samarra,
Non dago mugaren muga?
Eta non mugaren marra?
Baina ikusirik galdu
Ez zenutela iparra,
Iñurrategi anaiak
Zarete kasu bakarra.

## 6.-KANGCHENJUNGA, 8.586 M.
(96/05/06)

Laurogeita hamaseian,
Kangchenjunga du izena,
Tontorrean hain zorrotza,
Magalean hain gizena.
Altueraz bera dugu
Munduko hirugarrena,
Askori ekarri die
Heriotzaren kondena.
Kikek ezin zuen lortu
Hark lortu nahi zuen dena,
Nahiz indarrik ez eduki
Soberan zuen kemena.
Hirukote bihurtu zen
Laukoterik ederrena,
Hirukotea bikote
Bihurtzea okerrena.

## 7.-SHISHA PANGMA, 8.027 M.
(96/10/11)

Beste gailur bat gehiago
Bertan uneak garratzak,
Juanito larri zegoen
pasa zenituzten latzak,
Arma gisa erabiliz
Piolet antzeko lantzak,
Igo ahala errenditu,
Zeuen buruan zalantzak…
Zulu bertan hil zen eta
Ezetz zioen balantzak.
Laguna_omendu nahian
Zenituzten esperantzak.
Zortea eman zizuen
Hartu zenuten norantzak,
Gero bihotz beroz urtuz
Izotz hotzaren arantzak.

## 8.- BROAD PEAK, 8.047 M.
(97/07/13)

Broad Peak, eta urtea
Laurogeita hamazazpi,
Bi gazte hauek oraindik
Ez omen zeukaten aski.
Bizileku Himalaya
Etxean hainbat argazki,
Nahiz irentsiak dituen
Jada hamaika gizaki,
Mendia igotzekotan
Hartuaz hainbeste asti
Nahastu zituzten berdin
Mendiko goi eta azpi
“Broad Peak erraza dugu”
Gero pasa zuten gaizki,
Hamahiru eguna baitzen
Tontor lortzea zehazki.

9.-DHAULAGIRI, 8167 M.
(98/05/22)

Dhaulagiri da orain,
Beste zortzi milakoa,
Gainditzeko sortu ohi du
Mendi honek lan nahikoa.
Bide berririk ezean
Erabiliz ohikoa,
Bidea luzea zenez
Arina zen ekipoa,
Poliki baina aurrera
Pausua beti tinkoa
Une orotan mantenduz
Behar bazuten tipoa,
Goia jo, ez da ez txantxa
Biek han eginikoa.
Ziur han egin zutela
Festa, garrasi, brinkoa.

## 10-NANGA PARBAT, 8.125 M.
(99/07/29)

Hau zuten hamargarrena
Ia ezin_zuten sinetsi
Urtero gailur berriak
Hauek ezin zuten etsi.
Mendi tartean zebiltzan
Orin igo, orin jaitsi,
Marka guztiak zituzten
Errotik indartsu hautsi.
Gai zirela nahi ziguten
Argi eta garbi utzi.
Haien maila ona zela
Azkar zuten erakutsi.
Arrisku handi artean
Nahiz arriskatu gutxi
Nanga Parbat igo eta
Aterik ez zuten itxi.

## 11.-MANASLU, 8.163 M.
(00/04/25)

Hasi zen bi milagarren
Urteko le(he)n abentura,
Handia, beldurgarria
Manaslu honen altura.
Udaberrian igoaz
Amesturiko lekura,
Hura zen paisaia eta
Hura gozamena, hura!
Nahiz janari gutxi_eduki
Soberan ordea ura
Urte horretan faltatzen
Zirenak lortzea gura,
Nahiz eta eduki hainbat
Zalantza, hainbeste duda,
Bi milagarren urtea
Jarritako epemuga.

## 12-GASHERBRUM, 8.035 M.
(00/07/28)

Gasherbrum hori igota
Zeinen momentu alaia
Paregabekoa baita
Karakorum-go talaia.
Tontorra lortu artean
Zaila izan zen bidaia,
Eta are zailagoa
Gero jaisteko garaia.
Heriotza izan zuten
Zoritxarrean etsaia,
Felix zulora erori
Agurtu gabe anaia.
Poema oso tristea
Zen Albertoren bisaia
Felix betirako duzu
Zure etxe Himalaya.

**Doinua: Habanera**

# Gomuten gurpilean biraka

Maialen Olazabal Loyola
Elgoibar institutua
Elgoibar

Zapatu gaua iritsi jaku
izar uxoa nigan esnatu,
astero legez nire barrenak
jai-giroa dit eskatu (bis)
aman esanak ahaztu
lagun giroan naiz sartu,
penak alboan lokartu
pixka bat gehio edanagatik
ez da mundua bukatu,
hori uste nun gau hartan baina
geroztik ez naiz altxatu. (bis)

Iritsi nahirik, banuen lana
nire barnean hura afana!
maite nuena ahalik azkarren
hurbildu nahi niregana (bis)
dama harek zuen xarma
gozatzea nuen plana
zein heldutasun bakana!
mendi-bidea une batean
bihurtu zitzaidan zama
orduz geroztik ez da berdina
oraina ta iragana. (bis)
Bi hankak geldi, dantzak akabo
aulki hontara loturik nago
malko orok du nire barnean
geroztik samin oparo (bis)
hemen sarri naiz arraro
eta beronen esklabo
erotu naiz ni zeharo,
etorkizuna iratzarri nahi
eskatu nahirik gehiago
zutik jartzea amets bat soilik
izan ez dadin itxaro. (bis)

Urtarrileko gau ilun hura
halakoa zen bere itxura,
hark ekarri du nire barnera
ahulezia eta tristura (bis)
amaitu da abentura
malkoak zaku barrura
baina barnean ardura
bihotz barruan loturik daukat
behera naraman aingura:
Anek gau hartan nozitu zuen
ustekabeko helmuga. (bis)
Kalera irten, eguzkipean
neska txiki bat nire aurrean
begi urdinez begiratzen nau
amonaren babespean (bis)
harriekin jolasean
altxatu da bat-batean
barretxo bat zutitzean
pauso txikiez ta balantzaka
niregana hurbiltzean
posible al da? zu zeu zinela
sentitu dut bihotzean. (bis)

Bere lehenengo pauso txikiak
erakutsirik abileziak,
berak bakarrik gogoz ta grinaz
arrats hontan ikasiak (bis)
argien printzaz josiak,
diruz ezin erosiak:
igaro ditu hesiak;
nik ere berdin pasa nahi ditut
ezinaren maleziak:
haurtxo honetxek iziotu dizkit
esperantzaren argiak. (bis)

Gau hartatikan, jira ta bira
hainbeste egun pasatu dira
arantzak zorrotz ziztatu arren
nigandik urrun ez zira (bis)
umetxoaren dizdira
zure begiak badira
ez da amaitu partida;
eman gabeko muxu mutua
dut bihotzeko desira:
nigan bizirik iraungo duzu,
hura ez zen despedida. (bis).

**Doinua: Naufragoarena**

# Amets minez

Itxaso Amaia Paia Ruiz
Ander Deuna ikastola
Sopelana

Altxatzen ikasteko erori beharrik gabeko bidea da mundua,
Txorien txorrotxioak argitzen du iluna,
Zoriona dohainik mailegatzen dute bankuek,
Olatuek kilimak egiten dizkiote labarrari...

Amildegiak txirrista dira,
Mirariek zabortegiak betetzen dituzte,
Eskuak elkarri emateko dira, ferekatzeko,
Txalo jotzeko,
Sentimenduak adierazteko.

Elur maluta bakoitzak bi ortzadar margotzen ditu zeruan,
Gibelurdinak aterki bihurtu ditugu eta
Ilargia ere gurekin dator
Nire urtebetetzea ospatzera Aliziaren lurralde miragarrian.

Negarra barrearen berreketa baino ez da,
Ubelduak kutxa horiek dituzten motatxo lilak besterik ez dira,
Egiak herrenen makuluak kamusten ditu eta
Ni filmaren ikusle soil bat naiz, krispeta usain gozo artean.

Begiak itxi ditut aho zabalka,
Argia maindire beltzen barnera sartu da biluzik, baina
Irratiak ez du lotara joan nahi,
Nahiz eta isiltasunak errieta egiten dion ohearen azpitik,
Ardiak hesiaren gainetik jauzi egiteko gogoz baitaude...

.

.

.

Artzain txakurra gitarra jotzen ari da, ardiek hainbeste atsegin duten
Milonga doinuan, mi sol fa la re,
Eta otsoak txirula jotzen du, baina Amelingo
Txirularia Pinotxorekin eta Hanselekin dago zabuetan...
Sorginaren ispiluak galderarik ez egiteko erregutzen die hiru txerritxoei eta
Amonak Edurne Zuriren gonari adabaki gorri bat josi nahi dio
Kalabaza izateari utzi dion txokolatezko etxean.

Armairu barruko soinekoak zintzilik gelditu dira,
Mesanotxeko liburuko hitzak hiztegian daude berriz,
Eta gaur ez du haginik lapurtuko Maritxu
Teilatukok oliba gabeko ohepean, atzoko ogiz
Siesta garaian etortzen ez baldin bada behintzat.

Danborra jotzen hasi dira hodeiak,
Ezkilarekin dantzan ari da haizea,
Izarrek ez dute ordaindu azken hilabeteko faktura, eta etxeko
Txirrina joko zigukeen hotzak, oilo ipurdi azala
Zelatan izan ez balu...
Ekaitzak ere parranda egin nahi du, baina
Noizbehinka jakin behar da igandea ajerik gabe bizitzen.
Denak lo daude, nire burua ohean etzanda.

Ikusten dudan bezala; nire gorputz
Tolestua izara artean dago, eta ni
Uhin bat besterik ez naiz gelaren maiztasunean,
Gurdi eta kaiolarik gabeko arima,
Urratsik eman ez eta bideak egiten dituena.

Bare, baina urduri nago ametsetan,
Eguzkiaren gotorlekua den ortzi-mugatik harago joan nahi dudalako,
Tritonek olatuen gainean trostan ibiltzeko baimena ematen badit,
Eolok nire hegoen atzetik putz egiteko minik ez badu,
Txorien lumek haren eztarria urratzen dutelako...
Zentzurik gabe darabildan bizitzari iparrorratz bat erosi nahi diot,
Ekialdeko izpiek esnarazten nautenean, ez
Nadin egunaren beldur izan, amets minez.

Ekiak gaizki itxitako pertsiana fusilatu du eta lerro
Zuzen argiek nire ziegako barroteak margotu dituzte.

Dortokak lasterketa irabazi dio hamaikagarren aldiz erbiari,
Ispiluak afonia kronikoa dauka,
Re desafinatu baten oihartzun itoa baino ez da entzuten gelan,
Ekaitzak negar egin nahi du, baina dagoeneko ez du malkorik, eta
Liburuak letraz izkiriatu dira berriz...
Ardiak aspertu dira,
Kalabaza bihurtu da mundua...
Oro ez da urre.

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Beteluko adarbakoitzaren kantorea

Miren Estibaliz Vivanco Ramirez
Lauro ikastola
Loiu

Zergatik duzu negarra,
On Antso, errege handia?
Nafarroako algarak
ez du merezi sumina.

Gogora itzazu batailak,
armaz lortutako hiriak;
oinetan dituzu etsaiak,
menpean kanpoko herriak.

– Astuna daukat koroa,
betirako joan da poza,
emazte laztan goxoa
zendu zitzaidan Aldontza!

On Antso, errege nafarra,
sikatu zeure malkoak,
estaltzen dituzte izarrak
eta ezkutatzen geroa.

Etxean dituzu adarrak,
emaztea zen enborra.
Besarkatzean alabak,
ez duzu ikusten Aldontza?

– Bi lili ditut, ederrak,
bi lore dira galantak:
Giomar ene txikerra,
nagusia Violanda.

Biak bertuteko damak,
dohatsu bezain garbiak:
txikia eguzki bezala,
ilargia lez handia.

Ahizpek daukate antzeko
zintzotasun eta xarma,
baina bestelako apetak,
trebetasuna eta antza.

Giomarren txirikordak
urrez egindako adarrak,
ikatza bezain iluna
Violandaren adatsa.

Brodatzen dago tapiza
buru belarri Violanda,
ederreztatzeko eliza
non esposatu senarra.

Gustuko ez dute haria
ahizpa txikiaren hatzek,
baina lar trebeak dira
lirari soinua ateratzen.

* * *

Aita goibel ikustean
zotinka eta aieneka,
abesten du Giomarrek
bozaren doinu ederraz:

“Lekunberriko herrian
kontatzen zuen jendeak
Beteluko artadian
pizti bat agertu zela.
Inork ez zekien ziur
bere gisa edo manera.
Batzuentzat zen oreina,
asto besteen ustera,
zuela adar zorrotza
ahotan ibiltzen zena.”

– Ene Giomar laztana,
hura ez zen pizti krudela,
baizik eta adarbakarra,
izakirik ederrena.

Elurra bezain zuria
zaldi moduko ilaje,
begiak urdin-urdinak,
ontasunaren seinale.

Batzuk harrapatu nahian
geziez eta sareaz
adarbakoitza bilatzen,
oi!, zebiltzan oihanean.

Zeinen den egite gatza
atzitzea adarbakarra!
Arinak ditu apatxak
haizea bezain azkarrak.

Ahulezia bakarra dauka
adarbakoitzaren senak:
dontzeila baten magala
non bilatu atsedena.

– Arren, esadazu, aita,
horren managaitz izanda,
zergatik adarbakoitzak
gura neskaren magala?

– Zalditxo horren arima
zuhurra da nahiz garbia,
primeran bereizten du
gaitza denatik ongia.

Oi!, horren gauza argirik
mundu honetan ez dago
birjinaren bihotz lili
maitekorra dena baino.

Baina bekatu batekin
idorotzen badu dama,
adar kiribilarekin
zulatuko dio bularra.

* * *

Gaztelako jaun kondeak,
deituriko On Gartzia,
bilatzen ditu emaztea,
fortuna eta loria.

On Antsoren bi alabak
begiz jo ditu Gartziak.
Gustatzen zaio txikerra,
baina eskatu du handia.

Bide batez jaun doilorrak
bi mandatu egin nahi ditu:
gorteiatu Violanda
ta Giomar seduzitu.

Violanda goru egiten
ari den, oi!, bitartean,
bere bihotza eskaintzen
Giomarri jaun kondeak.

– Giomar, dama galanta,
utzidazu zure eskua,
zu zarelako, oi laztana!,
ene eguneko lilura.

Horrek zion Giomarri
danba egin bihotzean,
sentitu zen, berriz, gaizki
ahizpa azpi-jokatzean.

Maitemin biziaz jota
dago Giomar dontzeila,
pozez gainezka bihotza,
kondea ikusten duenean.

* * *

Iritsi zen ermitaua
On Antsoren jauregira,
errege-sendagailua
zekarrela zen berria.

– Adarbakoitz adarrean
soilik dezakezu edan,
jauna, ene edabea,
ta laster duzu senda.

Gortean itaun bakarra:
nor izango ote da amua?
Giomar dontzeila ausarta
ala Violanda biguna?

Giomar joan da aitagana,
nahiz ta egon amodioz jota.
“Neuk lortuko dut adarra
erabili gabe soka.”

* * *

Goizeko laino gorritan
eraman dute Giomar
Beteluko artadira,
piztia itxaron dezan.

Une batetik bestera
agertu da adarbakarra,
lau hatzez haize gainean,
tximista bezain azkarra.

Neskatxak, biziaz etsita,
artean du itxaropena
etortzeaz On Gartzia
ta ekartzeko salbamena.

Hori egitandien ugaria!
Gartzia konde koldarra
geratu da jauregian
laguntzeko Violanda.

Animaliaren niniek
begiesten dute bularra,
non Giomarrek josita
kondearen mina daraman.

Alperrik ziren auhenak,
alperrik, negar malkoak,
adar zorrotzeko iltzeak
trabeskatu zion bihotza.

Erregearen oinetan
utzi dituzte adarra,
eta artean odoletan
zulatutako bularra.

Zergatik duzu negarra,
On Antso errege handia?,
lortu zizun ta alabak
sendatzeko edalontzia.

*Violanda donçeilaren cophrechoan topadurico cantorea.*
***Joan Perez de Laçarraga**, Larrea dorrecheco jauna*

# Koloreen melodiapean galdurik, bizitzaren elbarritasunari so

Ane Badiola Ostolaiz
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Margo doien mozorropean
bildurik izaite sutsua,
emeki-emeki laztanduz
pintzel nakar eta faltsua.

Adorea aloger,
gorritan busti ditu ileak;
gorri nabarrean,
apalean.
Maitasunaren melodia xamurrak
estali du pintzela
une batez,
bederen,
eskuratuz estalki epela.
Goxoenaren goxotasuna
alde batera laga
eta amorruaren gorriz
jantzi da oharkabean.
Larritasuna epaile dela
isuri du lehen tantoa;
saminaren tantoa.

Nortasunari bultzada bat emanez,
ufada sakona eman dio pintzelak nahigabeari,
etsipenari,
malenkoniari.
Orlegia
izan du arma.
Edertasunaren sinbolismo faltsu,
sinbolismo aizunaz ohartu
eta koloreak biltzen duen
bidegabekeriaz jabetu da.
…
Stop.
Ezbai tematia.
…
Aurrera.
Ez du kolorea baztertu nahi izan
eta gogoz murgildu da
tinta hotzean.
Funtsean ilusio optiko soila den
margoak,
bizi gosearen errainuan
dantzan dihardu;
injustiziaren baladetan
preso.

Handinahikeriaren adaxka ustelen
emankortasun eskasaren lekuko,
erdi artega,
erdi mesfidati
kanporatu du bigarren tantoa;
amorruaren tantoa.

Zeruaren urdinez
atondu da oraingoan,
bizitzari,
nolabaiteko zentzua
emateko esperantzan.
Fantasia bidaide,
segurtasuna itsaso,
itxaropena iturri,
askatasuna lema...
Ongizatearen gerizpean,
gerizpe umelean,
hartu du ostatu
eta bertan,
emozioaren urmael bihurtuz
malkorik indartsuena
isuri du hirugarren tantoa;
esperantzaren tantoa.

Margo argitsuak baztertu barik
zuria hartu du habiatzat
eta biluztasunaren gatibua
ezerezaren kotoiz egindako
soinekoa jantzi du soinean.
Tinta zabalduz dihardu,
orain ezker,
orain eskuin,
noraezean.
Hutsik sentitzen da.
Zuri.
Adierazgarritasunean txiro,
baliogabetuz bere izaitea,
askatu du laugarren tantoa;
ezinaren tantoa.

Hutsarte hitsak
eragindako sufrikarioa aitzindari,
gris garratz baten mozorroaz
estali da pintzela,
modu batean zein bestean
boteretzaren egarria
haseko dion
edabe magikoaren aiduru.
Larritasunaren imintzioa
egin du halako batean,
adiskiderik minena duen
beltzaren arerio
baita guda honetan.
Etsai politikoaren aurkako
inkisizioa bailitzan,
independentziaren oihartzuna
aditu da pintzelaren
zirrikituetariko bakoitzean.
Zertzelada biziaz,
bortitzaz,
urratu du arima
eta agonia madarikatu horren mirabe,
malkotan urtuz,
jausi zaio laugarren tantoa;
inpotentziaren tantoa.

Koloreen melodiapean galdurik
nabar ageri da pintzela,
tantarik tanta
kolorez kolore,
sentimenduen klandestinitatean
buruturiko epaitzan,
epaitza metodikoan,
izandako burutzaren adierazgarri.

Gorriaren samina,
orlegiaren amorrua,
urdinaren esperantza,
zuriaren ezina,
grisaren inpotentzia…

Ilusio optikoak.
Ilusio optikoak bihurtuz
egunerokotasunaren aldarrikatzaile,
tanto guztiak batu,
denak josi
eta bizitzaren elbarritasunari so
jausi zait lehenengo malkoa;
oinazearen malkoa…

Koloreen erakuslehiora hurreratu
eta iraultzarik iraultzaileenaren aiduru
agur hutsala
